# ¿CÓMO CONSTRUYEN LAS PRÁCTICAS ARTÍSTICAS ESFERA PÚBLICA?

# ARTE-PRAKTIKEK NOLA ERAIKITZEN DUTE ESPARRU PUBLIKOA?

consonni

LAPUBLIKA

LABORATORIO DE INVESTIGACIÓN ARTÍSTICA SOBRE ESFERA PÚBLICA

ESPARRU PUBLIKOARI BURUZKO ARTE-IKERKETARAKO LABORATEGIA

LAPUBLIKA

powered by consonni

¿Cómo construyen
las prácticas artísticas
esfera pública?

Arte-praktikek
nola eraikitzen dute
esparru publikoa?

**DE LA PUBLICACIÓN**

Coordinación y edición
consonni
C/ Conde Mirasol 13-LJ1D
48003 Bilbao
www.consonni.org

Diseño gráfico
Eider Corral

Traducciones
Danele Sarriugarte
Robert Curwen
Edgar Passhingam

Fotografías (pág. 136-140)
Mirari Echavarri
consonni

Impresión
Agpograf

Primera edición: octubre 2016, Bilbao
ISBN: 978-84-16205-20-2
Depósito legal: BI-1103-2016

Esta obra está sujeta a la licencia *Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional de Creative Commons* (CC BY-NC-SA 4.0). Los textos, traducciones e imágenes pertenecen a sus autoras/es.

**ARGITALPENARENAK**

Koordinazioa eta edizioa
consonni
C/ Conde Mirasol 13-LJ1D
48003 Bilbao
www.consonni.org

Diseinu grafikoa
Eider Corral

Itzulpenak
Danele Sarriugarte
Robert Curwen
Edgar Passhingam

Argazkiak (136-140 orr.)
Mirari Echavarri
consonni

Inprimaketa
Agpograf

Lehenenego edizioa: 2016ko urria, Bilbo
ISBN: 978-84-16205-20-2
Lege-gordailua: BI-1103-2016

*Creative Commonseko Aitortu-EzKomertziala-BerdinPartekatu 4.0 Nazioartekoa* (CC BY-NC-SA 4.0) lizentziaren pean argitaratzen da lan hau. Haien autoreen jabetzakoak dira testuak, itzulpenak eta irudiak.

**consonni** es una productora de arte contemporáneo sin ánimo de lucro y una editorial especializada localizada en Bilbao. Desde 1996, consonni invita a artistas a desarrollar proyectos que generalmente no adoptan un aspecto de objeto de arte expuesto en un espacio. consonni investiga fórmulas para expandir conceptos como el comisariado, la producción, la programación y la edición desde las prácticas artísticas contemporáneas. consonni propone registrar las diversas maneras de hacer crítica en la actualidad y de crear esfera pública, con los feminismos como hoja de ruta. La editorial cuenta con tres colecciones: Proyectos, Paper y Beste.

**consonni** arte garaikideko ekoiztetxe bat eta argitaletxe espezializatu bat da, irabazi-asmorik gabea, eta Bilbon dago. 1996az geroztik, consonnik artistak hauspotzen ditu proiektuak gara ditzaten, zeintzuk, oro har, ez baitute izaten areto batean erakusten den arte-objektuaren itxurarik. consonnik, arte garaikideko praktikak abiapuntu, hainbat kontzeptu hedatzeko bideak bilatzen ditu: komisariotza, ekoizpena, programazioa eta edizioa. Gaur egun kritika egiteko eta esparru publikoa sortzeko askotariko moldeak bildu nahi ditu consonnik, feminismoak bide-orri. Argitaletxean hiru bilduma daude: Proyectos, Paper eta Beste.

**DEL PROYECTO**

Dirección artística y coordinación: consonni

Producción: Donostia / San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura y Tabakalera Centro Internacional de Cultura Contemporánea

Colaboraciones: Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU), Azkuna Zentroa, Dabadaba

Apoyos: Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao Ekintza, Acción Cultural Española (AC/E), EHUKultura (Dirección  de Proyección Universitaria, Bizkaia UPV/EHU), Hotel Silken Amara Plaza, Radio Euskadi (EITB), Casares Irratia, 97 FM irratia, Filmin, Radio Vallekas, Escuela de Radio TEA FM, Gorka Izagirre txakolina, Agpograf y Hazi Fundazioa.

**PROIEKTUARENAK**

Arte-zuzendaritza eta kudeaketa: consonni

Ekoizpena: Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Kolaboratzaileak: UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatea, Azkuna Zentroa eta Dabadaba

Babesa: Eusko Jauralitzaren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao Ekintza, Acción Cultural Española (AC/E), EHUKultura (Unibertsitate eta Zabalkuntza Zuzendaritza Bizkaia, UPV/EHU), Hotel Silken Amara Plaza, Radio Euskadi (EITB), Casares Irratia, 97 FM irratia, Filmin, Radio Vallekas, TEA FM irrati eskola, Gorka Izagirre txakolina, Agpograf eta Hazi Fundazioa.

Este libro se imprime en octubre de 2016.
Los contenidos, participantes y apoyos que se van sumando al proyecto se actualizan en www.lapublika.org.

2016ko urrian inprimatu zen liburu hau.
Proiektuari gehitzen zaizkion eduki, parte-hartzaile eta babesleak orrialde honetan eguneratzen dira: www.lapublika.org.

La publicación que tienes entre tus manos recoge documentación del proyecto LaPublika, laboratorio de investigación artística sobre esfera pública, desarrollado por la productora de arte y editorial consonni entre 2014 y 2016.

Más que adjetivar y delimitar las prácticas artísticas como “públicas”, en línea con la noción de “arte público”, aquí se propone operar sobre el concepto más difuso de “esfera pública”. Esto amplía y desparrama la mirada sobre la operación, que el arte posibilita, de análisis y representación de los asuntos comunes. LaPublika se mueve entre los pliegues de lo público, lo privado, lo común, lo íntimo, la plaza, el cubo blanco, lo institucional, los conflictos, lo democrático, lo sonoro, las imágenes, los relatos, el discurso, la conversación, el diálogo, el susurro, el grito, el crujido y muchos otros sustantivos que van y vienen.

A partir de la pregunta “cómo las prácticas artísticas construyen esfera pública”, que se localiza y rescata en el texto *Agorafobia* de Rosalyn Deutsche, se articula un laboratorio que, a lo largo de estos años, no ha buscado una respuesta única ni una definición consensuada de la idea de “esfera pública”, sino más bien construir un relato abierto y fractal, que desborda el concepto de partida y lo conecta con otros lenguajes, otras preocupaciones, otras realidades. El proceso, en el que hemos contado con la colaboración de centenares de cómplices, se ha ido enriqueciendo a través de los distintos formatos y dispositivos en juego: cinco talleres, un seminario, dos radio-magazines, un radio-simposio, dos grupos de investigación, la web, el proyecto transversal LaPregunta y, finalmente, este mismo libro.

Además de los materiales recogidos aquí, LaPublika cuenta con un amplio archivo online con podcasts de las actividades, audio-entrevistas, imágenes y otros registros gráficos y sonoros, así como una extensa biblioteca con enlaces a los textos que más nos han inspirado.

**www.lapublika.org**

LaPublika es un proyecto dirigido y coordinado por consonni, producido por Donostia / San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura y Tabakalera Centro Internacional de Cultura Contemporánea con la colaboración de la Facultad de Bellas Artes(UPV/EHU), Azkuna Zentroa, y Dabadaba y el apoyo del Departamento de Educación, Política Linguística y Cultura del Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao Ekintza, Acción Cultural Española (AC/E), EHUKultura (Dirección de Proyección Universitaria, Bizkaia UPV/EHU), Hotel Silken Amara Plaza, Radio Euskadi (EITB), Casares Irratia,97 FM irratia, Filmin, RadioVallekas, Escuela de Radio TEA FM, Gorka Izagirre txakolina, Agpograf y Hazi Fundazioa.

Argitalpen honetan bildu ditugu LaPublika proiektuaren inguruko dokumentuak. Laborategi bat da LaPublika; esparru publikoa ikertu nahi du, artearen bidez, eta consonni argitaletxe eta arte-ekoiztetxeak jarri zuen martxan, 2014. eta 2016. urteen bitartean.

“Arte publikoaren” barruan, arte-praktikak zehazten eta mugatzen dira, eta “publikotzat” jotzen; hemen, ordea, kontzeptu lausoago batekin lan egin dugu, “esparru publikoa” kontzeptuarekin, hain zuzen. Horri esker, begirada zabaltzen eta sakabanatzen da, eta gai komunak aztertzeko eta errepresentatzeko ekintzari erreparatzen zaio, horixe egiten dueta arteak. Askotariko tolesen artean mugitzen da LaPublika: publikoa, pribatua, komuna, intimoa, plaza, kubo zuria, instituzioa, gatazkak, demokrazia, soinua, irudiak, kontakizunak, diskurtsoa, elkarrizketa, solasaldia, xuxurla, garrasia, kirrinka eta joan-etorrian dabiltzan beste hainbeste izen.

Rosalyn Deutscheren *Agorafobia* testuan berreskuratu genuen honako galdera hau: “ea zelan eraikitzen duten arte-praktikek esparru publikoa”; horri tiraka antolatu genuen laborategia eta, urte hauetan, ez dugu “esparru publikoaren” definizio bateratu bat bilatu, ez eta erantzun bakar bat ere; aitzitik, kontakizun ireki eta zatikatu bat eraiki nahi izan dugu, abiapuntuko kontzeptuari gainezka egin diezaion eta bestelako mintzairekin, kezkekin eta errealitateekin lotu dadin. Bien bitartean, ehunka konplizerekin aritu gara, eta prozesua aberastu egin da, zeren hamaika euskarri eta gailu baliatu baititugu: bost tailer, mintegi bat, bi irrati-magazin, irrati-sinposium bat, bi ikerketa-talde, webgune bat, LaPregunta zeharkako proiektua eta, azkenik, liburu hauxe.

Hainbat material bildu ditugu hemen eta, horrez gainera, sareko artxibo zabal bat ere badauka LaPublikak. Bertan biltzen dira ekintzetako podcastak, soinu-elkarrizketak, irudiak eta bestelako erregistroak ere, grafikoak eta soinuzkoak. Bestalde, liburutegi itzel bat ere badago, gogoa berotu diguten testuen loturekin.

**www.lapublika.org**

LaPublika proiektuan hainbat eragilek hartzen dute parte: consonnik zuzendu eta kudeatzen du eta Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak ekoizten dute, UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatearekin, Azkuna Zentroa eta Dabadabarekin elkarlanean garatu da, eta laguntza jasotzen du Eusko Jauralitzaren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Bizkaiko Foru Aldundia,Bilbao Ekintza, Acción Cultural Española (AC/E), EHUKultura (Unibertsitate eta Zabalkuntza Zuzendaritza Bizkaia, UPV/EHU), Hotel Silken Amara Plaza, Radio Euskadi (EITB), Casares Irratia,97 FM irratia, Filmin, RadioVallekas, TEA FM irrati eskola, Gorka Izagirre txakolina, Agpograf eta Hazi Fundazioa.

## CONTENIDOS / EDUKIAK

**Programa**
**2014 — 2015 — 2016**
PÁGINA 13

**Esfera pública y prácticas artísticas: apuntes para un marco de trabajo**
PÁGINA 20

**Grupos de investigación**

Orea.
Grupo coordinado por consonni en colaboración con la Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU)
PÁGINA 41

Pedagogías y esfera pública.
Grupo coordinado por el área de mediación (Tabakalera)
PÁGINA 49

**Participantes**
PÁGINA 59

**LaPregunta**
PÁGINA 145

**Programa**
**2014 — 2015 — 2016**
13. ORRIALDEA

**Esparru publikoa eta arte-praktikak: lan-marko bat eratzeko oharrak**
28. ORRIALDEA

**Ikerketa taldeak**

Orea.
consonni koordinatzaile, Arte Ederretako Fakultatea laguntzaile (UPV/EHU)
41. ORRIALDEA

Pedagogia publikoak eta esparru publikoa.
Hezkuntza saila koordinatzaile (Tabakalera)
49. ORRIALDEA

**Parte-hartzaileak**
59. ORRIALDEA

**Galdera**
145. ORRIALDEA

# 2014

**PRÓLOGO DE PRESENTACIÓN DEL LABORATORIO ESFERA PÚBLICA**
Donostia-San Sebastián, Bilbao, Barcelona, Luleå, Estocolmo y Madrid

El 31 de octubre de 2014, consonni es invitada a participar en las jornadas TRANS-locaciones. Experiencias temporales, prácticas artísticas y contextos locales. Coordinadas por Arts Santa Mónica (Barcelona) e Idensitat. Posteriormente en Suecia, consonni participa en unas conferencias sobre arte y espacio público en Luleå. Las sesiones principales de este prólogo, suceden en Donostia, organizadas por consonni en colaboración con Tabakalera y DSS2016:

**S.4**
**CRISTINA GARRIDO Y JULIA MORANDEIRA — ESFERA PÚBLICA DESDE LAS PRÁCTICAS ARTÍSTICAS**
Taller:
14 y 15 de noviembre de 2014
Sukaldea, Tabakalera,
Donostia-San Sebastián

**S.5**
**NÚRIA GÜELL — ¿DEMASIADA ESFERA PÚBLICA?**
Taller:
10 y 11 de diciembre de 2014
Sukaldea, Tabakalera,
Donostia-San Sebastián

**S.6**
**CONVERSACIÓN ENTRE MAGDALENA MALM Y MARÍA MUR DEAN**
Jueves 11 de diciembre de 2014
DSS2016Gunea, Donostia-San Sebastián

PROGRAMA LAPUBLIKA 2014-2015-2016

# 2014

**ESPARRU PUBLIKOAREN LABORATEGIA AURKEZTEKO HITZAURREA**
Donostia, Bilbo, Bartzelona, Luleå, Stockholm eta Madril

2014ko urriaren 31n, TRANS-locaciones jardunaldietan parte hartu zuen consonnik. Aldi baterako esperientziak, arte-praktikak eta tokiko testuinguruak. Arts Santa Mónica (Bartzelona) eta Idensitat koordinatzaile. Gerora, arteari eta espazio publikoari buruzko hitzaldi-sorta batean parte hartu zuen consonnik, Luleå hirian, Suedian. Donostian egin dira hitzaurre honetako saio nagusiak; consonni, Tabakalera eta DSS2016 antolatzaile.

**S.4**
**CRISTINA GARRIDO ETA JULIA MORANDEIRA — ESPARRU PUBLIKOA, ARTE-PRAKTIKAK ABIAPUNTU**
Tailerra:
2014ko azaroaren 14a eta 15a
Sukaldea, Tabakalera, Donostia

**S.5**
**NÚRIA GÜELL — ESPARRU PUBLIKO GEHIEGI?**
Tailerra:
2014ko abenduaren 10 eta 11
Sukaldea, Tabakalera, Donostia

**S.6**
**MAGDALENA MALM ETA MARIA MUR DEAN SOLASEAN**
Solasaldia, 2014ko abenduaren 11
DSS2016Gunea, Donostia

## 2015

## Actividades de apertura:

**PRESENTACIÓN**
**MAGACÍN RADIOFÓNICO LAPUBLIKA**
Jueves 15 de octubre de 2015
consonni, Bilbao

**GERARD ORTÍN — TRABESKA**
Ruta a través del bosque, performance e intervenciones
Domingo 18 de octubre de 2015
Besaide

## Seminario: Cómo se construye esfera pública desde las prácticas artísticas y pedagogías críticas

**Sesión #1**
**STINE HEBERT + BANI BRUSADIN**
Jueves 29 de octubre de 2015
Bizkaia Aretoa, Bilbao

**Sesión #2**
**AIDA SÁNCHEZ DE SERDIO + IRENE AMENGUAL**
Martes 17 de noviembre de 2015
Tabakalera, Donostia-San Sebastián

## 2015

## Hasierako ekintzak:

**AURKEZPENA**
**LAPUBLIKA IRRATI MAGAZINA**
2015eko urriak 15, osteguna
consonni, Bilbao

**GERARD ORTÍN — TRABESKA**
Ibilbidea basoan barrena, performancea eta esku-hartze artistikoa
2015eko urriak 18, igandea
Besaide

## Mintegia: Nola eraikitzen da esparru publikoa arte-praktika eta pedagogia kritikoen bidez?

**#1 Saioa**
**STINE HEBERT + BANI BRUSADIN**
2015eko urriak 29, osteguna
Bizkaia Aretoa, Bilbao

**#2 Saioa**
**AIDA SÁNCHEZ DE SERDIO + IRENE AMENGUAL**
2015eko azaroak 17, asteartea
Tabakalera, Donostia-San Sebastián



## Talleres y Charlas:

**LATITUDES — MÁS ALLÁ DE LA ROTONDA, O ¿QUÉ ES PÚBLICO EN EL ARTE PÚBLICO?**
Taller:
Del 9 al 11 de noviembre de 2015
Charla:
Miércoles 11 de noviembre de 2015
Tabakalera, Donostia-San Sebastián

**PETRA BAUER — MUJERES E IMÁGENES EN MOVIMIENTO(S). DE CÓMO EL CINE Y LA FOTOGRAFÍA PUEDEN SER UTILIZADOS PARA NEGOCIAR POLÍTICAS**
Taller:
Del 24 al 26 de noviembre de 2015
Charla:
Jueves 26 de noviembre de 2015
Tabakalera, Donostia-San Sebastián

**AN MERTENS — LOS ALGORITMOS COMO CONTADORAS DE HISTORIAS**
Taller:
Del 30 de noviembre al 2 de diciembre de 2015
Charla:
Miércoles 2 de diciembre de 2015
consonni, Bilbao

## Tailerrak eta hitzaldiak:

**LATITUDES — BIRIBILGUNETIK HARAGO; EDO, ZER DA PUBLIKOA ARTE PUBLIKOAN?**
Tailerra:
Azaroaren 9tik – 11ra
Hitzaldia:
2015eko azaroak 11, asteazkena
Tabakalera, Donostia

**PETRA BAUER — EMAKUMEAK ETA IRUDIAK MUGIMENDU(ET)AN. NOLA ERABIL DAITEZKEEN FILMAK ETA ARGAZKIAK POLITIKA-KUDEAKETAN**
Tailerra:
2015eko, azaroaren 24tik – 26ra
Hitzaldia:
2015eko azaroak 26, osteguna
Tabakalera, Donostia

**AN MERTENS — ALGORITMOAK ISTORIO-KONTALARI**
Tailerra:
2015eko azaroaren 30tik - abenduaren 2ra
Hitzaldia:
2015eko abenduak 2, asteazkena
consonni, Bilbao

## 2016

---

## RADIO MAGAZINE LAPUBLIKA

**Miércoles 22 de junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

---

Con la presencia de Cuauhtémoc Medina, Lourdes Fernández, Jesús Carrillo, AmiArte, Histeria Kolektiboa, La Taller y Zaramari. Presentación de la intervención sonora de Maialen Lujanbio y Xabier Erkizia *El rechinar (a)pagado* con Danele Sarriugarte.

Concierto de Le Parody.

Conducción y presentación por Alicia San Juan. Edición de radio por Alberto de la Hoz.

---

## RADIO SYMPOSIUM LAPUBLIKA

**Viernes 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Dabadaba y otros espacios de Donostia-San Sebastián**

---

**Programa de día:**
Tabakalera, Donostia-San Sebastián
de 10h a 20:30h

CONVERSACIONES:

Rosalyn Deutsche y Jaime Iregui.
Mutamassik , Michelle Teran y
Elvira Dyangani Ose.
What, How & for Whom/WHW y
Daniel G. Andújar.
Niño de Elche y Belén Gopegui.

## 2016

---

## LAPUBLIKA IRRATI MAGAZINA

**2016ko ekainaren 22an, asteazkena**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

---

Cuauhtémoc Medina, Lourdes Fernandez eta Jesus Carrillo izango ditugu gure artean. Horrez gain, praktika artistikoen eta eremu publikoaren arteko gurutzatzea ikertzen duten bertako kolektiboek ere parte hartuko dute (AmiArte, Histeria Kolektiboa, Zaramari eta La Taller kolektiboek). Bestalde, Maialen Lujanbiok eta Xabier Erkiziak soinuzko esku-hartze bat egingo dute, Danele Sarriugarterekin hizketan.

Le Parodyk musika joko du zuzenean.

Alicia San Juanek aurkeztuko eta gidatuko du, eta Alberto de la Hoz arduratuko da edizioaz.

---

## RADIO SYMPOSIUM LAPUBLIKA

**2016ko urriaren 28an, ostirala**
**Tabakalera, Dabadaba eta Donostiako beste espazio batzuetan**

---

**Eguneko programa:**
Tabakalera, Donostia
10.00etatik-20:30etara

ELKARRIZKETAK:

Rosalyn Deutsche eta Jaime Iregui.
Mutamassik , Michelle Teran eta
Elvira Dyangani Ose.
What, How & for Whom/WHW eta
Daniel G. Andújar.
Niño de Elche eta Belén Gopegui.



PERFORMANCES, INTERVENCIONES ARTÍSTICAS Y CONCIERTOS:

Sra. Polaroiska, Rosa Casado y Mike Brookes, Daniel G. Andújar, Okela, Sangre Fucsia, PCAP /Akbild Vienna, Oier Iruretagoiena, Societat Doctor Alonso y Moaré Danza, Mugatxoan, grupo de investigación Orea y Aziza Brahim. Y más contenidos pendientes de confirmar.

**Programa de noche:**
Dabadaba, Donostia-San Sebastián
de 21h en adelante

Los Torreznos presentan su última pieza *La realidad* (2016).

Conciertos de Mutamassik y Tremenda Jauría.

Conducción y presentación por Alicia San Juan.

Edición de radio por Alberto de la Hoz.

ESKU-HARTZE ARTISTIKOAK PERFORMANCEAK ETA KONTZERTUAK:

Sra. Polaroiska, Rosa Casado y Mike Brookes, Daniel G. Andújar, Okela, Sangre Fucsia, PCAP /Akbild Vienna, Oier Iruretagoiena, Societat Doctor Alonso y Moaré Danza*, Mugatxoan, Orea taldea eta Aziza Brahim. Y más contenidos pendientes de confirmar.

**Gaueko programa:**
Dabadaba, Donostia
21.00etatik aurrera

Los Torreznos *La realidad* (2016) haien azkenengo lana aurkezten dute.

Mutamassik eta Tremenda Jauríaren kontzertuak

Alicia San Juan zuzenduta.

Alberto de la Hoz irrati edizioan.

# LAPUBLIKA

Laboratorio de investigación artística sobre esfera pública

Esparru publikoari buruzko arte-ikerketarako laborategia

powered by consonni

## 2012

SIMPOSIO
Going public.
Telling it as it is?

ENPAP. European Network of Public Art Producers

## 2014

PRÓLOGO

Laboratorio Esfera Pública

## 2015

**1° fase – Grupos de trabajo**

**OREA**
Coordinado por consonni en colaboración con la Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU)

**PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA**
Coordinado por el área de Mediación (Tabakalera)

**Actividades de apertura**

**RADIO MAGAZINE**
15/10 Bilbao. consonni

**TRABESKA**
Gerard Ortín
18/10. Besaide

**TALLERES Y CHARLAS**
9-11/10 y 24-26/10
Donostia. Tabakalera
30/11 - 2/12
Bilbao. consonni

**SEMINARIO**
SESIÓN 1.
29/10 Bilbao. Bizkaia Aretoa
SESIÓN 2.
17/10 Donostia. Tabakalera

## 2016

**2° fase – Grupos de trabajo**

**OREA**
Coordinado por consonni en colaboración con la Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU)

**PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA**
Coordinado por el área de Mediación (Tabakalera)

**RADIO MAGAZINE**
22/06
Bilbao. Azkuna Zentroa

**ACTIVIDADES**
Ordizia y otras ubicaciones

**RADIO SYMPOSIUM**
28 de Octubre
Donostia / San sebastián
Tabakalera, Dabadaba y otros espacios de la ciudad

## RADIO WEB

MIXCLOUD.COM/LAPUBLIKA
LAPUBLIKA.ORG

# ESFERA PÚBLICA Y PRÁCTICAS ARTÍSTICAS: APUNTES PARA UN MARCO DE TRABAJO

LaPublika, proyecto plurianual dirigido y coordinado por la productora de arte consonni, se define como un laboratorio de investigación artística sobre el concepto de esfera pública. Entendemos la esfera pública en un sentido expandido, como aquella que opera sobre los espacios habitualmente considerados como públicos (la calle, la plaza, la ciudad) pero también sobre el espacio mediático (presidido por internet y los medios de comunicación) y, en términos generales, sobre el conjunto de mecanismos con los que participamos en la gestión de lo común (el lenguaje, los ritos, las normas, la estética de los procesos colectivos). Siguiendo a la teórica del arte Rosalyn Deutsche en su texto *Agorafobia*[1], concebimos la esfera pública como una potencialidad, una oportunidad para la diversidad y el disenso.

LaPublika es un proyecto desarrollado de 2014 a 2016 en el que convergen disciplinas diversas como el urbanismo, la filosofía política, la crítica y la historia del arte, los estudios de género o la pedagogía. Construida a través de distintos dispositivos (talleres, charlas, conversaciones, sesiones de trabajo, piezas escénicas, actuaciones musicales, acciones en el espacio público, entrevistas, encuestas de calle), ha combinado la presencia física de los cuerpos con la difusión de audios en streaming y

1 Deutsche, Rosalyn, *Agorafobia*, Macba, Quaderns Portàtils, n° 12, 2008.

podcasts y la producción de contenidos para el entorno digital. Todo ello atravesado por el espíritu de la radio, un medio que produce experiencias de intimidad y distancia al mismo tiempo, en el que voces extracorpóreas encarnan cuerpos imaginados y reales, construyendo lo cotidiano, la vida en común.

Desde un punto de vista teórico, la "esfera pública" deriva de la idea de öffentlichkeit (condición pública, publicidad) de Jürgen Habermas[2], para quien representa el ideal democrático perdido. El pensamiento político liberal distingue estrictamente entre el espacio privado, donde no hay intervención del Estado ni límites a la libertad individual, y el público, donde los individuos abandonan sus intereses particulares para implicarse en los asuntos comunes. Para Habermas, esta separación, pilar de la democracia liberal, se ve amenazada en el siglo XX por la entrada de grupos de población externos a la burguesía y el desarrollo de la comunicación de masas y el Estado del bienestar. El arquetipo habermasiano es puesto en crisis por Oskar Negt y Alexander Kluge[3], quienes consideran que la esfera pública no se corresponde con ese ideal unitario sino con algo más fragmentado y diverso, formado por las experiencias singulares de la vida cotidiana. Pero la esfera pública, en su concepción liberal, es sobre todo repensada por la filosofía política que se enfrenta al reto de analizar la experiencia del totalitarismo. En La condición humana, Hannah Arendt insiste en el cambio operado por la modernidad, por el que las esferas pública y privada se funden en una sola: la esfera de lo social[4]. Claude Lefort, Chantal Mouffe y Ernesto Laclau, por su parte, se orientan hacia los conceptos de antagonismo y democracia radical.

Para Lefort, la democracia (aquello que no es totalitarismo) se caracteriza por la desaparición de todas las certezas sobre lo social. Si, en el Antiguo Régimen, el poder se hacía cuerpo en la persona del Rey y la soberanía emanaba de una fuente absoluta, ya fuera Dios o el ideal cartesiano de la

**2** Habermas, Jürgen, *Historia y crítica de la opinión pública: la transformación estructural de la vida pública*, Gustavo Gili, Barcelona, 1981. **3** Kluge, Alexander; Negt, Oskar, *Public Sphere and Experience Toward an Analysis of the Bourgeois and Proletarian Public Sphere*, University of Minnesota Press, Minneapolis,1993. **4** Arendt, Hannah, *La condición humana*, Paidós, Buenos Aires, 2005.



razón, con la revolución burguesa esta unidad desaparece, pues el poder emana del pueblo y este carece de unidad. El pueblo no es una comunidad política estable, no posee una identidad fija; es un devenir, un proceso. La relación entre el pueblo soberano y el Estado que lo representa (el contrato social) no se da de una vez y para siempre, sino que debe ser renovada regularmente. Para Mouffe y Laclau, el antagonismo funciona en el mismo sentido de fortalecimiento democrático, pues vehicula la tensión entre una entidad social y su afuera, situándose así en las antípodas del ideal habermasiano (liberal y burgués) y sus objetivos de crear consenso y consolidar la comunidad. Para estos autores y autoras, como para Deutsche, el conflicto, la división y el disenso no dañan la esfera pública sino que son las condiciones de su existencia.

La pregunta que planteamos desde LaPublika es cómo las prácticas artísticas se relacionan con una esfera pública entendida de esta manera. En 1987, en una de las célebres discusiones en la Dia Art Foundation, Craig Owens afirmaba: "La cuestión de quién ha de definir, manipular y beneficiarse de lo público es la cuestión central en cualquier discusión sobre la función pública del arte"[5]. En aquellos años, Owens, Deutsche y otros re-definen del concepto de lo público en relación con las prácticas artísticas con un doble objetivo. Por un lado, oponerse a la creciente privatización del mundo del arte, señalada por el incremento de la presencia empresarial en los sistemas de financiación y por la eclosión de un mercado del arte que empieza a tomar las formas de la economía especulativa. Por otro, advertir de la emergencia de una nueva "industria del arte público", entendida como "brazo estético" al servicio de las políticas urbanas (son los años del inicio de los procesos de gentrificación y construcción de marca de ciudad y del tránsito del concepto de cultura como derecho al de cultura como recurso)[6]. Influenciada por este bagaje y con preocupaciones similares, LaPublika se ubica en una continuidad que, en el estado español, tiene un antecedente de referencia en el proyecto Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado

**5** Owens, Craig, "The Yen for Art", en Hal Foster (ed.), *Discussions in Contemporary Culture*, no 1, Bay Press y Dia Art Foundation, Seattle, 1987.
**6** Yúdice, George, *El recurso de la cultura: usos de la cultura en la era global*, Gedisa, Barcelona, 2009.

español cuyo objetivo fue “rastrear las prácticas, los modelos y los contramodelos culturales” que no respondían “al tipo de estructuras, políticas y prácticas dominantes que se impusieron en España desde la Transición”[7].

El territorio de cruce entre arte y esfera pública no corresponde pues, exactamente, con la categoría del “arte público”, ya que no se refiere a obras que ocupan espacios físicos abiertos y se dirigen a un público preexistente. Para Deutsche, la esfera pública no es solo un lugar para el discurso; es también un lugar construido discursivamente. En consecuencia, las prácticas artísticas que crean esfera pública son aquellas que convocan a una discusión sobre los asuntos comunes y en ese proceso, constituyen un público. Esta idea se aleja de la teorizada por Nicolas Bourriaud bajo el concepto de estética relacional[8], en la que la participación del público en la obra y la red de relaciones sociales o interpersonales que se tejen en torno a ella son analizadas como objetos estéticos en sí mismos. Claire Bishop advierte de que la visión de Bourriaud se centra en exceso en la producción de relaciones por sí mismas y, al igual que el ideal habermasiano de esfera pública, supone la preexistencia de una comunidad homogénea de espectadores sin conflictos ni disenso[9].

Como recuerda Deutsche, las y los artistas comprometidos con lo que vino a llamarse la crítica institucional mostraron que el significado de una obra “no reside permanentemente en la obra misma, sino que se forma solo en relación al exterior —con el modo en que la obra se presenta— y por ello cambia con las circunstancias (...). El significado de una obra de arte se produce”. Este proceso de producción de significado en el cuerpo social remite a lo que Michel de Certeau denominó “modos de hacer”, donde se encuentran “tanto los saberes tácticos de las gentes como las operaciones que ejecutan las obras de los artistas”, un concepto que “articula esa noción de ‘vida cotidiana’ que de tan recurrida había dejado de ser operativa”[10].

Los modos de hacer, vinculados con los medios tácticos, enlazan con el hilo conductor que une los territorios del arte con el activismo político y que, como señala Paloma Blanco en relación con las “prácticas colaborativas” a comienzos de los noventa, se caracteriza por la importancia de los canales de producción y distribución y por la “fusión” entre artistas y movimientos sociales[11]. A menudo, como recuerdan Jorge Luis Marzo y Patricia Mayayo, este tipo de prácticas se articulan en torno al “sabotaje a las instituciones, la voluntad de cortocircuitar las lógicas del espectáculo, la disolución del concepto tradicional de autoría, el despertar de la creatividad social o la colaboración con distintas comunidades locales”. Pero no necesariamente. De hecho, el concepto de esfera pública desarrollado en *Agorafobia* amplía considerablemente el territorio de lo político en las artes para incluir todas aquellas prácticas que, de un modo u otro, activan el potencial constituyente de lo público. El antagonismo, el disenso, la diversidad o el conflicto generan entornos de debate y experimentación sobre el concepto mismo de lo público, sobre los límites entre espacio público y privado y sobre los mecanismos de institucionalización (hacer-se institución).

Para Deutsche, la división entre el adentro y el afuera de la institución plantea problemas similares al de la dicotomía entre lo privado y lo público. “Las instituciones artísticas”, sostiene, “no son interiores resguardados, aislados del espacio social” de la misma manera que los espacios extra-institucionales no son completamente independientes ni están desprovistos de sus propios mecanismos de institucionalización. Unas y otros están unidos por relaciones de inter-dependencia que los ponen en crisis y los constituyen permanentemente. Esto obliga a tener en cuenta tanto el potencial instituyente del arte como la co-existencia

**7** VVAA, *Desacuerdos: Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado Español*, Arteleku-Diputación Foral de Gipuzkoa, Museu d’Art Contemporani de Barcelona, Centro José Guerrero-Diputación de Granada, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía y UNIA arteypensamiento, 2004-2014. **8** Bourriaud, Nicolas, *Estética relacional*, Andrea Hidalgo Editora, Buenos Aires, 2008. **9** Bishop, Claire “Arte Nokia / Antagonismo y estética relacional”, Esferapublica.org, 2009.

**10** Blanco, Paloma; Carrillo, Jesús; Claramonte, Jordi; Expósito, Marcelo, *Modos de hacer. Arte crítico, esfera pública y acción directa*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 2001. Sobre la obra de Michel de Certeau, ver: de Certeau, Michel, *La invención de lo cotidiano. I Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, México, 1996. **11** Blanco, Paloma, “Prácticas colaborativas en la España de los noventa”, en VV.AA, *Desacuerdos 2: Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español*, MACBA, Arteleku, UNIA, 2005, pp. 192-193.

de múltiples agentes y grados de la institucionalidad. En opinión de Aída Sánchez de Serdio, la capacidad de acción política en un marco institucional depende de la capacidad para moverse en regímenes de racionalidad diversos, unas veces invisibles o "bajo el radar" y otras, plenamente instituidos. Es la condición "ambidiestra" del o la artista, a la que se refiere también Lucy R. Lippard[12]. Las prácticas que trabajan con o sobre la esfera pública existen por tanto en ese espacio trans-institucional, espacio de frontera que se manifiesta en una multitud de escenarios de antagonismo, complicidad y relaciones de poder. También LaPublika, como marco de trabajo, se ha visto atravesada por ellos. Nuestro diálogo constante con *Agorafobia* no ha sido, de hecho, solamente teórico sino que ha inspirado también los debates y decisiones cotidianas que, inevitablemente, acompañan a un proyecto como este, en el que participan multitud de instituciones, organizaciones, colectivos y profesionales.

Deutsche insiste además en que las políticas de visualidad, inseparables del arte, son también un asunto público. "¿Cómo crean las imágenes del espacio público las identidades públicas que en apariencia se limitan a mostrar?", se pregunta. "¿Cómo crean un nosotros, un público, y quiénes imaginamos que somos cuando ocupamos un lugar prescrito?". Se apoya en la exposición *Public Vision* (Nueva York, 1982) que cuestionaba la visión como el modo superior de acceso a las verdades universales, supuestamente separada de los objetos que observa. En el discurso de la modernidad, el sujeto que mira, libre y autosuficiente, contempla un objeto artístico pasivo, desvinculado de sus circunstancias. Para las críticas feministas, este régimen de visualidad es ante todo un régimen de producción de subjetividades bajo el que subyace lo que Homi Bhabha llama "el masculinismo como posición de autoridad social"[13], un lugar intelectual ocupado históricamente por hombres blancos pero con la que otros sujetos también se pueden identificar. Pero no se trata solo de abrir

**12** Citada por Blanco, Paloma, *op. cit.*
**13** Bhabha, Homi, "A Good Judge of Character: Men, Metaphors and the Common Culture" en Morrison, Toni (Ed.), *Race- ing Justice, En-gendering Power: Essays on Anita Hill, Clarence Thomas and the Construction of Social Reality*, Pantheon Books, New York, 1992.



este régimen de visualidad a los sujetos excluidos de él sino de cuestionar las relaciones de dominación que perpetúa.

Frente al régimen de visualidad, Thomas Keenan nos invita a pensar la esfera pública con el modelo del lenguaje[14]. Ante el lenguaje, dice, no podemos mantener una distancia de seguridad pues el lenguaje, al ser siempre público e inestable, nos hace vulnerables. Y, lo que es más importante: llegamos a ser sujetos precisamente cuando entramos en él. En sus escritos sobre la radio[15], Walter Benjamin define la voz como un invitado que se recibe en casa y asegura que el medio radiofónico, que para él es inseparable de su tarea educativa, es una técnica más arriesgada que el teatro pues moviliza "el saber en la dirección de lo público y lo público en la dirección del saber". En LaPublika, tomamos la radio a la vez como medio – para la retransmisión de actividades en streaming y la publicación de podcasts – y como metáfora de esfera pública. Medio de comunicación resistente, de baja intensidad espectacular, en la radio late un impulso más parecido al del lenguaje que al de la visión; un impulso, pensamos, más propio para afrontar la tarea de construir potencialidades en común.

consonni, mayo 2016.
Bibliografía en www.lapublika.org/biblioteca

**14** Keenan, Thomas, "Windows: of Vulnerability" en Robbins, Bruce (Ed.), *The Phantom Public Sphere*, University of Minnesota Press, Minneapolis, 1993. **15** Benjamin, Walter, *Radio Benjamin*, Akal, Madrid, 2015.

# ESPARRU PUBLIKOA ETA ARTE PRAKTIKAK: LAN-MARKO BAT ERATZEKO OHARRAK

Hainbat urtetarako proiektua da LaPublika. consonni arte-ekoiztetxeak zuzentzen eta koordinatzen du, eta esparru publikoaren kontzeptua ikertzeko arte-laborategi bat da. Zentzu hedatu batean ulertzen dugu esparru publikoa: normalean publikotzat jotzen diren tokietan eragiten du (kalea, plaza, hiria), bai eta espazio mediatikoan ere (komunikabideak eta internet buru), eta, oro har, komuna den hori kudeatzeko baliatzen ditugun mekanismoetan (mintzaira, errituak, arauak, talde-prozesuen estetika). Rosalyn Deutsche teorialariaren *Agorafobia*[1] testua dugu abiapuntuan, eta, beraz, esparru publikoa potentzialtasuntzat jotzen dugu, aniztasuna eta desadostasuna mamitzeko aukeratzat.

2014 eta 2016 urteen bitartean garatzen da LaPublika proiektua, eta bertan biltzen dira hainbat alor, hala nola hirigintza, filosofia politikoa, artearen historia eta kritika, genero-ikasketak eta pedagogia. Hainbat dispositibo baliatzen dira (tailerrak, hitzaldiak, solasaldiak, lan-saioak, pieza eszenikoak, musika emanaldiak, esparru publikoko ekintzak, elkarrizketak, kale-inkestak), eta, era berean, gorputzen presentzia fisikoa eta audioak uztartu dira; hain zuzen, streaming eta podcast bidez zabaldu dira horiek, eta inguru digitalerako edukiak ere ekoitzi dira. Irratiaren izpirituak zeharkatu du guztia, izan ere, intimotasuna eta distantzia sortzen ditu komunikabide horrek, aldi berean; gorputzik gabeko ahotsek haragiztatzen

1 Deutsche, Rosalyn, *Agorafobia*, Macba, Quaderns Portàtils, 12. zenbakia, 2008.

dituzte gorputz irudikatuak eta errealak, egunerokoa eraikitzen dute, bizitza komuna sortu.

Teoriaren ikuspegitik, Jürgen Habermas[2] filosofoaren öffentlichkeit (publikotasuna) ideian dauka sorburua “esparru publikoa”ren nozioak; Habermasen iritziz, ideal demokratikoaren isla da esparru hori, eta galdu egin dugu. Pentsamendu politiko liberalean, zorrotz bereizten dira esparru pribatua eta publikoa; pribatuan, estatuak ez du inolaz ere esku hartzen, eta norberaren askatasuna mugagabea da, eta, publikoan, berriz, norbanakoek bazter uzten dituzte beren interesak, eta auzi komunetara lotzen dira buru-belarri. Habermasen ustez, demokrazia liberalaren oinarri-oinarrian dagoen bereizketa hori mehatxupean jarri zen XX. mendean, burgesiaren kanpoko jende-taldeak sartu baitziren, masa-komunikazioa garatu, eta ongizate-estatua eratu.

Habermasen arketipoa kolokan ipini zuten Oskar Negtek eta Alexander Klugek[3]; haien ustez, esparru publikoa ez da ideal bakar hori, baizik eta gauza zatikatu eta anitzago bat, eta eguneroko bizitzako esperientzia bereziek osatzen dute. Hala ere, filosofia politikoaren arlokoek landu dute, batik bat, esparru publikoaren nozio liberala, izan ere, totalitarismoaren esperientzia aztertzeko erronka baitute. Hannah Arendtek, La condición humana liburuan [Giza kondizioa], modernotasunak ekarritako aldaketa azpimarratzen du; hala, esparru publikoak eta pribatuak bat egiten dute, eta sozialaren esparrua sortu[4]. Claude Lefortek, Chantal Mouffek eta Ernesto Laclauk, aldiz, bestelako kontzeptuak landu dituzte, hala nola aurkakotasuna eta errotikako demokrazia.

Leforten iritziz, sozialari buruzko ziurtasun oro desagertzen den tokia da demokrazia, alegia, totalitarismoa ez den hori. Erregimen Zaharrean, Erregearen gorputzean haragiztatzen zen boterea, eta iturri absolutu batetik jasotzen zuen subiranotasuna, izan Jainkoa ala arrazoiaren ideal cartesiarra. Burgesiaren iraultza gertatu ostean, berriz, batasun

**2** Habermas, Jürgen, *Historia y crítica de la opinión pública: la transformación estructural de la vida pública*, Gustavo Gili, Bartzelona, 1981. **3** Kluge, Alexander; Negt, Oskar, *Public Sphere and Experience Toward an Analysis of the Bourgeois and Proletarian Public Sphere*, University of Minnesota Press, Minneapolis,1993. **4** Arendt, Hannah, *La condición humana*, Paidós, Buenos Aires, 2005



hori desagertu egin zen, herriarena baitzen boterea, eta herria ez da gauza bat eta bakarra. Herria ez da komunitate politiko egonkor bat, eta herria errepresentatzen zuen estatu hori (kontratu sozialaren bidez) ez zen behin eta betirako mamitzen; aitzitik, maiz berritu behar da. Mouffe eta Laclauren iritziz, indartze demokratikoak bezalaxe ekiten du aurkakotasunak ere, entitate sozial baten eta horren kanpoaren arteko tentsioa bideratzen baitu, eta Habermasen idealaren (liberala eta burgesa) guztiz kontrakoa baita, adostasuna sortzeko eta komunitatea sendotzeko helburuen guztiz kontrakoa. Autore horien arabera, bai eta Deutscheren arabera, gatazkak, zatiketak eta desadostasunek ez diote kalterik egiten esparru publikoari, aitzitik, ezinbesteko baldintza dira, esparru publikoa existitzeko.

LaPublikak honako galdera hau aurkezten du, ea arte-praktikek zer-nolako harremana duten esparru publikoarekin, betiere, esparru hori ulertuta aipatu dugun moduan. 1987an, Dia Art Foundation fundazioan izandako eztabaida entzutetsu batean, Craig Owensek zera esan zuen: “artearen funtzio publikoari buruzko eztabaidetan, auzi nagusia da ea zeinek zehaztuko eta manipulatuko duen esparru publikoa, eta ea zeinek aterako dion etekina”[5]. Urte haietan, Owensek, Deutschek eta beste hainbat autorek publikoaren kontzeptua birdefinitu zuten, arte-praktikekin lotuta. Bi helburu zeuzkaten: batetik, arte-munduaren pribatizazio gero eta handiagoari aurka egitea; enpresek gero eta proiektu gehiago laguntzen baitzituzten, diruz, eta, bestalde, arte-merkatuak, eztanda egin baitzuen, eta espekulazioa-ekonomikoaren gero eta antz handiagoa hartu.

Bestetik, ohartarazi nahi zuten “arte publikoaren industria” bat sortzen ari zela, hirigintza-politika berrien zerbitzura, “beso estetiko” moduan, nolabait (gentrifikazio-prozesuak hasi ziren orduantxe, hiri-markaren eraikuntza, eta kulturaren kontzeptua aldatzen ari zen, jada ez zen eskubide bat, baizik eta baliabide bat)[6]. Horren guztiaren eraginpean, eta antzeko kezkak ere bai baditugunez, jarraikortasun batean kokatzen

**5** Owens, Craig, “The Yen for Art”, Hal Foster (ed.), *Discussions in Contemporary Culture*, 1. zbk., Bay Press eta Dia Art Foundation, Seattle, 1987. **6** Yúdice, George, *El recurso de la cultura: usos de la cultura en la era global*, Gedisa, Bartzelona, 2009.

de LaPublika, eta estatu espainiarrean badu aurrekari bat: Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español proiektua. Horren helburua zen “trantsisioaz geroztik Espainian nagusi izandako egitura-, politika- eta praktika-motekin” bat egiten ez zuten “praktikei, ereduei eta kultur kontra-ereduei arrastoa segitzea”[7].

Beraz, artearen eta esparru publikoaren arteko guneak ez du, zuzen, “arte publiko”aren kategoriarekin bat egiten; gune hori ez dute osatzen espazio fisiko irekiko artelanek, eta ez zaizkio zuzentzen aurrez existitzen den publiko bati. Deutscheren arabera, diskurtsoa garatzeko toki bat da esparru publikoa, eta, ez hori bakarrik, diskurtsoaren bidez eraikitzen da toki hori. Ondorioz, arte-praktikek auzi komunei buruzko eztabaida pizten dute, eta, prozesu horren bidez, publiko bat osatzen; arte-praktika horiexek sortzen dute, hain zuzen, esparru publikoa. Nicolas Bourriaud-ek bestelako kontzeptu bat teorizatu zuen: erlaziozko estetika[8]. Horren arabera, objektu estetikotzat hartzen da ikusleek obran parte hartzeko duten modua, bai eta obraren inguruan ehundutako harreman sozialen eta pertsonen arteko harreman-sareak ere. Claire Bishopek ohartarazi zuenez, Bourriauden ikuspegiak gehiegi erreparatzen dio harremanen ekoizpenari berari, eta, esparru publikoaren ikuspegi habermastarrak nola, ondorioztatzen du aurrez existitzen dela ikusle-komunitate homogeneo bat, eta hortxe ez dagoela ez gatazkarik ez eta desadostasunik ere[9].

Deutschek gogora dakartza kritika instituzionaleko artisten ondorioak, izan ere, korronte horrekin lotutako artistek erakutsi zuten obra baten esanahia “ez datzala, denbora guztian, obran bertan; aitzitik, kanpokoarekiko harremanean sortzen da esanahi hori –obra aurkezten den moduarekiko harremanean– eta, horregatik, egoera aldatu ahala, obra ere aldatzen da (...). Obraren esanahia sortu egiten da”. Gorputz sozialaren barruan esanahia ekoizteko prozesu horrek, era berean, gogora dakar Michel de Certeauren kontzeptu bat, alegia, “egiteko moldeak”. Hortxe elkartzen dira “hala jendeen jakintza taktikoak, nola artisten obrek

7 VVAA, *Desacuerdos: Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado Español*, Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundia, Museu d’Art Contemporani de Brcelona, Centro José Guerrero-Granadako Diputazioa, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía eta UNIA arteypensamiento, 2004-2014. 8 Bourriaud, Nicolas, *Estética relacional*, Andrea Hidalgo Editora, Buenos Aires, 2008. 9 Bishop, Claire “Arte Nokia / Antagonismo y estética relacional”, Esferapublica.org, 2009.



burutzen dituzten ekintzak”; kontzeptu horrek “atzera artikulatzen du “eguneroko bizitza”ren nozioa; hain zuzen, nozio hori hain sarri erabilia zen, ezen ez baitzuen balio”[10].

Egiteko moldeek eta baliabide taktikoek, elkartuta, bat egiten dute beste ildo batekin, alegia, artearen eta aktibismo politikoaren esparruak lotzen dituen gunearekin, eta, oso garrantzitsuak dira ekoizpen- eta banaketa-bideak, bai eta artisten eta gizarte-mugimenduen arteko “fusioa” ere. Paloma Blancoren arabera, halaxe gertatzen zen 90eko hamarkadan ere, “praktika kolaboratiboetan”[11]. Patricia Mayayok eta Jorge Luis Marzok gogora dakarte nola, sarri, halako praktikek helburu duten “instituzioei sabotajea egitea, ikuskizunaren logiketan zirkuitulaburrak eratzea, autore-izaeraren kontzeptu tradizionala suntsitzea, sormen soziala iratzartzea eta tokiko hainbat talderekin lan egitea”. Baina ez beti. Are, *Agorafobia* testuan, bestelako modu batean jorratzen da esparru publikoaren kontzeptua, eta, horren arabera, artearen politikotasuna zabaltzen da, eta horren barruan biltzen dira hainbat praktika, hain zuzen ere, modu batean edo bestean, publikotasuna sortzeko potentziala aktibatzen duen praktika oro. Aurkakotasun, desadostasun, aniztasun eta gatazkari esker sortzen dira eztabaida-guneak, publikotasunaren kontzeptua bera jorratzeko, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko mugak lantzeko eta instituzio-mekanismoez aritzeko (instituzio egitea).

Deutsheren iritziz, instituzio barruaren eta kanpoaren arteko zatiketak arazoak dakartza, pribatuaren eta publikoaren dikotomiak bezalaxe. “Arte-instituzioak ez dira gordetako barruak, ez daude espazio sozialetik at”, eta, era berean, instituzioaz kanpoko espazioak ez dira erabat independienteak, eta instituzionalizazio-mekanismo propioak ere badituzte. Interdependentzia-harremanen bidez lotzen dira denak: harreman horiek osatzen dituzte etengabe, eta krisian jartzen. Beraz,

10 Blanco, Paloma; Carrillo, Jesús; Claramonte, Jordi; Expósito, Marcelo, Modos de hacer. *Arte crítico, esfera pública y acción directa*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 2001. Michel de Certeauren obraren harira, ikus: de Certeau, Michel, *La invención de lo cotidiano. I Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, Mexiko, 1996. 11 Blanco, Paloma, “Prácticas colaborativas en la España de los noventa”, VV.AA, *Desacuerdos 2: Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español*, MACBA, Arteleku, UNIA, 2005, 192-193 orrialdeak.

kontuan hartu behar da artearen ezartze-gaitasuna, bai eta askotariko eragileek sortzen dutela instituzionaltasuna, askotariko mailatan.

Aída Sánchez de Serdioren arabera, marko instituzional baten barruan politikoki ekite aldera, kontuan hartu behar da ea arrazionaltasun anitzeko erregimenetan mugitzeko gai zaren, batzuetan, erregimen horiek ikusezinak dira edo "radarraren azpian" daude; beste batzuetan, aldiz, erabat ezarrita daude. Lucy R. Lippardek ere aipatzen du hori, artisten izaera "eskuin-ezkertia"[12]. Esparru publikoarekin eta esparru publikoari buruz lan egiten duten arte-praktikek, hortaz, espazio trans-instituzional batean ekiten dute, mugalde batean, eta hortxe agertzen dira hainbat egoera: aurkakotasunak, konplizitatea eta botere-harremanak. LaPublikaren lan-markoa ere guztiz zeharkatu dute gauza horiek guztiek. *Agorafobia* testua landu dugu, etengabe, eta ez soilik teoriaren aldetik; aitzitik, eguneroko eztabaida eta erabakietan ere eragin du, izan ere, halako proiektu batean derrigorrean suertatzen dira horiek, instituzio, erakunde, talde eta profesional pila batek parte hartzen baitute bertan.

Horrez gainera, Deutschek azpimarratzen du bisualtasun-politikak ere auzi publikoa direla, artearen arlotik ezin banatuzkoak. "Espazio publikoko irudiek nola sortzen dituzte identitate publikoak, nahiz eta, ustez, horiek islatu baino ez?", galdetzen du, eta, gero: "irudi horiek nola sortzen dute gu bat, publiko bat, eta zer-nola irudikatzen ditugu gure buruak, aurrez ezarritako toki bat hartzen dugunean?". *Public Vision* (New York, 1982) erakusketa hartzen du oinarrian. Erakusketa horrek zalantzan jartzen zuen ikusmena zela egia unibertsaletara iristeko goi-mailako bidea eta ikusmena ez zegoela lotuta ikusten zituen objektuekin. Modernotasunaren diskurtsoan, beha dagoen subjektua askea da, buruaskia, eta arte-objektu bati begiratzen dio, objektu pasibo bati, egoerarekin loturarik ez duen bati. Kritika feministen arabera, bisualtasun-erregimen horrrek, oroz gain, subjektutasunak ekoizten ditu, eta horren azpian dago "maskulinismoa, gizarte-autoritateko posizio moduan"[13], Homi Bhabharen hitzetan.

**12** Aipua: Blanco, Paloma, *op. cit.* **13** Bhabha, Homi, "A Good Judge of Character: Men, Metaphors and the Common Culture" Morrison, Toni (Ed.), *Race- ing Justice, En-gendering Power: Essays on Anita Hill*, Clarence Thomas and the Construction of Social Reality, Pantheon Books, New York, 1992.



Gizon zuriek hartu dute intelektualaren toki hori, historian zehar, baina bestelako subjektu batzuk ere lot daitezke horrekin. Hala ere, gakoa ez da, soilik, bisualtasun-erregimen hori irekitzea, kanpoan utzitako bestelako subjektu batzuk ere sar daitezen, baizik eta, aitzitik, horren bidez betikotzen diren menderakuntza-harremanak zalantzan jartzea.

Bisualtasun-erregimenaren aurrean, Thomas Keenanek, esparru publikoaz pentsatzeko, bestelako proposamen bat egiten du, hain zuzen, mintzairaren eredua baliatzea[14]. Keenanek dioenez, mintzairaren aurrean ezin dugu segurtasunezko distantziarik ipini, izan ere, mintzaira beti baita publikoa eta desegonkorra, eta zaurgarri egiten gaitu. Eta, are garrantzitsuagoa: hain zuzen ere, mintzairan sartzen garenean bilakatzen gara subjektu. Irratiari buruz idatzi zuen Walter Benjaminek[15], eta esan zuen etxean hartzen duzun gonbidatu baten modukoa dela ahotsa, eta ziurtatu zuen hezkuntzarako tresna ezinbestekoa zela irratia, eta, horrez gainera, antzerkia baino teknika are arriskutsuagoa dela, izan ere "publikorantz bideratzen du jakintza, eta publikoa jakintzarantz". LaPublikan, baliabide bat da irratia –jarduerak streaming bidez helarazteko eta podcastak kaleratzeko–, eta, aldi berean, metafora bat ere bada, esparru publikoaren metafora. Komunikabide erresistentea da, ikusgarritasun apalekoa; irratiko bulkadak mintzairaren antza dauka, ikusmenarena bainoago. Gure iritziz, bulkada horren bidez aiseago hel diezaiokegu langintzari, eta potentzialtasunak elkarrekin eraikitzen hasi.

consonni, maiatz 2016.
Bibliografia www.lapublika.org/biblioteca

**14** Keenan, Thomas, "Windows: of Vulnerability" Robbins, Bruce (Ed.), *The Phantom Public Sphere*, University of Minnesota Press, Minneapolis, 1993. **15** Benjamin, Walter, *Radio Benjamin*, Akal, Madril, 2015.


How do images of
public space create the
public identities they seem merely
to depict? How do they
invite viewers
to take up a position that then
defines them as
public beings?
How do these images create
a "we",
a public, and who do we
imagine ourselves to be when we
occupy the prescribed site?
Rosalyn Deutsche, Agoraphobia

# GRUPOS DE INVESTIGACIÓN
# IKERKETA TALDEAK

# LA COCINA DE LAS PRÁCTICAS ARTÍSTICAS.
## Conceptos, afectos y sospechas

GRUPO DE INVESTIGACIÓN OREA
Coordinado por consonni
en colaboración con la
Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU)

Puesto que LaPublika nació con el objetivo de entender mejor la forma en que las prácticas artísticas pueden contribuir a generar esfera pública, quizás deberíamos plantearnos si el análisis riguroso del trayecto recorrido no nos obliga a reconsiderar el propio concepto de esfera pública. En esta modernidad tardía, post-tradicional, no se trataría tanto de participar en el debate académico sobre las diferentes

# ARTE-PRAKTIKEN SUKALDEA.
## Kontzeptuak, afektuak eta susmoak

OREA IKERKETA TALDEA
consonni koordinatzaile,
Arte Ederren Fakultatea laguntzaile
(UPV/EHU)

Arte-praktikek esparru publikoa eratzen ote duten eta nola eratzen ote duten hobeto ulertze aldera sortu zen LaPublika, beraz, akaso, hausnartu behar genuke ea, orain arte egin dugun ibilbidea zorrotz aztertuz gero, ez ote dugun esparru publikoaren kontzeptua bera berriz aztertu behar. Modernotasun berantiar honetan, post-tradizionala baita, kontua ez litzateke, zuzen, eztabaida akademikoan parte hartzea, eta esparru eta espazio

interpretaciones que buscan definir cómo deberían ser entendidos la esfera pública o el espacio público, sino de intentar superarlas trascendiendo los esquemas canónicos de discusión para abrir ese concepto unitario y cerrado, y abordarlo como lo que en realidad intuimos que es: una manifestación de lo social múltiple, fragmentaria y rizomática, en continua construcción, en la que conviven tres dimensiones que, en palabras de Deleuze, estarían determinadas por el concepto, el afecto y el percepto. Esta perspectiva nos obliga a poner en relación lo individual y lo colectivo, lo racional y lo emocional, lo conceptual y lo sensible. Nos permite, en definitiva, humanizar esa concepción de esfera pública idealizada –limitada fundamentalmente a lo logocéntrico y lo propositivo desde los valores de la Ilustración– reivindicando que ser cuerpo es ser en el mundo, que somos un cuerpo que condiciona todas nuestras percepciones y todas nuestras relaciones con los otros en cualquier posible construcción de lo social.

¿De qué forma los fundamentos estéticos que configuran las prácticas artísticas están contribuyendo a dotar a ese proceso social continuo, múltiple y rizomático de un potencial transformador, de pensamiento crítico, liberador, con capacidad de resistencia y, en definitiva, emancipador?

Ese es el marco de análisis que este enfoque nos facilita, abriendo el camino a plantearnos cómo se articula esa interacción para que lo simbólico, el imaginario y todo aquello que es esencia de las prácticas artísticas pueda justificar su función social. Esto inevitablemente presenta dos líneas de trabajo que convergen: una que sea capaz de establecer los fundamentos éticos en los que esas prácticas artísticas deben estar sustentadas y otra, desde el pensamiento estético, que trate de identificar los requisitos

publikoak ulertzeko moduak zehaztu nahi dituzten interpretazioez hitz egitea; baizik eta, aitzitik, interpretazio horiexek gainditzen saiatzea, eta eztabaida-eskema kanonikoak atzean uztea, hartara, kontzeptu bakar eta itxi hori irekitzeko eta horri beste modu batean heltzeko, bestelakoa dela uste baitugu: sozialaren adierazpide bat da, anitza, zatikakoa eta errizomatikoa, etengabe eraikian; hiru maila elkartzen dira bertan, eta Deleuzen arabera, honako hauek eragiten diete: kontzeptuak, afektuak eta hautemanak. Ikuspegi horri helduz gero, ezinbestean lotu behar ditugu indibiduala eta kolektiboa, arrazionala eta emozionala, kontzeptua eta sentikortasuna. Azken batean, ikusmolde horri esker, esparru publikoaren kontzeptu idealizatu hori har dezakegu –logozentrikoa eta propositiboa izan baita, funtsean; Ilustrazioko balioekin lotuta–, eta gizatiar bilakatu; aldarrika dezakegu gorputz izatea munduan izatea dela, gorputz garela eta horrek baldintzatzen dituela gure hautemate guztiak, besteekin dauzkagun harremanak oro eta soziala eraikitzeko bide posible denak.

Arte-praktiken funtsean oinarri estetikoak daude, beraz, oinarri estetiko horiek nola egiten dizkiote ekarpenak prozesu sozial etengabeko, anitz eta errizomatikoari? Alegia, nola ematen diote eraldatzeko gaitasuna, kritikoki pentsatzekoa, askatzekoa, erresistentzia egitekoa eta, azken batean, burujabetzarakoa?

Azterketa-marko hori lagungarri suertatzen zaigu, izan ere, elkarrekintza hori nola artikulatzen den pentsatzeko bidea irekitzen digu, hartara, arte-praktiken funtsa diren alderdiek, besteak beste, alderdi sinbolikoak eta irudimenezkoak, beren funtzio soziala bete dezaten. Ezinbestean, bi lan-ildo sortzen dira, eta elkarrekin topo egin: bata, arte-



formales de expresión capaces de producir el efecto buscado. Ambas líneas deben intentar responder a la realidad contemporánea, donde ya no tiene sentido considerar el arte encerrado en un lugar aurático y distante de los mundos de vida.

Por el contrario, nos interesa encontrar cuáles son los nuevos mecanismos de conexión, qué prácticas artísticas son capaces de activar una nueva sensibilidad social contra-hegemónica que no niega el conflicto y que prefigura una profundización radicalmente democrática en lo político.

## TODOS ESTAMOS EN PELIGRO

Estas fueron las últimas palabras de Pasolini con las que se cerraba una entrevista el día anterior a ser encontrado asesinado. Las prácticas artísticas son peligrosas para el capitalismo y el desarrollo de sus ciudades, como nos explica Rosalyn Deutsche en su texto *Agorafobia*. Dicho peligro radica en lo siguiente: la capacidad de transformación que estas prácticas tienen, su capacidad de generar debate y lucha, de transformarse en herramienta de revuelta, inclusión, pensamiento… Es decir: las prácticas artísticas son susceptibles de entenderse como peligrosas por su capacidad de transgredir, de generar grietas en esa concepción unitaria de esfera pública. Por ello: todos y todas estamos en peligro.

Desde mayo del 68 hasta el 15M hemos visto como muchas prácticas surgidas del arte han girado puntualmente para que, durante un tiempo concreto, se conviertan en una herramienta susceptible de expresar las necesidades sociales de un contexto/tiempo determinado. Pero no es solo en estos momentos de convulsión social cuando el arte y sus prácticas

praktiken oinarrizko zimendu etikoak ezartzeko; bestea, ordea, pentsamendu estetikoa abiapuntu, adierazpide-baldintza formalak identifikatzeko, arte-praktiken bidez lortu nahi den eragina ekoizte aldera. Errealitate garaikideari erantzuten saiatu behar dira bi ildoak; gaur egun, zentzugabea da artea kaiola batean ikustea, auraz betetako toki urrun batean, bizitza-munduetatik kanpo.

Aitzitik, zera interesatzen zaigu: lotura-mekanismo berriak topatzea, eta ikustea ea zer arte-praktika diren gai sentikortasun sozial berri bat hauspotzeko, hegemoniaren aurkako sentikortasun bat, ez baitu gatazka ukatuko, eta politikotasunean sakonduko baitu, errotik eta demokratikoki.

## DENOK GAUDE ARRISKUAN

Pasoliniren azken hitzak dira horiek: elkarrizketa bat amaitzeko esan zituen eta, biharamunean, hilda aurkitu zuten. Arte-praktikak arriskutsuak dira kapitalismoaren eta hiri kapitalisten garapenaren ikuspegitik; halaxe dio, behintzat, Rosalyn Deutschek, *Agorafobia* testuan. Arriskua honako honetan datza: arte-praktikak gai dira gauzak eraldatzeko, eztabaidak eta borroka pizteko, eta tresna izan daitezke, matxinatzeko, jende barneratzeko, pentsarazteko… Hau da: arte-praktikak arriskutsutzat jo daitezke, hain zuzen ere, gai direlako esparru publikoaren ikusmolde bakar hori urratzeko eta bertan arrakalak irekitzeko. Hori dela eta: denok gaude arriskuan.

68ko maiatzetik hasi eta 15M mugimenduraino, artearen munduan abiatutako hainbat praktikek beste norabide bat hartu dute, eta, denbora-tarte zehatz batean, tresna bihurtu dira, testuinguru eta garai jakin bateko behar sozialak adierazteko.

más horizontales son peligrosas o efectivas. Las prácticas artísticas que construyen/destruyen esfera pública no van a ser otras que las que, por alguna razón, quizás sin que está sea su voluntad primera, generan un papel activo en la construcción de los significados de lo que nos rodea. Prácticas que nacen desde una vocación crítica, desbordando lo discursivo, aportando un discurso otro, que surge como un análisis heterodoxo en alguno de sus puntos o prácticas que se hallan en el centro del terreno de la disputa y no en un extremo de la conversación. El debate será la mejor herramienta de una sociedad con necesidad de superar sus propios problemas y el arte de esta sociedad no puede estar al margen. Las prácticas artísticas que potencien propuestas horizontales frente a la exclusión o la verticalidad, y el cuestionamiento y la resistencia frente a lo institucional serán las que mantengan vivo el debate con el cual hacer que la idea de lo social avance.

## DEMOCRATICEMOS LA DEMOCRACIA

La idea de resistencia será la base de las prácticas y del debate que no se dejarán absorber por la institución; incluso, en ocasiones, haciendo uso de ella. Así, las prácticas que se desarrollen con un trabajo horizontal se posicionarán ante las prácticas habituales en las que la verticalidad es el sistema, donde prima lo individual frente a lo colectivo, lo personal frente a lo social y la rentabilidad rápida y única frente a la conquista grupal. Una ecuación más que sumaremos a la dicotomía entre el espacio público y la esfera pública, intentando acercarnos a esa concepción múltiple, fragmentaria y rizomática. Pero ¿resistencia de quién y ante quién?

Edonola den, inarrosaldi sozialeko uneetaz aparte ere, artea eta arte-praktika horizontalenak izan daitezke arriskutsu eta eraginkor. Hain zuzen ere, arrazoiren bat tarteko, esparru publikoa eraikitzen edo suntsitzen duten arte-praktika horiexek laguntzen dute gure inguruari buruzko esanahiak eraikitzen, nahiz eta, akaso, arte-praktika horien asmo nagusia bestelakoa izan. Sorburuan asmo kritikoa duten praktikak, diskurtsoari gainezka egiten diotenak, diskurtso beste bat dakartenak: alegia, gaztaka-eremuaren erdiguneko alderdi edo praktika bat hartu, ez elkarrizketaren bazterrekoa, eta horren azterketa heterodoxo bat egin ostean sortutakoak. Gizarte batek, baldin eta bere arazoak gainditu behar baditu, eztabaida du tresnarik eraginkorrena, eta, gizarte horretan bertan, arteak ezin du bazterrean egon. Arte-praktikek proposamen horizontalak hauspotu ditzakete, eta bertikaltasunari eta bazterketari aurka egin; eremu instituzionala zalantzan jar dezakete, eta horri aurre egin: hain zuzen ere, arte-praktika horiei esker eutsiko zaio eztabaidari, eta eztabaida horren bidez aurrera eginaraziko sozialaren ideiari.

## DEMOKRATIZATU DEZAGUN DEMOKRAZIA

Praktikek eta eztabaidek erresistentzia izango dute oinarri, eta ez dute utziko instituzioak xurga ditzan; are, batzuetan, instituzioak baliatu ere baliatuko dituzte. Hala, modu horizontalean lan egiten duten praktikak aurrez aurre kontrajarriko zaizkio ohiko praktikei; izan ere, ohiko praktiketan, bertikaltasuna da sistema nagusia, indibidualtasuna lehenesten da, taldearen aurretik, pertsonala lehenesten da, sozialaren aurretik, eta errentagarritasun azkarra eta bakarra hobesten da, taldearen konkista bainoago. Ekuazio hori ere erantsiko diogu espazio eta esparru publikoaren



El público, los públicos, (La Publika) son un elemento fundamental en estas prácticas en las que se trabaja en base a unos objetivos concretos y tangibles. Estos objetivos, unas veces tangibles y otras veces menos tangibles pero vinculados a generar actitud, conducta o empoderamiento, se entenderán igual de necesarios que otros objetivos más directos. La lucha por los derechos es una lucha constante, ya que los derechos no se dan, se consiguen. ¿De qué otras cosas trata el debate de la esfera pública si no es de la conquista de derechos? Esa conquista se ha ido dando de maneras muy diferentes desde el arte: prácticas inclusivas, que analizan y repiensan el contexto, que actúan como narradoras de otras historias no oficiales; prácticas que mantienen viva la memoria del entorno en el que se desarrollan y preservan sus significados; prácticas que se desarrollan en un diálogo de igualdad, con la finalidad de hacer que el contexto, el pensamiento y lo social avancen.

## VALERSE DE: USOS Y TÁCTICAS

Lo que entendemos como “lo social” es siempre un espacio de conflicto. Y este conflicto ha de gestionarse desde todos los ámbitos con capacidad de agencia que lo determinan y constituyen. Es decir, todas las partes que hacen realidad el concepto de que algo es social deben ser conscientes de su pertenencia a esta dinámica y actuar en consecuencia. Las prácticas artísticas no deberían sentir que pueden mantenerse al margen. Pueden servir como bastión de resistencia pero no como parte desconectada de la realidad. Por ello, esas prácticas que se suman a la problemática del contexto, convirtiendo en uso sus tácticas, serán la parte vinculante de un arte a una sociedad determinada. Desde ese imaginario gráfico y escultórico

arteko dikotomiari, hartara, esparru publikoaren kontzeptu anitz, zatikako eta errizomatiko horretara hurbiltzeko. Baina, nork egingo du erresistentzia, eta noren aurka?

Praktika hauetan, helburu zehatz eta ukigarriak lortzeko ekiten baita, ezinbesteko alderdia dira publikoa, publikoak, (LaPublika). Helburu ukigarri horiek, batzuetan, ez dira hain ukigarriak izango, eta, areago, jarrera, portaera eta boteretzea sortzeko asmoa izango dute; edonola den, helburu denak joko dira berdin beharrezkotzat. Eskubideen aldeko borrokak ez du etenik, izan ere, eskubideak ez baitizkizute ematen, lortu egin behar dituzu. Azken batean, esparru publikoari buruzko eztabaida ez al da eskubideak erdiesteari buruzkoa? Artearen barruan, hainbat modutan erdietsi dira eskubideak, askotariko praktiken bidez: adibidez, praktika barne-hartzaileek testuingurua aztertu eta berpentsatu dute, eta historia ez-ofizialak azaldu; beste praktika batzuek bizirik eutsi diote beren ingurunearen memoriari, eta bertako esanahiak zaindu; beste praktika batzuek, ostera, berdintasunezko solasaldi batean garatu dira, hartara, testuinguruak, pentsamenduak eta sozialak aurrera egin dezaten.

## ZERBAITETAZ BALIATZEA: ERABILERAK ETA TAKTIKAK

“Sozial”-tzat hartzen dugun hori gatazka-gune izango da, beti. Gatazka hori kudeatu egin behar dute gatazka osatzen duten alor guztiek, betiere, horretan ekiteko gaitasuna badute. Alegia, zerbait soziala izatea ahalbidetzen duten alderdi guztiek jakin behar dute dinamika horren parte direla, eta, hori kontuan hartuta ekin. Arte-praktikek ez lukete sentitu behar bazterrean egon daitezkeenik. Erresistentzia-gotorleku izan daitezke, baina ezin dira errealitatetik at egon.

vasco hasta las reclamas de un arte latinoamericano bajo dictaduras, pasando por las prácticas feministas de los 60 y 70 en Estados Unidos.

Entonces, las múltiples posibilidades y oportunidades presentes en la(s) esfera(s) pública(s) quedan evidenciadas. Visibilizamos sus diversos contenidos, tránsitos y derivas para ponerlos en crisis. Cuestionándolos y cuestionándonos en este escrito, nos motiva detenernos en aquellos procesos que subyacen a la construcción y la reproducción de los imaginarios.

Como zona de contacto espacio-temporal, mediante interrelaciones complejas entre sujetos heterogéneos, en la esfera pública se negocian, se crean y se cuestionan los significados, los sentidos, las ideologías y las representaciones. En su interior, imágenes, códigos, lenguajes, prácticas, interpretaciones y percepciones danzan bailes convulsos.

El conflicto es inherente, es la condición de posibilidad de estos procesos. Que se mueven de manera ni lineal ni uniforme, yendo y volviendo desde lo estático, lo homogéneo, lo normativo, lo totalizante, lo universal a lo dinámico, lo heterogéneo, lo disruptivo, lo diverso, lo particular. Se trata de imaginarios múltiples, muchas veces en minúsculas. Que pujan, queriendo asomar, para poder ser vistos y reconocidos en ese gran imaginario, en la esfera pública. De ahí la sospecha, la necesidad de mirar a contrapelo las múltiples narrativas, micro-historias, fragmentos, parcialidades, micro-relatos y micro-temporalidades que intervienen en esa compleja configuración, que es a la vez material-concreta y simbólica.

De diversas formas e intensidades, lo uno y lo múltiple se disputan la construcción de imaginarios. Como parte de estos dinamismos, se confrontan diferentes proyectos y visiones. Que no son unívocas ni herméticas. Al interior de sus prácticas, hay tensiones y contradicciones. Van mutando según las interrelaciones y el paso del tiempo y los entornos en los que se desplieguen. No se trata de cerrar discusiones sino de abrir interrogantes que nos ayuden a desbaratar ese modelo de estabilidad, de homogeneidad controlada.

Hori dela eta, artea eta gizarte jakin bat lotu egingo dira, baldin eta arte-praktikek testuinguruaren arazoekin bat egiten badute, eta arazo horiei aurre egiteko taktika bihurtu. Horra hor, besteak beste, euskal iruditeria grafikoa eta eskulturak, diktadura-garaietako arte latinoamerikarraren aldarrikapenak, bai eta AEBetako praktika feministak ere, 60ko eta 70ko hamarkadetan.

Beraz, agerian geratzen da esparru publikoak (publikoek) aukera ugari eskaintzen ditu(zt)ela. Bertako edukiak, igaroak eta desbideratzeak agerrarazten ditugu, krisia eragiteko. Idatzi honen bidez, zalantzan jartzen ditugu, bai eta geure burua ere, eta, horrek indarra ematen digu hainbat prozesuri erreparatzeko, hala nola irudìteriak eraiki eta erreproduzitzearen azpian dauden prozesuei.

Denbora eta espaziozko harreman-gunea da esparru publikoa, beraz, bertan negoziatzen dira esanahiak, zentzuak, ideologiak eta errepresentazioak, bertan sortzen dira eta bertan zalantzan jartzen, subjektu hetereogeneoen arteko elkar-harreman konplexuen bidez. Esparruen barruan, asalduz egiten dute dantza irudiek, kodeek, mintzairek, praktikek interpretazioek eta hautemateek.

Prozesu horiei gatazka datxekie, ezinbesteko baldintza da, gerta daitezen. Prozesu horiek, hain zuzen ere, ez dira modu linealean ez eta uniformean ere mugitzen; joan-etorrian dabiltza, hasi estatikoa, homogeneoa, arauzkoa, totalizatzailea eta unibertsala den horretatik eta dinamikoa, hetereogeneoa, etenezkoa, anitza eta partikularra den horretara. Ugaritzat jo behar ditugu, eta, sarri, letra xehean idatzi. Bultza egiten dute, agertu nahian, irudìteria handi horretan, esparru publikoan, ikus ditzagun, eta errekonozitu. Horrexegatik ekarri dugu susmoa hizpidera, haize kontra begiratu behar diegu askotariko kontakizun, mikro-historia, pasarte, partzialtasun, mikro-narrazio eta mikro-denborazkotasunei, horiek denek osatzen baitute forma konplexu hori, zeina materiala eta zehatza baita, eta, aldi berean, sinbolikoa.

Bakarrak eta aniztasunak borroka egiten dute, irudìterien eraikuntza lortzeko, hainbat modutara eta ez beti indar berarekin. Dinamika horien barruan, proiektu eta ikuspegi ezberdinek topo egiten dute, aurrez aurre. Ez dira unibokoak, ez eta hermetikoak ere. Praktika horien barruan, kontraesanak eta tentsioak daude. Aldatzen doaz, elkar-harremanen arabera, denborak aurrera egin ahala eta inguruaren arabera. Kontua ez da eztabaidak ixtea, baizik eta galdera irekitzea, hartara, homogeneotasun kontrolatuko eredu egonkor hori zapuzten lagun diezaguten.

## GRUPO DE INVESTIGACIÓN SOBRE PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA

Coordinado por el área de Mediación (Tabakalera)

Proyecto:
LaPublika

Lugar:
Donostia, Tabakalera...
Luego viajaremos en tren a Ordizia.

Grupo:
Leti Aristi
Mireia Baz
Maider Lopez
Ana Revuelta
Koldo Telleria

Pregunta:
¿Cómo trabajar la noción de esfera pública en el ámbito educativo?

Más preguntas:
¿Cuándo se da esfera pública en educación?
¿Puede ser la educación esfera pública por sí misma?

Temporalidad:
Inicio octubre de 2015, fin octubre de 2016

## PEDAGOGIA PUBLIKOAK ETA ESPARRU PUBLIKOA. IKERKETA-TALDEA

Hezkuntza saila koordinatzaile (Tabakalera)

Proiektua:
LaPublika

Tokia:
Donostia, Tabakalera...
Gero, trenean joango gara Ordiziara.

Taldea:
Leti Aristi
Mireia Baz
Maider Lopez
Ana Revuelta
Koldo Telleria

Galdera:
Nola landu esparru publikoaren nozioa hezkuntzaren arloan?

Galdera gehiago:
Zer kasutan sortzen da esparru publikoa hezkuntzaren arloan?
Hezkuntza izan al daiteke,
bere horretan, esparru publiko?

Denbora:
2015eko urrian hasi, 2016ko urrian amaitu

Proceso:
En otoño de 2015, iniciamos el proceso.
Leemos y pensamos en grupo. Leemos a Rosalyn Deutsche, Aída Sánchez de Serdio, Perec, etc.
Nos contamos nuestras experiencias.
Venimos de ámbitos diferentes y modos de hacer dispares.
Escuchamos a Stine Herbert, Bani Brusadin, Irene Amengual, etc.
Conversamos con MawatreS, Andrea Estankona y Josefina Roco del grupo de trabajo de Bilbao.

En diciembre de 2015 enfocamos la esfera pública en el ámbito educativo:
Se genera esfera pública en la interferencia entre unos y otros, en el diálogo y en el ir construyendo juntos.
Cuando los objetivos están definidos y son conocidos por todxs.
Cuando el objetivo es político y busca el cambio.
Cuando el entorno es parte del proceso.
Cuando respetamos los diferentes tiempos de aprendizaje.
Cuando generamos espacios sin categorias o usos cerrados.
Cuando se trabaja desde lo concreto.
Cuando no se evita el conflicto sino que se está en el disenso y en la negociación.
Cuando se permite estar y ser desde la diferencia.
Cuando nos tomamos el tiempo para ver que sucede alrededor.
Pensar juntxs.
En la manera de llegar a acuerdos para hacer cosas.
Cuando miramos un espacio cotidiano desde otro punto de vista.
Todo esto puede suceder en el camino a la escuela...

Enero de 2016
Mireia deja el grupo.
Nos reajustamos y continuamos.

Tras la reflexión queremos pasar a la práctica.
Queremos desarrollar un proyecto.

Prozesua:
2015eko udazkenean ekin genion prozesuari.
Taldean irakurri dugu, eta taldean pentsatu. Besteak beste, honako hauek irakurri ditugu: Rosalyn Deutsche, Aída Sánchez de Serdio, Georges Perec, etab.
Geure bizipenak kontatzen dizkiogu elkarri. Inguru ezberdinetatik gatoz, eta lan-molde ezberdinak ditugu.
Hainbat hizlari aditu ditugu, besteak beste Stine Herbert, Bani Brusadin, Irene Amengual eta abar.
MawatreS, Andrea Estankona eta Josefina Rocorekin mintzatu gara, Bilboko lan-taldeko kideak baitira.

2015eko abenduan, hezkuntza-arloko esparru publikoari erreparatu genion:
esparru publikoa sortzen da batzuen eta besteen artean interferentziak gertatzen direnean, solasaldiak sortzen, eta elkarrekin eraikitzen.
Helburuak argi daudenean eta denek ezagutzen dituztenean.
Helburua politikoa denean eta bidea bilatzen denean.
Ingurua ere prozesuaren parte denean.
Ikasteko denbora anitzak errespetatzen ditugunean.
Espazioak sortzen direnean, kategoria edo erabilera itxirik gabe.
Gauza zehatzetatik abiatuta lan egiten denean.
Gatazkari ihes egin beharrean, desadostasuna eta negoziazioa jorratzen direnean.
Ezberdintasunean egon eta izan daitekeenean.
Gure inguruan zer gertatzen den ikusteko tartea hartzen dugunean.
Elkarrekin pentsatzea.
Akordioak lortzeko moduak, gauzak egite aldera.
Eguneroko espazioari bestelako ikuspegi batetik begiratzen diogunean.
Hauxe dena eskolara bidean gerta daitekeenean...

2016ko urtarrila
Mireiak taldea utzi zuen.



Leticia se ofrece con el grupo escolar con el que trabajar. “Tengo ganas de proponerles otro tipo de dinámicas y referencias”.

Grupo escolar:
23 alumnxs de 15 años de 4° de ESO.
Han elegido como optativa educación plástica y visual.
Provienen de grupos diferentes y se juntan para esta clase.
Vienen al instituto de Ordizia desde diferentes pueblos cercanos: Legorreta, Zaldibia, Itsasondo...

Decidimos centrarnos en el conflicto.
Partiendo del conflicto que detecta Leticia entre sus alumnxs por el hecho de venir de pueblos diferentes.
Decidimos trabajar sobre el camino al instituto, como un espacio intermedio.
El espacio físico y temporal donde no existen ni las normas de casa ni las del instituto. Aunque también pensamos que el instituto casi llega a la puerta de sus casas...

Febrero 2016
Comenzamos a proponerles diferentes maneras de conocer, mirar, ver, entender el espacio que recorren cada día entre su casa y el instituto.

1° Un mapa. Espacio físico.
Cada uno marca el recorrido en un mapa A3.
Marcan el río, o los ríos (según su experiencia particular).
Marcan de diferente manera los trayectos que realizan a pie, en coche, en autobus, en tren, en bicicleta.

“Nere baserria ez da agertzen!”
Koldo, prepara un mapa en el que salgan todas las casas.



Berregokitu egin ginen, eta jarraitu.

Hausnartu ostean, praktikari heldu nahi diogu.
Proiektua garatu nahi dugu.
Leticiak proposatzen du bere eskola-taldearekin lana egitea: “bestelako dinamika eta erreferenteak proposatu nahi dizkiet”.

Eskola-taldea:
15 urteko 23 ikasle, DBH 4. mailakoak.
Hezkuntza plastiko eta bisuala hautatu dute, hautazko ikasgai moduan.
Talde ezberdinetakoak dira, eta irakasgai hori ikasteko elkartzen dira.
Ordiziako institutuan ikasten dute, baina inguruko herrietakoak dira: Legorreta, Zaldibia, Itsasondo...

Gatazkari erreparatzea erabaki dugu. Abiapuntua: Leticiaren ustez, gatazka dago ikasleen artean, herri ezberdinetakoak direlako.
Instituturaino egiten duten bidea landu nahi dugu, erdibideko espazio bat baita.
Espazio fisiko eta denborazko horretan, etxeko eta institutuko arauak ez daude indarrean. Hala ere, iruditzen zaigu etxeko ateraino iristen zaiela institutua, ia-ia...

2016ko otsaila

Hainbat modu proposatu dizkiegu, etxetik institutura joateko egunero egiten duten espazio hori ezagutzeko, begiratzeko, ikusteko eta ulertzeko.

1. Mapa bat. Espazio fisikoa.
A3 neurriko mapa batean markatu dute ibilbidea, bakoitzak berea.
Ibaia edo ibaiak markatzen dituzte (beren bizipenen arabera).
Modu ezberdinetan markatzen dituzte ibilbideak, baldin eta oinez, autoz, autobusez, trenez edo bizikletaz egin badituzte.

“Nere baserria ez da agertzen!”

2° Un dibujo. Espacio especial.
Eligen un lugar que les interese en ese trayecto y lo dibujan.

3° Un sonido. Espacio sonoro.
Cada uno graba con su móvil el recorrido entre su casa y el instituto. De esta manera obtenemos un tiempo.



4° Personas. Espacio humano.
Marcan en su mapa las personas que creen que se encuentran en ese trayecto.
Nos damos cuenta de cuántas conocemos, y de cuantas no habíamos visto, ni tenido en cuenta.

5° Un mapa común.
El 7 de abril vamos al instituto por primera vez.
Nos conocemos.
Juntxs, preparamos un mapa de gran escala en el que marcamos con lana naranja todos los recorridos.
Nos damos cuenta de que las distancias físicas son diferentes a las subjetivas.
Nos damos cuenta de que Aitor es el que más tiempo camina en Ordizia hasta llegar al instituto.
Nos damos cuenta de que Ainitze es la que vive más lejos.
Algunas lanas tienen trenzas, en los puntos en los que se juntan unos estudiantes con otros.

Leemos un texto escrito por Maider. Escuchan con atención. Habla sobre la coreografía que supone

Koldok mapa bat prestatzen du, eta, bertan, etxe denak bildu.

2. Marrazki bat. Espazio berezia.
Ibilbide horretako toki bat aukeratu dute, gustuko duten toki bat, eta marraztu.

3. Soinu bat. Soinuaren espazioa.
Etxetik institutura bidean egindako ibilbidea grabatzen dute, mugikorrarekin.
Hala, iraupenaren berri ere izaten dugu.
4. Pertsonak. Giza espazioa.
Ibilbidean ikusten ei dituzten




pertsonekin akordatu eta mapan markatzen dituzte.
Hala, bi gauzataz jabetzen gara: zenbat pertsona ezagutzen ditugun, eta zer pertsona ez ditugun ikusten edo kontuan hartzen.

5. Mapa arrunt bat.
Apirilaren 7an, institutura joan ginen, lehenengo aldiz.
Elkar ezagutu genuen.
Eskala handiko mapa bat prestatu genuen, elkarrekin, eta, bertan, ibilbide guztiak markatu, artile laranjarekin.
Ikusten dugunez, distantzia fisikoa eta subjektiboa ez dira gauza bera.
Aitor ibiltzen da gehien Ordizian barrena, institutura iristeko.
Ainitze bizi da institututik urrutien.
Harietako batzuk elkarri lotzen zaizkio, izan ere, puntu batzuetan, ikasleak elkartu egiten dira.
Maiderrek idatzitako testu bat aditu dugu. Arretaz aditzen dute. Egunero



un recorrido diario. El recorrido al instituto, por ejemplo. Como cambiaría si lo hiciésemos a otra hora, o con otro medio de transporte, o con otra persona, o escuchando algo, o fijándonos en otras cosas.
¿Cómo podemos poner atención en lo que normalmente no vemos?



6° Un relato. Espacio imaginario.
Les proponemos escribir un relato a partir de su experiencia en el recorrido de casa al instituto, poniendo el punto de atención en lo que hayan descubierto en este proceso. Algún




lugar, persona, momento situación que vean de otra manera, que les inspire curiosidad o interés.
Muchos escriben relatos imaginarios sobre personas que se encuentran en su camino y situaciones ficticias.

7° Un mapa por capas. Espacio con espacios.

egiten ditugun ibilbideak koreografia bat dira, halaxe dio. Institutura joateko ibilbidea, adibidez. Nola aldatuko litzateke, baldin eta beste ordu batean egingo bagenu, beste garraio batekin eta beste pertsona batekin, edo zerbait aditzen, edo bestelako gauzari erreparatuz gero.
Nola erreparatu diezaiekegu normalean ikusten ez ditugun gauzei?

6. Kontakizun bat. Irudimenaren espazioa.
Kontakizun bat idazteko proposatu diegu, etxetik institutura joateko egiten duten bidearen esperientzia abiapuntu, eta arreta jarri dezaten prozesuan deskubritu dituzten gauza horietan.
Bestelako modu batean ikusten duten toki, pertsona, une edo egoera bati erreparatu diezaioten, jakin-mina edo interesa pizten dien zerbaiti.
Irudimenezko kontakizunak idatzi dituzte askok. Gaia: bidean aurkitzen dituzten pertsonak, eta, horiekin lotuta, fikziozko egoerak.

7. Mapa bat, geruzaka egina.
Espaziodun espazioa.
Arkitekturako 5. maila egiten ari diren hiru ikasle sartzen dira prozesuan (Julen García, Maialen Ruiz eta Uxue Jauregi). Marraztutako ibilbideak egiten dituzte, eta, ondoren, tailer bat dinamizatzen, eskolan bertan, taldearekin. Tailer horretan,



Alumnos de 5° curso de arquitectura (Julen Garcia, Maialen Ruiz y Uxue Jauregi) se insertan en el proyecto. Después de realizar los recorridos dibujados, dinamizan un taller en clase con el grupo donde se habla sobre las diferentes capas del territorio y se trabaja la sección del recorrido cotidiano.

En la siguiente reunión del equipo, tras repasar el calendario y sus pocos huecos, decidimos pasar a la acción.

8° Un Chirrido/ Una acción. Espacio intervenido.
El 5 de mayo, vamos por segunda vez a su clase.
Les proponemos que piensen acciones que puedan hacer que las personas con las que se cruzan en el itinerario también reflexionen sobre aspectos que les parezcan interesantes, que generen debate, que hagan que cambiemos (aunque solo sea por un momento) la mirada y la vivencia que tenemos de ese momento habitual.
Nos juntamos en 4 grupos a partir del lugar desde el que venimos al instituto. Recogemos diferentes propuestas de cada grupo.

12 de mayo de 2016
3ªsesión en el instituto.
Ya sabemos que el día de la acción será el 26 de mayo.
Dedicamos la sesión a definir las acciones. Pensar en los materiales que necesitamos, repartir tareas...

DESARROLLAMOS LA ACCIÓN
26 de mayo de 2016, entre las 08.00 y las 08.30 am.

GRUPO 1. LEGORRETA
Jone, Maialen, Itsaso, Nerea, Maider y Oihan hacen su trayecto diario en bus desde Legorreta hasta el instituto. En las dos paradas que hace el bus, ellas suben el la última. Para cuando suben y se sientan el bus está lleno y el resto de los alumnos del instituto tiene su espacio ocupado. Hay una jerarquía que nunca se pone en duda: los de 1° de la ESO se ponen todos en las primeras filas y según van avanzando en edad, se pueden permitir "ocupar" un espacio más hacia atrás, "otro estatus". El grupo propone romper esta jerarquía; subirse en la primera parada y ocupar los asientos de las primeras filas junto a la ventana, para observar qué harán "los más pequeños": ¿se sientan en los asientos de atrás con los "mayores"? ¿Se ponen en los asientos libres junto a las de 4° curso?

lurraldearen geruzei buruz hitz egin dute, eta eguneroko ibilbidearen atala lantzen.

Taldea berriz biltzen da, egutegia berrikusi, txoko gutxi dauzkagula ikusi, eta ekitea erabaki dugu.

8. Kirrinka bat / Ekintza bat. Esku hartutako espazioa.
Maiatzaren 5ean eskolara joan gara, bigarren aldiz.
Zera proposatu diegu: ekintzak pentsa ditzatela, hartara, ibilbidean topatzen dituzten pertsonek ere eguneroko une horri buruz hausnartu dezaten, eta alderdi interesgarriak topatu: eztabaida piztekoak, eguneroko une horri nola begiratzen diogun eta nola bizi dugun aldatzeko.

4 talde osatu ditugu, institutura nondik etortzen garen kontuan hartuta. Taldeek beren proposamenak egiten dituzte, eta guk bildu.

2016ko maiatzak 12
3. saioa institutuan.
Maiatzaren 26an egingo dugu ekintza.
Ekintzak zehazten ditugu: zer material behar dugun pentsatu, zereginak banatu...

EKINTZA EGITEN DUGU
2016ko maiatzaren 26a, 08.00 eta 08.30 bitartean.

1. TALDEA - LEGORRETA
Jone, Maialen, Itsaso, Nerea, Maider eta Oihane egunero joaten dira autobusez institutura, Legorretatik abiatuta. Autobusak bi geldialdi egiten ditu, eta, haiek azken geldialdian hartzen dute autobusa. Autobusera igo eta han eseri orduko autobusa beteta dago, beste ikasleek hartu dute espazio guztia. Hierarkia bat dago, eta ez da sekula zalantzan jartzen: DBHko 1. mailakoak lehen ilaretan esertzen dira, eta adinean gora joan ahala, atzerago ere "har" dezakezu tokia, "bestelako estatus" bat baitaukazu. Taldearen proposamena: hierarkia hori haustea. Lehenengo geldialdian igo eta lehen lerroak hartzea, leiho ondoan, ikusteko ea zer egingo luketen "txikienek". Atzean eseriko ote lirateke, "zaharrenekin"? Libre dauden eserlekuetan jarriko ote lirateke, 4. mailakoekin?



GRUPO 2. ZALDIBI
Vienen todos los días juntas en autobús. Hay 6 paradas donde recoge a estudiantes. Un día antes de la acción proponen subirse en otra parada que no sea la suya. Rompen la rutina con una acción sencilla, alterar el orden.
El jueves 26 de mayo, le dan un audio al chófer para que lo ponga en el autobús. Son unas preguntas que se escucharán por la megafonía y que invitan a reflexionar sobre las cuestiones que ellas ya han pensado en este proyecto, sobre la esfera pública; sobre cómo actúan, sobre la relación que tienen con el contexto, sobre las relaciones que se generan en el camino, etc. Además proponen una versión de bus turístico haciendo referencia a lo que se ve y no se ve durante el viaje, y a como leemos nuestros espacios cotidianos.

2. TALDEA - ZALDIBI
Elkarrekin datoz egunero, autobusez. 6 geldialdi egiten ditu, eta jendea jaso. Ekintza baino egun bat lehenago, haienean ez baizik eta beste geldialdi batean igotzen dira. Errutina hausten dute, ekintza sinple bat bidez, ordena aldatzen dute.
Ostegunean, maiatzak 26, audio bat ematen diote gidariari, autobusean ipin dezan. Megafonia bidez, galdera batzuk adituko dituzte, eta hainbat gai hizpidera ekarri, hain zuzen, haiek proiektuan zehar dagoeneko landu dituzten hainbat gai: esparru publikoa, nola ekiten duten, testuinguruarekin zer harreman duten, zer harreman sortzen diren bidean etab. Gainera, turismo-autobusen bertsio bat ere proposatzen dute, eta bidaian zehar ikusten dena eta ikusten ez dena aipatu, bai eta geure eguneroko espazioak irakurtzen ditugun modua ere.



GRUPO 3. ORDIZIA
El grupo detecta que todas las mañanas ven a la policía municipal en ciertos pasos de cebra del municipio, no entienden muy bien por que están, y ademas alguno se siente increpado cotidianamente por que no cruza correctamente un paso de cebra. Proponen alterar ese orden. Quedar en grupo y cruzar estos pasos de cebra de forma colectiva y a saltos o ritmos, con sonidos… según las trazas del paso de cebra.

GRUPO 4. ORDIZIA
Ponemos la atención en las personas con las que nos encontramos en el camino al instituto. Personas de nuestro entorno que configuran nuestra cotidianidad, les vemos casi todos los días, siendo conscientes de ello o no. En un intento de mirarlos y verlos, de enumerarlos, de ponerles nombre, realizamos esta acción en la que cada vez que nos cruzamos con alguien damos una palma. Generando un sonido, un ritmo, a veces las palmas son espaciadas, llegando a pasar un minuto entre una y otra. Otras veces sin embargo, las palmas son muy seguidas, casi aplausos. Sonidos y ritmos que rompen la normalidad en este jueves a las 8 de la mañana.

Intentamos llevar a la práctica, extender las reflexiones y cambio en la mirada con la que hemos trabajado. Una vecina del pueblo, Miren, va andando a la mañana, todavía medio dormida, y ve a un joven dando una palma. Se da cuenta de que suele cruzarse a menudo con él de camino al trabajo; enfoca así una imagen que tenía desenfocada. Hoy va serio y de vez en cuando da una palma, una chica que pasaba corriendo se gira. Miren ha seguido andando sin darle más importancia, a media mañana en el trabajo le comentan que han visto a cinco chavales aplaudiendo por la calle. Tras poner en común sus historias cree que cada vez que el grupo de jóvenes se cruzaba con una persona daba un aplauso, dando sonido a las personas, una manera de poner nombre a personas anónimas que forman parte de nuestro día a día, no está segura de que se trate de esto, pero al día siguiente, al ir al trabajo y cruzarse con alguien le ha mirado diferente.

9 de junio de 2016
Sesión de cierre en el instituto. Comentamos y valoramos lo que ha sucedido. ¿Qué no esperábamos? ¿Qué ha transformado?

P.D
Octubre 2016
Continuaremos pensando en cómo compartir estas acciones el curso que viene con los estudiantes del instituto…



3. TALDEA - ORDIZIA
Taldea konturatu denez, udaltzainak herriko zebrabide batzuen inguruan egoten dira, goizero, eta taldekoek ez dute guztiz ulertzen zergatik dauden hor; gainera, taldekide batzuei errieta egin ohi diete, ez dutelako zebrabidea egoki zeharkatzen.
Ordena hori aldatu nahi dute.





Zebrabideak elkarrekin gurutzatu, jauzian edo erritmoka, soinuarekin, zebrabidearen trazen arabera.

4. TALDEA - ORDIZIA
Institutura bidean aurkitzen ditugun pertsonei jartzen diegu arreta. Gure inguruko pertsonak dira, egunerokoa osatzen dute, ia egunero ikusten ditugu, horren jakitun izan ala ez. Pertsona horiek behatu eta ikusteko ahalegina egiten dugu, pertsona horiek zenbatu eta izendatzekoa; horretarako, ekintza hau egiten dugu: pertsona batekin topo egin bakoitzean, txalo egiten dugu, eta, hala, soinu bat sortu. Batzuetan, txaloak tarteka-tarteka datoz, minutu bat igarotzen da bi txaloren artean. Beste batzuetan, aldiz, bata bestearen atzetik jotzen dira txaloak, kasik txalo-zaparrada bat balitz bezala. Txaloek hausten dute ostegun honetako goizeko zortzien normaltasuna.

Landu ditugun begiradaren aldaketa eta hausnarketak praktikan jartzen saiatu gara, hori guztia hedatzen. Herritar bat, Miren, oinez doa, goizean, erdi lo, oraindik, eta, hara non ikusten duen gazte bat, eta hark txalo bat jotzen duen. Miren jabetzen da sarri topatzen dela gazte horrekin, lanera doanean: hala, irudi lausoa fokuan jartzen du. Gaztea serio doa gaur, eta, tartean behin, txalo bat jotzen du: korrika zihoan emakume batek buelta ematen du. Mirenek oinez jarraitu du, arduratu gabe, eta goiz erdian, lanean, esaten diote bost gazte ikusi dituztela, kalean txaloka. Kontakizunak konpartitzen dituzte, eta, horiek adituta, Mirenek uste du gazte-talde horrek txaloa jotzen zuela norbaitekin topo egin aldiro; hala, soinua ipintzen zien pertsonei, izena ipintzen zieten gure egunerokoaren parte diren pertsonei. Ez daki seguru hori ote den, baina, biharamunean, lanera bidean joan eta norbaitekin topo egitean, bestelako modu batean begiratu dio.

2016ko ekainaren 9a
Itxiera-saioa, institutuan. Gertatutakoa komentatu eta baloratu dugu. Zer ez genuen espero? Zer eraldatu da?

P.D
2016ko urria.
Pentsatzen jarraituko dugu, ea nola konpartitu daitezkeen ekintza hauek institutuko ikasleekin, datorren urtean…

# PARTICIPANTES
# PARTE-HARTZAILEAK

2014. 15. 16

# AIDA SÁNCHEZ DE SERDIO



### QUÉ/QUIÉN ES PÚBLICO EN LA ESFERA PÚBLICA? PEDAGOGÍA, PRÁCTICAS ARTÍSTICAS COLABORATIVAS E INSTITUCIONES ARTÍSTICAS

La definición de una esfera pública es lugar de conflicto ya que qué cuenta como público, quién puede participar, o qué lenguaje es legítimo en ella son fruto de procesos de inclusión y exclusión social y cultural. A partir de ejemplos concretos se discutirá cómo operan estos procesos en relación con las pedagogías, las prácticas artísticas colaborativas y las instituciones artísticas.

**Aida Sánchez de Serdio** es educadora e investigadora en los ámbitos de la cultura visual, la educación y las prácticas artísticas colaborativas. Ha sido docente en la Facultad de Bellas Artes de Barcelona y actualmente es asesora de los departamentos de Educación y Públicos del MNCARS.

**Seminario. Sesión #2**
**17 de noviembre de 2015**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

### ZER/ZEIN DA PUBLIKOA ESPARRU PUBLIKOAN? PEDAGOGIA, ELKARLANEZKO ARTE-PRAKTIKAK ETA ARTE-INSTITUZIOAK

Esparru publikoaren definizioa eremu gatazkatsua da, izan ere, bazterketa eta txertaketa sozial eta kulturaleko prozesuen ondorioz finkatu baita zer den publikoa, zeinek har dezakeen parte bertan eta zer hizkuntza den zilegi. Adibide zehatzetatik abiatuta, prozesu hauen jardunari buruz hitz egingo da, pedagogiei, elkarlanezko arte-praktikei eta arte-instituzioei erreparatuta.

**Aida Sánchez de Serdio** hezitzailea eta ikerlaria da, honako alor hauen inguruan: kultura bisuala, hezkuntza eta elkarlanezko arte-praktikak. Bartzelonako Arte Ederren Fakultatean aritu da irakasle, eta gaur egun Hekuntza eta Publiko Saileko aholkularia da, Madrilgo Reina Sofía museoan.

**Mintegia. #2 Saioa**
**2015eko Azaroak 17**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**



Licenciada en periodismo, desarrolla parte de su carrera en la radio y televisión formando parte de la plantilla de Radio Euskadi donde realiza y edita programas, magazines y espacios de carácter cultural. Forma parte del grupo de música Chico y Chica. Además, participa en presentaciones literarias y realiza locuciones y doblajes para publicidad y programas de televisión. Actualmente trabaja en la productora Digytal.

Kazetaritzan lizentziaduna da, eta irratian eta telebistan egin du bere ibilbidearen zati bat, Radio Euskadiko lantaldean; kultura arloko magazinak eta saioak egiten eta editatzen ditu bertan. Chico y Chica musika-taldeko partaidea da. Horrez gain, literatura-aurkezpenetan parte hartzen du, eta publizitaterako eta telebista-saioetarako lokuzioak eta bikoizketak egiten ditu. Gaur egun, Digytal ekoiztetxean egiten du lan.



# ALICIA SAN JUAN

**Radio Magazine**
**Conducción y presentación. 22 de Junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Symposium**
**Conducción y presentación.**
**28 de octubre de 2016**
**Tabakalera y Dabadaba, Donostia-San Sebastián**

**Radio Magazine**
**Gidatu eta aurkeztu. 2016ko ekainak 22an, asteazkena**
**Azkuna Zentroa, Bilbo**

**Radio Symposium**
**Gidatu eta aurkeztu. 2016ko urriaren 28an, ostirala**
**Tabakalera y Dabadaba, Donostia**

AmiArte es un taller de creación artística interdisciplinar en el que comparten experiencias artistas y profesionales con personas en situaciones difíciles, dando salida a sus posibilidades creativas. La diferencia de situaciones y de niveles en los participantes dentro del taller es un factor de enriquecimiento que permite avanzar en un proyecto formativo individualizado, compartiendo y realizando actividades significativas para todo el equipo. Se trata de un proyecto intercultural que sensibiliza al entorno social para una actitud y compromiso solidario. Las creaciones producidas en AmiArte se difunden en exposiciones, galerías, casas de cultura, murales, instalaciones y otros soportes.

AmiArte diziplina arteko sormen artistikoko tailerrean, esperientzia artistikoak eta profesionalak partekatzen dira egoera zailetan dauden pertsonekin, euren sormen-aukerei irteera emanda. Tailerrean parte hartzen dutenen egoeraren eta mailen artean desberdintasunak egotea aberasgarria da, eta aukera ematen du banakako prestakuntza-proiektuan aurrera egin ahal izateko, talde osoarentzat esanguratsuak izan daitezkeen jarduerak eginez eta partekatuz. Kulturarteko proiektua da, ingurune soziala elkartasunezko jarrera eta konpromisoa izateko sentsibilizatzen duena. AmiArten ekoitzitako sortze-lanak erakusketa, galeria, kultura-etxe, horma, instalazio eta beste euskarri batzuetan zabaltzen dira.




# AMIARTE

**Radio Magazine**
**Conversación. 22 de junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Magazine**
**Elkarrizketa. 2016ko ekainak 22**
**Azkuna Zentroa, Bilbo**



# AN MERTENS



## LOS ALGORITMOS COMO CONTADORAS DE HISTORIAS

Los algoritmos se han convertido en una especie de mito moderno. De todas maneras, la naturaleza e implicaciones de dichos ordenamientos están aún por aclararse. ¿Qué es lo que “hacen”, exactamente, los algoritmos? ¿Qué papel se les atribuye en nuestros debates? ¿Cómo podemos convertir “el problema de los algoritmos” en terreno fértil para una investigación productiva? (Solon Barocas ea, *Governing algorithms: a provocation piece*, artículo, Universidad de NY, 2013). Hasta hace bien poco, la gente podía decidir no tomar parte de una sociedad algorítmica, tal y como explica Dave Eggers en su novela *The Circle*. Por el contrario, hoy en día aceptamos ampliamente comunicar nuestra información personal a cambio de poder utilizar gratuitamente servicios digitales, tales como I-cloud, Googledocs, Spotify, Gps o cualquier otra aplicación de nuestro móvil. Su presencia es tan ubicua y, al mismo tiempo, tan invisible que muchos

## ALGORITMOAK ISTORIO-KONTALARI

Algoritmoak nolabaiteko mito moderno bilakatu zaizkigu. Edonola ere, gisa horretako ordenamenduen izaera eta ondorioak ez daude batere argi. Zer “egiten” dute, xuxen, algoritmoek? Zer paper egokitzen zaie “algoritmoei” gure eztabaidetan? Nola bilaka dezakegu “algoritmoen arazoa” ikerketa emankor baterako bazka? (Solon Barocas ea, *Governing algorithms: a provocation piece*, artikulua, NYko Unibertsitatea, 2013). Orain dela gutxira arte, jendeak aukera zeukan algoritmo-gizarte batean parte hartzeari uko egiteko; hain zuzen, Dave Eggers idazleak *The Circle* eleberrian deskribatzen duen moduan. Orain, ordea, gehien-gehienok onartu egiten dugu baldintza, eta gure informazio pertsonala ematen dugu, zerbitzu digitalak dohainik erabiltze aldera, hala nola I-cloud, Googledocs, Spotify, Gps edo gure mugikorrean daukagun edozein aplikazio erabiltzeko. Horien presentzia hain da nonahikoa, eta, aldi berean, tresnok hain dira ikusezinak, ezen erabiltzaileak, sarritan, ezjakin

**Taller: del 30 de noviembre al 2 de diciembre de 2015**
**Charla: 2 de diciembre de 2015**
**consonni, Bilbao**

**Tailerra: 2015eko azaroaren 30tik - abenduaren 2ra**
**Hitzaldia: 2015eko abenduak 2**
**consonni, Bilbao**

usuarios se sienten ignorantes y desvalidos ante la interacción con dichas tecnologías.

Como seres humanos, nos enfrentamos al gran reto de cómo interactuar conscientemente con estos algoritmos, de manera que nos empoderen y nos permitan buscar su naturaleza democrática. El ojo panóptico de los algoritmos nos pide nuevos tipos de historias y experiencias, y mediante dicha petición nos revela cuáles son sus perspectivas específicas. An Mertens investiga las formas literarias del juego, la escritura y la narración de historias para así poder crear puentes entre el mundo abstracto de la informática y las historias concretas que nos son imprescindible a nosotros, los humanos, para enfrentarnos a estos nuevos fenómenos. Para el taller nos propone un marco teórico mediante el cual los participantes podrán dialogar con una selección de algoritmos, jugando con ellos, experimentando y discutiendo su estructura o acercándose a ellos como sistemas que pueden ser hackeados.

**An Mertens** es artista y escritora. Es miembro del núcleo de Constant, una organización de artistas afincada en Bruselas que trabaja el arte y los medios de comunicación, centrándose en el software libre, las metodologías feministas y la cultura libre. Mediante Constant An ha puesto en marcha proyectos sobre cómo los algoritmos y códigos transforman la creación (literaria). Dichos proyectos han dado pie a publicaciones impresas, instalaciones, marchas y performances. En septiembre del 2013 publicó su novela experimental *Tot Later*, con la editorial De Bezige Bij Antwerpen. An da cuenta de su propio trabajo en la web paramoulipist.be, cuyo título es una declaración de amor a los parámetros y a la práctica Oulipiana.

eta botererik gabe sentitzen baitira, teknologia berri hauekiko harremanean.

Erronka handi baten aurrean gaude, gizaki gisa: nola jar gaitezke harremanetan algoritmo hauekin, kontzienteki, boteretuko gaituzten moduetan eta algoritmoon izaera demokratikoa bilatzeko aukera emango diguten moduetan? Algoritmoen begi panoptikoak istorio eta esperientzia mota berriak eskatzen ditu, eta horrek ageriko egiten ditu bere ikuspegi zehatzak. Jolasteko, idazteko eta istorioak kontatzeko forma literarioak aztertzen ditu An Mertensek, zubiak eraikitzeko asmoz, honako bi alderdi hauen artean: informatikaren mundu abstraktua eta fenomeno berri hauei aurre egiteko guk gizakiok behar ditugun istorio zehatzak. Tailerrerako proposatzen duen marko teorikoaren bidez, parte-hartzaileak harremanetan jar daitezke algoritmo-sorta batekin, horien jolasean barneratuz, beren egiturak biziz eta eztabaidatuz, edo hackeatu daitezkeen sistematzat hartuz.

**An Mertens** idazlea eta artista da. Constant antolakundeko muin-muineko kidea da; erakunde horrek Bruselan du egoitza, artistek kudeatzen dute, eta artea eta komunikabideak jorratzen dituzte, software librean, metodologia feministetan eta kultura askean arreta ipinita. Constant-en bidez, Anek ikerketa-proiektuak jarri ditu martxan, aztertzeko ea algoritmoek eta kodeek nola eraldatzen duten (literatur) sorkuntza. Ikerketa horien ondorioz hainbat ekimen egin dira: argitalpenak, instalazioak, martxak eta performanceak. 2013ko irailean, *Tot Later* eleberri esperimentala kaleratu zuen Anek, De Bezige Bij Antwerpen argitaletxearen eskutik. Horrez gain, bere lanaren berri ematen du paramoulipist.be webgunean, eta izenburuak berak argi uzten duen moduan, Anek maite ditu parametroak eta praktika Oulipiarrak.



El nuevo disco de la músico y activista saharaui Aziza Brahim, Abbar el Hamada (A través de la Hamada), es una imponente y compasiva declaración musical sobre y para la época turbulenta que vivimos. Nacida en un campamento de refugiados saharauis en el desierto de Argelia y afincada en el exilio desde hace más de dos décadas (primero en Cuba y actualmente en Barcelona), la vida de Brahim y su música encarnan tanto la tragedia como las esperanzas de la experiencia diaria de refugiados y migrantes. Como los muros y las fronteras se están levantando de nuevo a lo largo de Europa y otros rincones del mundo, la resistencia poética cantada apasionadamente por Aziza Brahim es especialmente oportuna y política.

Aziza Brahim actúa acompañada de Guillem Aguilar al bajo y Pep Mendoza a la guitarra.

Musikari eta aktibista sahararra da Aziza Brahim. Disko bat kaleratu berri du, Abbar el Hamada [Hamadan zehar]: sekulako musika-adierazpena da, konpasioz betea, eta bizi dugun garai nahasia du hizpide eta helburu. Errefuxiatu-esparru saharar batean jaio zen Brahim, Argeliako desertuan, baina deserrian bizi izan da azken bi hamarkada luzeetan (lehenik, Kuban; gaur egun, Bartzelonan). Brahimen bizitzak eta musikak errefuxiatuen eta migranteen eguneroko tragedia haragiztatzen dute, bai eta haien itxaropenak ere. Europan eta munduko beste toki batzuetan, berriz ari dira altxatzen murruak eta harresiak, hortaz, Aziza Brahimen erresistentzia poetikoa, pasio biziz kantatzen baitu, bereziki da aproposa eta politikoa.

Aziza Brahimek beste bi musikaririkin batera kantatuko du: Guillem Aguilarrek baxua joko du, eta Pep Mendozak, berriz, gitarra.



# AZIZA BRAHIM

**Radio Symposium**
**Concierto. 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Kontzertua. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

# BANI BRUSADIN

## ESFERA PÚBLICA TROLL

En la era de los *mass media fakes* (las farsas que circulan por los medios de comunicación de masas, características de la cultura digital), los chistes y las bromas han demostrado su capacidad para interferir con las formas de distribución de conocimiento normalizadas y verticales (producidas desde arriba hacia abajo). Inventar eventos inexistentes, crear identidades impropias o manipular y desviar los mensajes de los medios de comunicación han sido tácticas creativas adoptadas por igual por artistas y activistas para confundir a las autoridades y los sectores menos atentos de la audiencia. Estos sutiles (o no tan sutiles) asaltos simbólicos a la legitimidad de los medios han buscado provocar reacciones inconcebibles en otras circunstancias y re-abrir una esfera pública disminuida e intoxicada por los grandes intereses políticos y económicos. ¿Pero qué ocurre con estas tácticas en la era de Google, Wikipedia, las redes sociales y el control de datos? ¿Cómo pueden episodios de confusión transitoria ser subversivos en unos tiempos de sobredosis informativa? ¿Cómo pueden los juegos de identidad ser emancipadores en un contexto en el que cada paso es




rastreado, en todo momento, en todo lugar y aparentemente para siempre? (Y por cierto ¿cómo podría el arte, en semejante escenario, marcar algún tipo de diferencia?).

**Bani Brusadin** es investigador y productor cultural independiente en aquellas aguas turbulentas donde se mezclan el arte contemporáneo, las tecnologías de red, las culturas populares y la política. En los últimos 15 años ha participado en varios proyectos de arte y activismo. Desde el 2004, junto con los artistas Eva y Franco Mattes, dirige *The Influencers* (http://TheInfluencers.org/), un festival dedicado a formas no convencionales de arte y comunicación. Desde 2014 *The Influencers* forma parte del proyecto europeo *Masters & Servers* (http://mastersandservers.org/). Bani es profesor asociado de la Universidad de Barcelona y colaborador regular de la Escuela Elisava.

**Seminario. Sesión #1**
**Jueves 29 de octubre de 2015**
**Bizkaia Aretoa, Bilbao**

## ESPARRU PUBLIKO “TROLL”-A

Masa-komunikabideen gailurra bizi dugun honetan, iruzurrak, engainuak eta ziriak tresna eraginkor bihurtu dira jakintzaren hedapen arrunt eta goitik-beherakoa oztopatzeko. Artista eta aktibistek, sormen-taktikak erabilita, existitzen ez ziren gertakariak asmatu dituzte, identitate desegokiak sortu eta komunikabideetako mezuak itxuragabetu dituzte, agintariak edo ikusle oharkabeak nahasteko asmoz. Masa-komunikabideen zilegitasunaren aurkako eraso sinboliko sotil (eta ez hain sotil) horien helburua zera zen: beste modu batean pentsaezinak liratekeen erreakzioak sortzea eta esparru publikoa atzera irekitzea, txikiagotzen ari baita, neurri handiko interes politiko eta ekonomikoek pozoituta. Baina, zer gertatzen zaie taktika horiei gure garaiotan, Google, Wikipedia, sare sozial eta informazioaren kontrol nonahikoaren sasoiotan? Nola bilaka daiteke behin-behineko nahasmendua benetan iraultzaile, gehiegizko informazioaren aro honetan? Nola bilaka daiteke identitatea askatzaile, testuinguru batean zeinean mugimendu oro erregistratzen baita, une oro, nonahi eta, antza denez, betirako? (Eta, bide batez, nola eragin lezake arteak gisako egoera batean?).

**Bani Brusadin** ikerlaria eta kultur ekoizle independientea da, arte garaikideak, sare-teknologiek, herri kulturak eta politikak bat egiten duten ur uherretan. Azken 15 urteotan hainbat arte eta aktibismo-proiektutan parte hartu du. 2004az geroztik, *The Influencers* (http://TheInfluencers.org/) jaialdia zuzentzen du, Eva eta Franco Mattes artistekin batera; hain zuzen, arte eta komunikazio-modu ez-konbentzionalak dira jaialdi horren ardatza. 2014az geroztik, *Masters & Servers* (http://mastersandservers.org/) proiektu europarraren parte da *The Influencers* jaialdia. Bani irakasle elkartua da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Elisava eskolarekin elkarlanean aritzen da.

**Mintegia. #1 Saioa**
**2015eko urriak 29, osteguna**
**Bizkaia Aretoa, Bilbo**

# BELÉN GOPEGUI

**Radio Symposium**
**Conversación. 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia**

——— Madrid 1963. Licenciada en Derecho por la Universidad Autónoma de Madrid. Alumna de filosofía de Juan Blanco. Ha publicado las novelas *La escala de los mapas* (1993), *Tocarnos la cara* (1995) *La conquista del aire* (1998) *Lo real* ( 2001) *El lado frío de la almohada* (2004), *El Padre de Blancanieves* (2007), *Deseo de ser punk* (2009), en la editorial Anagrama y *Acceso no autorizado* (2011) y *El comité de la noche* (2014) en Penguin Random House. En SM ha publicado *El balonazo* (2008), *El día que mamá perdió la paciencia* (2009) *El amigo que surgió de un viejo ordenador* (2012) y *El blog de la verdad extraordinaria*, este último junto con Luis Ruiz de Gopegui. En Foro Complutense, la conferencia *Un pistoletazo en un concierto* y en UDP una recopilación de sus ensayos titulada *Rompiendo algo* (2014). Ha colaborado en el guión de *La suerte dormida*, dirigida por Ángeles González-Sinde. Es autora del guión de *El principio de Arquímedes*, dirigida por Gerardo Herrero, quien también dirigió *Las razones de mis amigos*, basada en la novela *La conquista del aire*. Ha escrito la pieza teatral *El coloquio* en colaboración con Unidad de Producción Alcores. Su último libro es el cuento para niñas y niños *Mi misión era acercarme a Miranda* (2015), publicado por Ecologistas en Acción.

De tanto en tanto, escribe artículos en diversos medios.

——— Madril, 1963. Zuzenbidea ikasi zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Juan Blancoren filosofia-ikasle izan zen. Honako eleberri hauek argitaratu ditu: *La escala de los mapas* (1993), *Tocarnos la cara* (1995), *La conquista del aire* (1998), *Lo real* (2001), *El lado frío de la almohada* (2004), *El Padre de Blancanieves* (2007) eta *Deseo de ser punk* (2009), denak ere Anagrama argitaletxearen eskutik. *Acceso no autorizado* (2011) eta *El comité de la noche* (2014) eleberriak argitaratu ditu, berriz, Penguin Random House etxearen eskutik. Horrez gainera, SM argitaletxean ere hainbat lan kaleratu ditu, hala nola *El balonazo* (2008), *El día que mamá perdió la paciencia* (2009), *El amigo que surgió de un viejo ordenador* (2012) eta *El blog de la verdad extraordinaria*. Azken hori elkarlanean idatzi zuen, Luis Ruiz de Gopeguirekin batera. Foro Compluteseren eskutik, *Un pistoletazo en un concierto* hitzaldia plazaratu du, eta UDP argitaletxean, berriz, *Rompiendo algo* (2014) artikulu-bilduma. Zineman ere aritu da: Ángeles González-Sinde zuzendariaren *La suerte dormida* filmeko gidoia idazten ibili zen. *El principio de Arquímedes* filmeko gidoia ere berea da. Gerardo Herrerok zuzendu zuen film hori, hain zuzen, zuzendari horrek berak ondu zuen *Las razones de mis amigos* lana, Gopeguiren eleberri bat oinarri: *La conquista del aire*. Antzezlan bat idatzi zuen, *El coloquio*, Unidad de Producción Alcores taldearekin elkarlanean. Azkena, haurrentzako ipuin bat kaleratu du, *Mi misión era acercarme a Miranda* (2015), Ecologistas en Acción elkartearen eskutik.

Tartean behin, artikuluak idazten ditu, hainbat komunikabidetan.



# CRISTINA GARRIDO — JULIA MORANDEIRA




## ESFERA PÚBLICA DESDE LAS PRÁCTICAS ARTÍSTICAS

Les acompañan una serie de profesionales locales invitadas, Ricardo Antón Troyas, Arantza Lauzirika, Oihane Ruiz, Peio Agirre, Nancy Garin y June Fernández para reflexionar sobre la capacidad del arte de crear esfera pública y analizan proyectos artísticos como casos de estudio. También se realiza una deriva por la ciudad de Donostia en colaboración con el colectivo de arquitectura Maushaus, Mikel Mazkiaran de SOS Racismo y Edurne Aperribay, arquitecta y miembro del Foro Mujeres y Ciudad. Además, se realiza un streaming en directo de las conferencias del encuentro internacional Creative Time Summit Stockholm, en Estocolmo.

**Cristina Garrido**. Investigadora, crítica y trabajadora inmaterial. Su investigación se centra en la interacción entre la creatividad y las problemáticas sociales, culturales y políticas, generalmente en espacios urbanos y en Internet. Está interesada en analizar cómo la creatividad puede

**Prólogo de presentación del**
**Laboratorio Esfera Pública**
**S.4 Cristina Garrido y Julia Morandeira -**
**Esfera pública desde las prácticas artísticas**
**Taller: 14 y 15 de noviembre de 2014**
**Sukaldea, Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

## EREMU PUBLIKOA PRAKTIKA ARTISTIKOETATIK BEGIRATUTA

Les acompañan una serie de profesionales locales invitadas, Ricardo Antón Troyas, Arantza Lauzirika, Oihane Ruiz, Peio Agirre, Nancy Garin y June Fernández para reflexionar sobre la capacidad del arte de crear esfera pública y analizan proyectos artísticos como casos de estudio. También se realiza una deriva por la ciudad de Donostia en colaboración con el colectivo de arquitectura Maushaus, Mikel Mazkiaran de SOS Racismo y Edurne Aperribay, arquitecta y miembro del Foro Mujeres y Ciudad. Además, se realiza un streaming en directo de las conferencias del encuentro internacional Creative Time Summit Stockholm, en Estocolmo.

**Cristina Garrido**. Ikertzaile, kritikari eta langile inmateriala. Bere ikerketa lanak sormena eta problematika sozial, politiko eta kulturalean arteko elkarreragina aztertzen du, gune hiritarretan eta interneten. Egun indarrean dauden errealitateak kolokan jartzeko tresna gisa ikertzen du

**Esparru publikoaren laborategia**
**aurkezteko hitzaurrea**
**S.4 Cristina Garrido eta Julia Morandeira —**
**Esparru publikoa, arte-praktikak abiapuntu**
**Tailerra: 2014ko azaroaren 14a eta 15a**
**Sukaldea, Tabakalera, Donostia**



ser una herramienta para cuestionar -o incluso alterar- realidades contemporáneas dominantes. En los últimos 10 años ha trabajado como investigadora y comisaria para varios proyectos relacionados con el arte y el espacio público, en diferentes organizaciones internacionales, como IDENSITAT (Barcelona); el Centre for Urban and Community Research (CUCR) Goldsmiths University (London); Birkbeck (London); la South London Gallery (London); el Centre for Possible Studies, en la Serpentine Gallery, (London); Franklin Furnace Archive (New York); o el CCCB (Barcelona).

**Julia Morandeira Arrizabalaga** (licenciada en Humanidades por la UPF, Barcelona y máster en Culturas Visuales por Goldmiths College, Londres) es investigadora y comisaria independiente.

Su trabajo lidia con cuestiones ligadas a la geografía y teoría postcolonial, la imagen en movimiento y los dispositivos de producción cultural, así como su inscripción en tanto que lugares de producción de conocimiento. Es además miembro de Declinación Magnética, un grupo de investigación y producción artística cuyo trabajo parte de la toma de conciencia de los estudios decoloniales y se interesa en la hibridación de metodologías. Como investigadora, es miembro del grupo Península del MNCARS, y es profesora invitada en el master de ciencias sociales y de la comunicación de la UPV/EHU Actualmente es comisaria residente en la fundación Kadist de París dónde desarrolla el proyecto Canibalia. Entre otros proyectos previos destacan la dirección de LOOP (2011-2013), el comisariado del Pabellón de Barcelona en la 9ª Bienal de Arte Contemporáneo de Shanghai o la exposición Ampliación del Campo de Batalla en el Centro Cultural Montehermoso.

sormena. Azken hamar urtetan ikerlari eta komisario gisa jardun du artea eta espazio publikoa oinarri zituzten hainbat proiektutan eta erakundetan: IDENSITAT (Bartzelona); Centre for Urban and Community Research (CUCR) Goldsmiths University (London); Birkbeck (London); South London Gallery (London); Centre for Possible Studies, en la Serpentine Gallery, (London); Franklin Furnace Archive (New York); eta CCCB (Bartzelona).

**Julia Morandeira Arrizabalaga** (Gizarte Zientzietan lizentziatua Bartzelonako UPFn eta Londoneko Goldmiths Collegen Ikusizko Kulturan masterduna) ikertzailea eta komisario independentea da.

Bere lanak geografia eta teoria postkoloniala lantzen ditu, mugimendudun irudia eta ekoizpen kulturalean erabiltzen diren dispositibo ezberdinak. Horiek guztiak zagutza sortzen duten lekuetan nola txertatzen diren ere aztertzen du bere jardueran. Declinación Magnética ikerketa eta sorkuntza taldeko kidea ere bada, ikerketa dekolonialak eta metodologien hibridazioa dira taldearen lanaren oinarriak. Ikertzaile gisa, MNCARS-eko Península taldeko kidea da, eta UPV/EHUko Giza zientzia eta Komunikazio masterrean irakasle gonbidatua. Egun, Pariseko Kadist fundazioko komisario egoiliarra da, Canibalia proiektua garatzen ari da bertan. Bere lanen artean aipagarriak dira LOOP (2011-2013), Bartzelonako pabiloia komisariatu izana Shangaiko 9. Arte Garaikide Bienalean eta Montehermoso kultura zentroan “Campo de Batalla” erakusketaren zabaltzea.

Doctor en Historia y Teoría del Arte por la Universidad de Essex en Gran Bretaña, crítico, comisario e investigador de la Universidad Nacional Autónoma de México, actualmente ejerce de curador jefe del Museo Universitario Arte Contemporáneo (MUAC). Ha sido Curador Asociado de Tate Modern en Londres, curador en jefe de la Bienal Manifesta 9 en Genk (Bélgica) y premio Walter Hopps de Mérito Curatorial. Entre sus proyectos destacan *Cuando la fe mueve montañas* de Francis Alÿs, *20 Million Mexicans can´t be wrong* (South London Gallery, 2002), *La era de la discrepancia: Arte y cultura visual en México 1968-1997*, el proyecto de Teresa Margolles para el Pabellón mexicano en la bienal de Venecia 2009, *El espectro rojo. Fetiches críticos. Residuos de la economía general*, *El ideal infinitamente variable de lo popular* de Jeremy Deller (CA2M, Madrid) o *L'1% c'est moi* de Andrea Fraser (Macba, Barcelona).

Artearen Historian eta Teorian doktorea Britainia Handiko Essexeko Unibertsitatetik, kritikoa, komisarioa eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko ikertzailea. Gaur egun, kuradore-burua da Arte Garaikideko Unibertsitate Museoan (MUAC). Londresen Tate Moderneko kuradore laguntzailea eta Genkeko Manifesta Bienalean kuradore-burua (Belgika) izan da, eta Kuradore Merituko Walter Hopps saria jaso du. Bere proiektuen artean hauek dira azpimarragarrienak: Francis Alysen *Cuando la fe mueve montañas*, *20 Million Mexicans can´t be wrong* (South London Gallery, 2002), *La era de la discrepancia: Arte y cultura visual en México 1968-1997*, Teresa Margollesek 2009an Veneziako Bienalerako egindako proiektua, *El espectro rojo. Fetiches críticos. Residuos de la economía general*, Jeremy Dellerren *The Infinitely Variable Ideal of the Popular / Herrikotasunaren ideal infinituki aldakorra* (CA2M, Madril) eta Andrea Fraser-en *L'1% c'est moi* (Macba, Bartzelona).

Fotografía / Argazki: David Franco.



# CUAUHTÉMOC MEDINA

Radio Magazine
Conversación, 22 de junio de 2016
Azkuna Zentroa, Bilbao

Radio Magazine
Elkarrizketa. 2016ko ekainak 22
Azkuna Zentroa, Bilbo



Danele Sarriugarte es licenciada en traducción e interpretación por la Universidad del País Vasco. En 2014 publicó una novela, *Erraiak*, gracias a la beca Igartza, con gran acogida de crítica y público. Colabora con varios medios de comunicación como crítica literaria, articulista y columnista. Ha traducido varios libros al euskera, entre ellos una antología poética de Audre Lorde y la crónica *Sekula gehiago egingo ez dudan gauza ustez dibertigarri bat*, de David Foster Wallace. Vive en Donostia y trabaja como periodista y traductora autónoma. Le interesan la crítica cultural y los feminismos.

Danele Sarriugarte Itzulpengintzan eta Interpretazioan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatetik. 2014an *Erraiak* eleberria argitaratu zuen Igartza bekari esker, kritikaren eta irakurleen harrera oso onarekin. Hainbat hedabidetan lankidetzan aritzen da, literatura-kritikari, artikulugile eta zutabegile lanetan. Zenbait liburu itzuli ditu euskarara, horien artean, Audre Lorderen antologia poetiko bat eta David Foster Wallacen *Sekula gehiago egingo ez dudan gauza ustez dibertigarri bat*. Donostian bizi da, eta kazetari eta itzultzaile autonomo aritzen da. Kultura-kritika eta feminismoak interesatzen zaizkio.



Fotografía / Argazki: Peru Iparragirre.

# DANELE SARRIUGARTE

Radio Magazine
Conversación. 22 de junio de 2016
Azkuna Zentroa, Bilbao

Radio Magazine
Elkarrizketa. 2016ko ekainak 22
Azkuna Zentroa, Bilbo

# DANIEL GARCÍA ANDÚJAR

*Nueva producción*
*Ekoizpen berria*

## EL CUERPO RESPONDE

El cuerpo es una maquinaria única, cuya capacidad de procesar cantidades ingentes de información se ve cada día ampliada por las tecnologías de información, comunicación, biológicas y mecánicas. El panóptico electrónico es doble: el cuerpo productor, consumidor, emisor y receptor es a la vez vigilante y vigilado. Preso de una maraña hiperconectada, tejida con códigos y fórmulas matemáticas de la que es incapaz de huir, es también un cuerpo que se rebela, que lucha por crear espacios de resistencia a un sistema de estándares y estereotipos. Intenta salir de los discursos unilaterales, que niegan la participación o la gestión colectiva, y convertirlos en procesos de emancipación. Interactuando como medio, el cuerpo se integra en el mecanismo de transmisión de la información y su transformación en

**Radio Symposium**
**Performance y conversación.**
**28 de Octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

## GORPUTZAK ERANTZUN

Makina berdingabea da gorputza: informazio-kopuru itzelak prozesatu ditzake, gero eta gehiago, izan ere, egunez egun zabaltzen dira informazio- eta komunikazio-teknologiak, hala biologikoak nola mekanikoak. Bikoitza da panoptiko elektronikoa: gorputza ekoizlea da, eta kontsumitzailea, igorlea eta hartzailea; zelatatu egiten du, eta zelatatu egiten dute, aldi berean. Preso dago amaraun hiper-konektatu batean, eta matematika-kode eta -formulekin ehundua baitago, ezin dio ihes egin; hala ere, gorputz hori matxinoa ere bada, eta borroka egiten du, estandar eta estereotipoz betetako sistema baten aurrean erresistentzia-esparruak sortzeko. Alde bakarreko diskurtsoetatik atera nahi du, parte hartzea eta taldean kudeatzea eragozten baitute, eta burujabetza-prozesu bihurtu nahi ditu. Bitartekaria den heinean, informazioa

**Radio Symposium – Gorputzak erantzun**
**Performance eta elkarrizketa.**
**2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**



conocimiento, hasta el punto de que podemos hablar también de una nueva era en términos de su participación e interpretación de los procesos de conformación de la realidad.

El conocimiento matemático (presente en los algoritmos que gobiernan la red) es un constructo y, como tal, se re-edifica sobre sí mismo. Todo lo que somos capaces de construir, seremos capaces de modificar. Este cuerpo extendido se convertirá en un lugar estratégico de resistencia a las interpretaciones estandarizadas de los medios de comunicación como maquinaria de control y mediación del capitalismo. La reacción del cuerpo al bombardeo de noticias evidencia su capacidad de tensión y resistencia. La enunciación de la noticia se concibe como pregunta y no hecho consumado, como código abierto y no como estructura matemática predefinida. El sujeto de la institución que contiene el experimento, el contenedor que alberga el cuerpo, se manifiesta, no como una esfera estética aislada, sino como una estructura conectada con la sociedad circundante.

**Daniel G. Andújar**, (Almoradí, España, 1966) es un artista visual, teórico y activista que trabaja y vive en Barcelona. Andújar cuestiona, mediante la ironía y la utilización de estrategias de presentación de las nuevas tecnologías de la comunicación, las promesas democráticas e igualitarias de estos medios y critica la voluntad de control que esconden detrás de su aparente transparencia. Partiendo de la constatación que las nuevas tecnologías de la comunicación están transformando nuestra experiencia cotidiana, Daniel G. Andújar crea una ficción (*Technologies To The People*, 1996) con el fin de hacernos tomar conciencia de la realidad que nos rodea y del engaño de unas promesas de libre elección que se convierten,

transmititzeko eta informazio hori jakinduria bihurtzeko mekanismoan txertatzen da gorputza, hain sakon txertatu, ezen, esan baitezakegu aro berri batean gaudela, gorputzak inoiz ez bezala parte hartzen eta interpretatzen baititu errealitatea sortzeko prozesuak.

Matematika-jakintza eraikuntza bat da, eta, ondorioz, bere buruaren gainean eraikitzen da behin eta berriz (sarea gobernatzen duten algoritmoetan dago presente, adibidez). Eraiki dezakegun oro aldatu dezakegu. Gure gorputz hedatu hauek erresistentzia-gune estrategiko bihurtuko dira, komunikabideen interpretazio estandarizatuen aurrean, kontrol-makina eta kapitalismoaren bitartekari baitira. Gorputzak nola erantzuten dion albisteen bonbardaketari, horrek erakusten digu gorputza gai dela tentsioari eusteko eta aurre egiteko. Albistearen adierazpena galderatzat jotzen da, eta ez egitate burututzat, kode irekitzat, eta ez matematika-egitura aurrez ezarritzat. Esperimentua hartzen duen instituzioko subjektua, gorputza hartzen duen edukiontzia, ez da esparru estetiko bakartu bat, baizik eta inguruko gizartearekin lotuta dagoen egitura bat.

Artista bisuala, teorialaria eta aktibista da **Daniel G. Andújar** (Almoradí, Espainia, 1966); Bartzelonan bizi da, eta han egiten du lan. Andújarrek bi tresna baliatzen ditu, ironia eta komunikatzeko teknologia berrien aurkezpen-estrategiak, eta, horien bidez, zalantzan jartzen ditu komunikabide berrien demokrazia- eta berdintasun-promesak, eta kritika egiten die: itxuraz gardenak izan arren, kontrolatzeko grina daukate. Abiapuntua: komunikatzeko teknologia berriak gure eguneroko bizipenak eraldatzen ari dira. Hortik tiraka, Daniel G. Andújarrek fikzio bat sortu du (*Technologies To The People*, 1996), hartara, gure kontzientzia

irremisiblemente, en nuevas formas de control y desigualdad. Miembro histórico de irational.org (referente internacional del arte en la red), fundador de *Technologies To The People* y director de numerosos proyectos en Internet como art-net-dortmund, e-barcelona.org, e-valencia.org, e-seoul.org, e-sevilla.org, e-stuttgart.org, postcapital.org, e-madrid.org, etc. Ha dirigido talleres para artistas y colectivos sociales en numerosos países.

piztu nahi du, inguruan daukagun errealitatea ikus dezagun eta jabetu gaitezen aukera-askatasunari buruzko promesak engainuzkoak direla, eta, kontrol eta ezberdintasuna dakartela, erremediorik gabe. irational.org taldeko kide historikoa da (arteari buruzko nazioarteko erreferente itzela, sarean), *Technologies To The People* eratu zuen, eta Interneteko hainbat proiektu zuzendu, hala nola art-net-dortmund, e-barcelona.org, e-valencia.org, e-seoul.org, e-sevilla.org, e-stuttgart.org, postcapital.org eta e-madrid.org. Artista eta gizarte-taldeentzako tailerrak ere zuzendu ditu, hainbat herrialdetan.





# DIBUJATOLRATO

Dibujatolrato es un grupo abierto y autogestionado, integrado por personas que comparten su pasión por el dibujo y se relacionan entre ellas y las comunidades de su entorno a través de la práctica de dibujar, en la calle y del natural. Nace de la iniciativa de poner en práctica actividades que ya se desarrollaban en otros lugares en torno a dibujar en colectivo. En 2014, con el apoyo logístico de Wikitoki, Bea y Josune comienzan los encuentros con la idea no sólo de realizar un ejercicio de dibujo en común, sino también de poner en valor su entorno: los barrios de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala, a través de esta actividad. Se reúnen todos los lunes en un lugar distinto para dibujar en los diversos pliegos con forma de acordeón que fabrica el mismo grupo.

Comparten todos sus dibujos y actividades en su web www.dibujatolrato.com.

Talde ireki eta autokudeatua da, eta gure pasioa den marrazketa partekatzen dugu. Gure artean erlazionatzeaz gain, bertako komunitateekin hartu-emana duten pertsonak ere bagara. Marrazteko praktikak, inguruko kale eta txokoetan izaten dira, baita Wikitoki-n modeloak marraztuz. Ekimen hau, beste hainbat lekutan bezala, taldeka marrazteko jarduerak gauzatzeko jaio da. 2014an, Wikitoki-ren (lankidetza-praktiketako eta ko-sorrerako espazio esperimentala) sostengu logistikoarekin, Bea eta Josuneren ekimenez lehenengo juntadizoak hasi ziren. Jarduera hauen xedea, ez da elkarrekin marrazketa ariketa bat egitea soilik, juntadizoek, La Vieja, San Francisco eta Zabala auzoetako balioa ere azpimarratu nahi dute. Astelehenero biltzen dira, aldiro toki batean, eta marraztu egiten dute. Horretarako, paperezko eskusoinuak sortzen dituzte taldekideek, eta paper horren tolesetan marrazten dute.

Dibujatolratoren webgunean haien marrazki eta ekimenak partekatzen dituzte: dibujatolrato.com



**Radio Magazine**
**22 de junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Symposium**
**28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Magazine**
**2016ko ekainaren 22an**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Symposium**
**2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

Elvira Dyangani Ose es profesora de Culturas Visuales en Goldsmith, curadora independiente y miembro del Consejo de Pensamiento de la Fondazione Prada. Recientemente, fue la curadora de la octava edición de la Bienal Internacional de Arte Contemporáneo de Goteburgo (GIBCA 2015), y curadora de Arte Internacional en el museo Tate Modern (2011 – 2014). Previamente, Dyangani Ose fue curadora en el Centro Atlántico de Arte Moderno y en el Centro Andaluz de Arte Contemporáneo, directora artística del Rencontres Picha, en la Bienal Lubumbashi (2013) y curadora invitada del SUD trianual, el Salón Urbano de Douala (2010). Sus proyectos curatoriales más prominentes son: *A Story Within A Story...* (2015), *Ibrahim El-Salahi: A Visionary Modernist* (2013), *Across the Board* (2012–2014), *Carrie Mae Weems: Social Studies* (2010), *Arte Invisible* (2009, 2010) y *Olvida Quien Soy/Erase Me From Who I Am* (2006).

Elvira Dyangani Ose irakaslea da, kultura bisualari buruzko eskolak ematen ditu Goldsmiths-en. Horrez gainera, Fondazione Pradan ere badabil, kuradore-lanetan eta Pentsatzeko Kontseiluaren barruan. Arte Garaikideko Nazioarteko Biurtekoa (GIBCA 2015) orain gutxi egin da, zortzigarren aldiz, eta bertako komisarioa izan da. Hori baino lehen, Tate Modern museoan ibili zen, nazioarteko arteko kuradore (2011-2014). Lehenago, Arte Modernoko Zentro Atlantikoan eta Arte Garaikideko Zentro Andaluziarrean jardun zuen, kuradore. Bestetik, arte-zuzendariaren lanetan aritu zen Rencontres Picha, Lubumbashi Biurtekoan (2013), eta, aldiz, hiru urtean behin egiten den SUD jaialdian (2010), kuradore gonbidatua izan zen. Hauexek dira bere kuradore-proiektu nagusiak: *A Story Within A Story...* (2015), *Ibrahim El-Salahi: A Visionary Modernist* (2013), *Across the Board* (2012–2014), *Carrie Mae Weems: Social Studies* (2010), *Arte Invisible* (2009, 2010), eta *Olvida Quien Soy/Erase Me From Who I Am* (2006).

# ELVIRA DYANGANI OSE



**Radio Symposium**
**Conversación. 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**



Ferran Barenblit (1968, Buenos Aires) es comisario y activista cultural. Estudió historia del arte en la Universidad de Barcelona y museología en la de New York. Ha sido asistente curatorial en The New Museum (Nueva York), comisario de l'Espai 13 de la Fundació Joan Miró, director del Centre d'Art Santa Mònica (Barcelona) y del CA2M (Madrid). Actualmente dirige el MACBA en Barcelona.

Ferran Barenblit (1968, Buenos Aires) komisarioa eta aktibista kulturala da. Artearen Historia ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitatean eta Museologia New Yorkekoan. Kuradore-laguntzailea izan da The New Museumen (New York), komisarioa Fundació Joan Miróren l'Espai 13 gunean, eta zuzendaria Centre d'Art Santa Monican (Bartzelona) eta CA2M zentroan (Madril). Gaur egun MACBAko zuzendaria da Bartzelonan.

# FERRÁN BARENBLIT



**Radio Magazine**
**22 de junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Magazine**
**2016ko ekainak 22**
**Azkuna Zentroa, Bilbo**

# GERARD ORTÍN

*Nueva producción*
*Ekoizpen berria*

**TRABESKA**

"La naturaleza, aquello cosificado y mítico, allá arriba

en las montañas, en nuestro ADN, en cualquier lugar;

que se disuelve cuando lo miramos directamente".

TIM MORTON, *Queer Ecology* (2010)

Arranque del programa LaPublika y declaración de intenciones de todo el proyecto. La propuesta de Gerard Ortín, *Trabeska*, parte del método del transect para reflexionar sobre conceptos como paisaje o territorio y sobre la tensión entre el mapa y la experiencia. El transect es un método con el que se delimita una porción de terreno para su estudio. Trazando una línea recta sobre un mapa y experimentando la tensión entre ésta y el lugar físico que ocupa. Al escrutar ese terreno, más que hallar un espacio, este se produce.

*Trabeska* propone una exploración a un espacio sin domesticar, fuera del camino, cruzando zonas con densa vegetación. Mediante el sonido se accede a un entorno cambiante. Una incursión a un espacio intervenido en el que el caminar pasa a ser una actividad de apropiación. La construcción simbólica del lugar y la experiencia física por éste funcionan a la vez como estímulo y como obstáculo. Lejos de presentar una idea bucólica o romántica del paisaje se trata de explorar su naturaleza evasiva. Aquello supuestamente intacto, "allá arriba en las montañas", originario, virginal e inocuo, ha quedado desgastado como punto de partida. Al mismo tiempo, *Trabeska* es la primera pieza sonora creada para el formato de radio online del proyecto, la radio-web LaPublika a la que se podrá acceder para experimentar este trabajo de otra manera muy distinta.

**Gerard Ortín** (Barcelona, 1988) es licenciado en Bellas Artes por la UB y cursó estudios en l'Aula de Música Moderna i Jazz (Conservatori del Liceu). Ha cursado un máster en el Sandberg Insituut (Ámsterdam) y actualmente vive y trabaja en Donostia. Combina la formación artística y musical a través de la experimentación en varios formatos audiovisuales, sonoros y performativos. Ha colaborado con el grupo Sons de Barcelona (UPF) y en el proyecto Voz Mal de Jaume Ferrete. Gerard Ortín es artista.

Su última performance *Vijfhoek* producida en el marco del Festival Of Choices (Ámsterdam, 2015) consistía en una serie de rutas "hápticas" en torno a la idea de toxicidad en la naturaleza. Anteriormente realizó la performance *Intravia* en BCN Producció (2012) y la Secció Irregular – Mercat de les Flors (2014) con la que proponía una serie de itinerarios nocturnos en la Serra de Collserola (Barcelona) y concluía un trabajo específico de 4 años en torno a esa zona.

**Ruta a través del bosque,**
**performance e intervención artística**
**18 de octubre de 2015**
**Besaide**

**TRABESKA**

"Natura, objektu bilakatutako gauza mitiko hori; han goian mendietan, gure DNAn, edozein tokitan: parez pare begiratzen diogunean desegiten den hori".

TIM MORTON, *Queer Ecology* (2010)

LaPublika programaren abiapuntua eta proiektu osoaren asmo-adierazpena. Gerard Ortínen *Trabeska* proiektuak transect eredua du oinarri, eta helburu du "paisaia" edo "lurralde" bezalako kontzeptuen inguruan hausnartzea, eta maparen eta bizipenen arteko tentsioaren inguruan. Transect-aren bidez lur-eremu bat zedarriztatzen da, ondoren ikertzeko asmoz. Mapa baten gainean marra zuzen bat ipintzen da, eta, gero, marra horren eta marra horrek hartzen duen toki fisikoaren arteko tentsioa bizitzen da. Lur-puska hori miatzearen ondorioz, toki bat topatu baino, toki bat sortzen da.

*Trabeska*-k zera proposatzen dizu: bezatu gabeko espazioa ikertzea, bidetik kanpo, landarez bete-bete egindako eremuetan barrena ibiltzea. Soinuaren bidez, ingurune aldakor batean sartzen zara. Esku hartutako espazioan sartuta, horretan barrena ibiltzea jabetze-ekintza bat da. Tokiaren eraikuntza sinbolikoa eta esperientzia fisikoa bera aldi berean dira pizgarri eta traba. Ez da paisaiaren irudi bukoliko edo erromantiko bat aurkeztuko, aitzitik, asmoa da pasaiaren izaera iheskorra ikertzea. Ukitu gabe omen dagoen hori, "han goian, mendietan", jatorrizkoa, aratza eta kaltegabea: abiapuntu higatua da hori, honezkero.

**Gerard Ortín** (Bartzelona, 1988) Arte Ederretan lizentziaduna da, UBn, eta musika-ikasketak egin zituen l'Aula de Música Moderna i Jazz (Conservatori del Liceu) zentroan. Master bat egin du Sandberg Insituut-ean (Amsterdam) eta, gaur egun, Donostian bizi da, eta bertan egiten du lan. Formazio artistikoa eta musikala uztartzen ditu, hainbat euskarri uztartuz: ikus-entzunezkoak, soinua eta performancea. Sons de Barcelona (UPF) taldearekin elkarlanean aritu da, eta, baita ere, Jaume Ferreteren Voz Mal proiektuarekin. Gerard Ortín artista da.

**Ion Munduate y Blanca Calvo** inician una intensa colaboración artística en 1994 de la que surgen numerosas obras como son: *Mármara* (1994), *MMMM* (1995), *Sangre Grande* (1996), *Lucía con zeta* (1998), *LaSola* (1999), *Flyball, Boj de largo* (2000), *ASTRA TOUR* (2003-2004), *Extras de artificio* (2005), *BAT, Beautiful Animals Trying* (2006), *Sin título, en colores* (2010) y *Translation* (2013-2015). Localizan su práctica en los discursos del cuerpo cuyo medio es la inmaterialidad, proponiendo obras que aparecen como la transformación de actos y la producción de significado a través de una situación transitoria.

En paralelo, y preocupados por lo huecos que no cubre el contexto de ese momento, conciben Mugatxoan en 1998, que se desarrollará en Arteleku (Donostia/San Sebastián) y posteriormente también en Fundação de Serralves (Porto). Un proyecto de formación dedicado a la investigación y creación artística que ofrecía las condiciones necesarias para que procesos que no se adecuaban a los sistemas tradicionales de producción y de los patrones de trabajo establecidos, tuvieran un lugar. A partir de 2011 deciden modificar la estructura habitual de Mugatxoan y abordar proyectos por bloques de materia. El primero de ellos es Cuando el cuerpo desaparece que se extiende en varias fases y con dos ejes de trabajo: auto-reflexividad y sonido como medio de des-materialización. En 2015 reciben por Mugatxoan el premio Gure Artea como reconocimiento a la actividad realizada en el ámbito de las artes visuales.

LaPublika irrati-simposiumaren barruan, irratiari helduko dio berriz *Itzultzen ari gara* proiektuak, eta, hala, "airean egotearen" ideia hori aztertuko, barruaren eta kanpoaren arteko harremana. Gauzen ordena aldatzearekin lotuta dago jarrera hori, gailuak apurtu nahi ditu, mugimenduak (mugimendua) beren materialtasun propiotik askatze aldera; orainaren gainetik egin nahi du "jauzi", hartara, beste espazio batean zintzilikatzeko, beste denbora batean, beste orainaldi batean.

1994an hasi ziren Ion Munduate eta Blanca Calvo elkarrekin lan egiten, eta arte-ibilibide oparoa osatu dute; besteak beste, honako obra hauek ondu dituzte: *Mármara* (1994), *MMMM* (1995), *Sangre Grande* (1996), *Lucía con zeta* (1998), *LaSola* (1999), *Flyball, Boj de largo* (2000), *ASTRA TOUR* (2003-2004), *Extras de artificio* (2005), *BAT, Beautiful Animals Trying* (2006) *Sin título, en colores* (2010) eta *Translation* (2013-2015). Gorputzaren diskurtsoekin egiten dute lan, inmaterialtasuna baliabide, eta, beren obretan, behin-behineko egoera bat hartzen dute, eta, horren bidez, ekintza eraldatu eta esanahiak sortu.

1998an, Mugatxoan sortu zuten, garai horretako testuinguruaren hutsuneekin kezkatuta baitzeuden. Lehenengo, Artelekun garatu zuten proiektua (Donostia), eta, gero, baita Fundação de Serralves fundazioan ere (Porto). Hezkuntza-proiektua da, ikerketa eta sormen artistikoa jorratzen ditu, eta baldintza egokiak eskaintzen zituen, hartara, ekoizpen- eta lan-irizpide tradizionalekin moldatzen ez ziren prozesuak mamitu zitezen. 2011tik aurrera, Mugatxoan-en ohiko egitura aldatu zuten, eta proiektuei heltzen hasi ziren, eduki-blokeka. Lehenengoa: Cuando el cuerpo desaparece. Hainbat fase izan zituen, eta bi lan-ardatz: auto-hausnarketa eta soinua, des-materializatzeko bide moduan. 2015ean Gure Arte saria jaso zuten, Mugatxoan proiektuari esker: arte bisualen alorrean egindako lanari aitortza.



Giulia Loli es música, productora y artista. Comenzó tocando el chelo y la batería cuando era una adolescente, en grupos de punk, experimental y free jazz, en la ciudad de Pittsburgh. Después volvió a empezar de cero en Nueva York y el Cairo, en grupos de hip-hop y jungle dj, y luego pasó a compartir estudio y escenario con artistas y músicos como, por ejemplo, Marc Ribot, Ikue Mori, Butch Morris, the Nile, Julia Kent, Morgan Craft... En 1995, fue pionera del estilo Baladi Breakbeat, desconocido hasta entonces. Ese mismo año fundó la productora Sa'aidi Hardcore Productions en Brooklyn, y el sello KMT BBB USA. Además, ha desarrollado un sonido instrumental intenso, expansivo y completamente sui generis.

Ha trabajado como ingeniera jefe y productora en el estudio G.G.S.S/Rocca AlMileda Studio, tanto en el estudio fijo como en uno móvil, en Brooklyn, el Cairo, la Toscana y Ámsterdam, durante 20 años. Tras una larga temporada de grabación e investigación intensiva en el laboratorio-cueva Rocca AlMileda, en los bosques más remotos de Italia, ha vuelto recientemente a la atmósfera mundana, y reside en Ámsterdam.

"Instinto Oclusivo Polirítmico, Labrado Profundamente con Inscripciones Antiguas del Futuro hechas a Mano, Más allá de las modas. Anacronismo Intencionado para Una Nueva Danza. Nuevos Espirituales". "Más un lobo solitario que una miembro neoliberal de la alta sociedad del arte, se inspira en ideas afrocéntricas." (Thomas Glaesser).

Giulia Loli musikaria, ekoizlea eta artista da. Bide luzea egin du: nerabetan, Pittsburgh hirian, celloa eta bateria jotzen zituen punk/esperimental/jazz askeko taldeetan; gero, atzera hutsetik hasi zen New Yorken eta Kairon, hip-hop eta jungle dj arloko jendearekin lanean; ondoren, oholtzan eta estudioan aritu zen, askotariko artista eta musikaririkin, hala nola Marc Ribot, Ikue Mori, Butch Morris, the Nile, Julia Kent, Morgan Craft... Ondoren, aurrez sekula entzun gabeko Balabi Breakbeat estiloaren aitzindari bihurtu zen. 1995ean, ekoiztetxe bat sortu zuen, Sa'aidi Hardcore Productions, Brooklynen, eta baita argitaletxe bat ere: KMT BBB USA. Gainera, estilo instrumental oso berezi, intentso eta hedakorra ere landu du.

G.G.S.S/Rocca AlMileda Studio estudioan ibili da, ingeniari-buru eta ekoizle, eta lan horretan aritu da, 20 urtez, hainbat tokitan: Brooklyn, Kairo, Toskana eta Amsterdam. Bolada luzea egin du Rocca AlMileda laborategi-kobazuloan, gauzak grabatzen eta ikertzen, Italiako basorik urrunenetako batean. Hala ere, orain gutxi itzuli da munduko atmosferara: Amsterdamen dabil.

"Erritmo Anitzeko Sen Leherkaria, Etorkizuneko Idazkun Antzinakoak Sakon Zizelkatua, Eskuz egina, Modaz kanpo. Anakronismo Deliberatua, Dantza Berri baten Alde. Espiritualtasuna berri baten alde". "Goi-gizarteko kide neoliberala baino, otso bakartia; ideia afrozentrikoak iturri". (Thomas Glaesser).

# MUTAMASSIK

**Radio Symposium**
**Conversación y concierto.**
**28 de octubre de 2016**
**Tabakalera y Dabadaba,**
**Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa eta kontzertua.**
**2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera eta Dabadaba,**
**Donostia-San Sebastián**

Fotografía / Argazkia:
Christopher Pike.



Niño de Elche es un cantaor atípico. Artista multidisciplinar, combina el cante y el toque flamenco con la performance, la poesía, la libre improvisación, el minimalismo, la canción de autor, el canto en movimiento, el kraut rock, el ambient o la new wave. Ha editado trabajos discográficos tan dispares como *Mis primeros llantos* (2007), *Sí, a Miguel Hernández* (2013), *Las malditas órdenes del coronel* (2013) con el grupo de libre improvisación Seidagasa o *Voces del Extremo* (2015) en el que recoge textos de poetas contemporáneos, enmarcados en la llamada poesía de la conciencia. En 2011 crea junto al colectivo Bulos y Tanguerías el espectáculo *Vaconbacon, Cantar las fuerzas* sobre la pintura de Francis Bacon, y en 2016, *Raverdial* con el dúo DJ/VJ Los Voluble.

Ezohiko flamenko-kantaria da Niño de Elche. Hainbat alor jorratzen ditu: flamenko kantuarekin uztartzen ditu performancea, poesia, inprobisazio askea, minimalismoa, egile-abestiak, mugimendu-kantua, kraut rocka, ambient musika eta new wave musika, besteak beste. Hainbat disko argitaratu ditu, hala nola, *Mis primeros llantos* (2007), *Sí, a Miguel Hernández* (2013) eta *Voces del Extremo* (2015); azken horretan, hainbat poeta garaikideren lanak bildu ditu, kontzientziaren poesiaren korrontekoak. Horrez gainera, *Las malditas órdenes del coronel* (2013) diskoa kaleratu zuen Seidagasa inprobisazio askeko taldearekin batera. 2011n ikuskizun bat sortu zuen, Bulos y Tanguerías taldearekin batera, Francis Baconen margolanak ardatz: *Vaconbacon, Cantar las fuerzas*. 2016an *Raverdial* ikuskizuna sortu du, DJ/VJ Los Voluble bikotearekin batera.



# NIÑO DE ELCHE

**Radio Symposium**
**Conversación, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**



# NÚRIA GÜELL



## ¿DEMASIADA ESFERA PÚBLICA?

Después de una introducción a proyectos realizados, con la complicidad de diferentes colectivos, bajo un horizonte de transformación social y política, nos centramos en el último proyecto que ha sido cancelado por la propia institución estatal que lo encargó. A partir de este caso de estudio, discutimos sobre diferentes contradicciones de orden ético y político implícitas en instituciones/operaciones artísticas que pretenden generar esfera pública.

¿Dónde empieza y termina la responsabilidad de la institución, del artista y de los colaboradores? ¿Qué papel deben tener las instituciones culturales públicas? ¿Cuáles son sus límites? ¿Pueden permitirse evadir lo políticamente necesario por ser políticamente correctos? ¿Debe prevalecer el respeto al código moral por encima del compromiso con el real? En el taller debatimos, desde la teoría y la práctica, estas cuestiones junto a todas las que se consideraron oportunas.

## ESPARRU PUBLIKO GEHIEGI?

Egindako proiektuei buruzko sarrera egin zen, hainbat talderen laguntzarekin, eta, betiere, eraldaketa soziala eta politikoa zeruertzean; hemen, ordea, azken proiektuari heldu zitzaion, proiektu hori bertan behera utzi zuen proiektua enkargatu zuen estatu-instituzioak berak. Kasu hori hartu genuen abiapuntu eta, horri tiraka, kontraesan etiko eta politikoei buruz jardun ginen, halakoak agertzen baitira esparru publikoa eratu nahi duten arte-instituzio eta -ekintzetan.

Non hasten da, eta non amaitzen, instituzioaren, artistaren eta kolaboratzaileen ardura? Zer rol jokatu behar lukete kultur instituzio publikoek? Zer muga dauzkate? Politikoki beharrezkoa denari iskin egin ote diezaiokete, politikoki zuzen izate aldera? Kode morala errespetatu behar al da, errealitatearekiko konpromisoaren gainetik? Galdera horien inguruan eta beharrezkotzat jo genituen bestelako auzien inguruan hausnartu genuen

**Prólogo de presentación del**
**Laboratorio Esfera Pública**
**Taller: 10 y 11 de diciembre de 2014**
**Sukaldea, Tabakalera, Donostia-San Sebastian**

**Esparru Publikoaren Laborategia**
**aurkezteko hitzaurrea**
**Tailerra: 2014ko abenduaren 10 eta 11**
**Sukaldea, Tabakalera, Donostia**

**Núria Güell** (1981, Vidreres, España)
Con un posicionamiento orientado a generar mecanismos para la disidencia, el trabajo de Núria Güell aborda y reformula los límites de la legalidad, detectando los abusos de poder cometidos por las Instituciones que nos gobiernan a través de la legalidad establecida y la moralidad hegemónica. El coqueteo con los poderes establecidos, los privilegios del mundo del arte y la complicidad con diferentes aliados son los recursos en los que basa sus operaciones artísticas, que diluyéndose en los límites de su propia vida se desarrollan como tácticas disruptivas en contextos específicos con el objetivo de subvertir las relaciones de poder instauradas. Graduada en Artes por la Universidad de Barcelona (España), continua sus estudios en la Cátedra de Arte de Conducta en La Habana (Cuba) bajo la dirección de Tania Bruguera. Su trabajo se ha exhibido en La Bienal de La Habana, de Pontevedra, de Liubliana, de Liverpool, de Atenas y de Göteborg y en la Trienal de Tallin y la de Sorocaba así como en museos de Barcelona, La Haya, Madrid, Hertogenbosch, París, Nueva York, Chicago, Miami, Formigine, Londres, Estocolmo, Estambul, Leipzig, Bucarest, Zagreb, Cali, Lima, Berlin, Graz y Viena; también ha colaborado con diversos centros sociales auto-gestionados.

tailerrean, hala praktikaren nola teoriaren ikuspegitik.

**Núria Güell** (1981, Vidreres, España)
Disidentzia ahalbidetuko duten mekanismoak sortzera bideratuta, Núria Guellen lanak legalitatearen mugak aztertu eta berriz formulatzen ditu. Gobernatzen gaituzten erakundeek, legeak eta moraliteta hegemonikoak baliatuta, egiten dituzten gehiegikeriak detektatzen ditu lan horren bidez. Indarrean dauden botereguneekin harremanak, arte munduaren pribilegioak, eta aliatuekin daukan konplizitatea erabiltzen ditu bere sorkuntza lanetan. Bere bizitzarekin bat eginaz, testuinguru berezietan taktika disrruptibo gisa garatzen dira, ezarritako botere harremanak iraultzeko helburuarekin.

Bartzelonako Unibertsitatean Artean gradutatua da. Ondoren, Habana (Kuba)-ko Cátedra de Arte de Conductan jarraitu zituen ikasketan Tania Bruguerak zuzenduta. Bere lana Habana, Pontevedra, Liubliana, Liverpool, Atenas eta Göteborg-eko Bienaletan izan da ikusgai, eta Tallin eta Sorocabako Trienaletan. Bartzelona, La Haya, Madril, Hertogenbosch, Paris, Nueva York, Chicago, Miami, Formigine, London, Estokolmo, Istambul, Leipzig, Bucarest, Zagreb, Cali, Lima, Berlin, Graz eta Vienako galeriatan ere erakutsi ditu bere proiektuak. Hainbat gune autogestionaturekin elkarlanean ere jardun da.



# OIER IRURETAGOIENA

*Nueva producción*
*Ekoizpen berria*

**ALDEZ KONTRA**

Desde una colina cercana a una ciudad, escuchamos el murmullo compacto creado por el ensamblado y difuminado de los diferentes sonidos de abajo, en un flujo constante con subidas y bajadas. Si consideramos la velocidad del sonido, y suponiendo que esa colina esté por ejemplo a un kilómetro de la ciudad, cada sonido necesitaría alrededor de casi 3 segundos para llegar hasta nosotros, enmarañado dentro de ese runrún. Este dato nos sirve para imaginar cómo la ciudad emite constantemente. Como si respondiéramos a la bofetada con otra bofetada, pondremos contraflujo al flujo, recogiendo y devolviendo desde Tabakalera lo lanzado por la ciudad. Y al igual que escuchar la propia voz grabada produce extrañamiento, veremos qué pasa al escuchar grabado nuestro paisaje habitual.

**Radio Symposium**
**Intervención sonora, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**ALDEZ KONTRA**

Hirigune baten inguruko muino batera igota, behealdeko zarata ezberdinen elkarketak eta lausoketak osatutako zurrumurru trinko bat heltzen zaigu, goraldi eta beheraldiak dituen jario etengabean. Soinuaren abiadura kontuan hartuta, eta muino hori hiritik kilometro batera balego adibidez, ia 3 bat segundu behar lituzke soinu bakoitzak sortu den momentutik guganaino heltzeko, marmar horren barruan. Hiria nola bota eta bota ari den irudikatzeko balio du datu honek. Zaplastekoari beste zaplasteko batez erantzunaz bezala, jarioari kontrajarioa jarriko diogu, eta hiriak botatakoa jaso eta bueltan emango dugu Tabakaleratik. Eta geure ahotsa grabatuta entzuteak arrarotasuna sortzen duen bezala, geure ohiko paisaia grabatuta entzutean zer gertatzen den ikusiko dugu.

**Radio Symposium**
**Soinuzko esku-hartzea, 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia**

**Oier Iruretagoiena** (Errenteria, Gipuzkoa, 1988) desarrolla su trabajo a medio camino entre la escultura, el sonido y el texto. Se licenció en Bellas Artes por la UPV-EHU en 2011, y ha expuesto individualmente en la galería Carreras Múgica de Bilbao 82015), el espacio Halfhouse de Barcelona (2014), la Casa de Cultura de Egia (2013) y el centro cultural Montehermoso de Vitoria-Gasteiz (2011). También ha presentado su trabajo en el Festival Ertz de otras músicas de Bera (2014), Zarata Fest de Bilbao (2011), Cicle HUM y L'ull cec de Barcelona (2010) y el Festival Tuned City de Berlín (2008). Es uno de los coordinadores del espacio Le Larraskito Kluba de Bilbao, y miembro del colectivo Arto Artian.

**Oier Iruretagoienak** (Errenteria, Gipuzkoa, 1988) eskultura, soinua eta testuaren arteko elkargurutzaketan garatzen du bere lana. 2011an lizentziatu zen Arte Ederretan UPV-EHUn, eta bakarkako erakusketak egin ditu Bilboko Carreras Mugica galerian (2015), Bartzelonako Halfhousen (2014), Egiako Kultur Etxean (2013) eta Gasteizko Montehermoso Kulturunean (2011). Honakoetan ere aurkeztu du bere lana: Berako bertze musiken Ertz jaialdian (2014), Bilboko Zarata Festen (2011), Bartzelonako Cicle HUM eta L'ull Cec-en (2010) eta Berlingo Tuned City jaialdian (2008). Bilboko Le Larraskito Kluba espazioaren koordinatzaileetariko bat da, eta Arto Artian kolektiboko kidea.





OKELA Sormen Lantegia es un espacio de creación, investigación, experimentación y difusión de arte situado en la calle San Francisco de Bilbao, conformado por tres artistas plásticas y visuales; Nora Aurrekoetxea, Izaro Ieregi e Irati Urrestarazu Zubizarreta.

Una antigua carnicería convertida en espacio de creación, que aún conserva su identidad anterior y de la que deriva su nombre.Es además un espacio crítico, constructivo, feminista y euskaldun, cuyo eje principal son las prácticas artísticas y visuales.

OKELA se centra en el arte contemporáneo local. Nace con el principal objetivo de crear redes entre los y las artistas y ofrecer convivencia y relaciones entre los diferentes agentes del campo artístico y la ciudadanía.

OKELA Sormen Lantegia Bilboko San Frantzisko kalean kokatzen den eztabaida, ikerketa, esperimentazio eta difusio artistikorako espazioa da. Hiru artista plastiko eta bisualek kudeatzen dutena: Nora Aurrekoetxea, Izaro Ieregi eta Irati Urrestarazu Zubizarretak hain zuzen.

Sormenerako lantegi bilakatu den antzinako harategi bat da OKELA, bere aspaldiko nortasuna mantentzen duena, izenak ere hala adierazten duenez. OKELA Sormen Lantegia izaera kritiko, eraikitzaile, euskaldun eta feminista duen lan eremua da. Bertan arte bisual eta plastiko garaikidea ardatz harturik , kultur kudeaketari ekiteko topalekua da.




# OKELA

**Radio Symposium**
**Intervención radiofónica,**
**28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Irrati bidezko esku-hartzea,**
**2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

# OREA. GRUPO DE INVESTIGACIÓN — IKERKETA-TALDEA

COORDINADO POR CONSONNI
EN COLABORACIÓN CON LA FACULTAD DE BELLAS ARTES (UPV/EHU)

CONSONNI KOORDINATZAILE,
ARTE EDERRETAKO FAKULTATEA LAGUNTZAILE (UPV/EHU)

## CÓMO TU ABUELA CAMBIÓ TU VIDA. SABERES, IDENTIDADES Y MEMORIAS COLECTIVAS

El proyecto *Cómo tu abuela cambió tu vida* tiene como punto de partida los saberes populares. Esos comunes que están al alcance de todas, que no sabemos quién ni cuando los ha creado porque se han trasmitido de generación en generación, muchas veces oralmente. A medida que diferentes personas se implican con ellos, los van modificando haciendo un mix de recursos imaginativos, creativos, supervivenciales. Surgen como una práctica cotidiana, pero con el tiempo se instituyen casi en "conocimiento científico". Conforman códigos, encierran conocimiento colectivo. Estos saberes comunes y sus usos tienen vinculación con las identidades y la construcción de la(s) memoria(s). Al tiempo que aportan de diferentes modos en su conformación, tienen la potencialidad de transformarlas o modificarlas. Desde esta perspectiva, *Cómo tu abuela cambió tu vida* revisa como estos saberes se desarrollan, transforman y trasmiten a lo largo del tiempo y de los diferentes contextos territoriales. Palabras Clave: Saberes populares. Construcción, elaboración y trasmisión. Identidades. Memorias. Juan Pablo Ordúñez Martínez 'MawatreS', Andrea Estankona y Josefina Roco Sanfilippo son integrantes de uno de los grupos de trabajo del proyecto LaPublika.

**MawatreS / Juan Pablo Orduñez** es licenciado en Bellas Artes y colaborador de la asignatura "El espacio tecnológico como nuevo espacio público" del Máster Universitario en Arte Contemporáneo Tecnológico y Performativo de la facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU.

**Andrea Estankona** es historiadora de arte. Ha sido embedded researcher en Medialab-Prado y fue co-editora del libro *Áreas emergentes e innovación en el sector cultural y creativo vasco* publicado por el Servicio Editorial de la UPV/EHU, donde desarrolla actualmente su tesis doctoral.

**Josefina Roco Sanfilippo** es investigadora social y feminista, coordinadora de la Escuela de Economía Feminista en Bizkaia y Gipuzkoa y Doctora en Estudios Internacionales e Interculturales por la Universidad de Deusto.

**Radio Symposium**
**Intervención. 28 de octubre de 2016**
**Donostia-San Sebastián**

## BIZITZA ALDATU ZIZUN AMONAK. JAKINTZAK, IDENTITATEAK ETA MEMORIA KOLETIBOAK.

Proiektu honetan, *Bizitza aldatu zizun amonak*, herri jakintzak ditugu abiapuntu. Guztion eskura daude jakintza komun horiek eta ez dakigu nork sortu dituen ere, zeren belaunaldiz belaunaldi igaro baitira, ahoz, sarritan. Hainbat lagun lotzen zaizkie jakintza horiei eta, hala, nahastu egiten dira hainbat baliabide: irudimenezkoak, sormenezkoak eta biziraútekoak. Hasieran, eguneroko praktikak dira, baina, gero, denbora igaro ahala, "ezagutza zientifiko" bihurtzen dira, ia.

Kodeak osatzen dituzte, ezagutza kolektiboa biltzen. Identitateekin eta memorien eraikuntzarekin daude lotuta jakintza komun horiek. Osatu egiten dituzte, bai eta eraldatu edo aldatu ere. Ikuspegi horri helduta, proiektu honek ikusi nahi du ea nola garatzen, eraldatzen eta transmititzen diren jakintza horiek denak, denboran eta lurraldeetan. Hitz gakoak: herri jakintza. Eraikuntza, sorkuntza eta transmisioa. Identitateak. Memoriak. LaPublika proiektuko lan-talde bateko kideak dira Juan Pablo Ordúñez Martínez 'MawatreS', Andrea Estankona eta Josefina Roco Sanfilippo

**MawatreS / Juan Pablo Orduñezek** Arte Ederrak ikasi zituen eta UPV-EHU Arte Ederretako Fakultateko master batean kolaboratzen du, hain zuzen ere, Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa Unibertsitate Masterrean. "Espazio teknologikoa, espazio publiko berria" irakasgaian parte hartzen du.

**Andrea Estankona** arte-historialaria da. Embedded researcher izan da Medialab-Pradon eta liburu hau ko-editatu zuen: "Áreas emergentes e innovación en el sector cultural y creativo vasco" (UPV-EHUko argitalpen-zerbitzua). Gaur egun, unibertsitate horretan dihardu, doktore-tesia egiten.

**Josefina Roco Sanfilippo** ikertzaile soziala eta feminista da. Bizkaiko eta Gipuzkoako Ekonomia Eskola Feminista koordinatzen du. Nazioarteko eta Kulturarteko Ikasketen doktorea da; Deustuko unibertsitatean egin zuen doktore-tesia.



**Radio Symposium**
**Esku-hartzea. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

# PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA. GRUPO DE INVESTIGACIÓN

—

# PEDAGOGIA PUBLIKOAK ETA ESPARRU PUBLIKOA. IKERKETA-TALDEA

COORDINADO POR EL ÁREA DE MEDIACIÓN (TABAKALERA)
HEZKUNTZA SAILA KOORDINATZAILE (TABAKALERA)

Entendemos la educación, el aprender, el hacer con, como esfera pública en sí misma. Momentos en los que convivir, ponerse de acuerdo o estar en el desacuerdo, organizar un espacio común… El instituto se convierte en algo más que espacio público, es un lugar donde se aprende a ser, se genera sociedad y donde existe potencial para la transformación. Durante el curso 2015-2016 realizamos un trabajo con un grupo de alumnas de 4° de ESO. Trabajamos en torno a la noción de esfera pública, centrada en el momento del camino al instituto como lugar entre. Como continuación,

**Radio Symposium**
**Intervención, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

Gure iritziz, hezkuntza, ikastea eta egitea esparru publikoa dira, beren kabuz. Elkarbizitza-uneak, ados jartzeko edo bat ez etortzeko uneak, denona den toki bat antolatzeko garaia… Azken batean, institutua ez da soilik espazio publiko bat; aitzitik, institutuan, izaten ikasten da, gizartea eratzen, eta eraldatu ere eraldatu daiteke. 2015-2016 ikasturtean, DBHko 4. mailako ikasleekin lan egin dugu. Esparru publikoaren nozioa jorratu dugu eta, horretarako, institutuko bideari erreparatu diogu, tarteko toki bat baita. Orain, simposiumaren barruan, jendaurrean aurkeztuko ditugu Ordiziako Oianguren Institutuan

**Radio Symposium**
**Esku-hartzea. 2016ko urriaren 28a**
**Tabakalera, Donostia**



en el marco del radio simposio, se realiza una presentación pública de las acciones desarrolladas dentro del Instituto Oianguren de Ordizia, con la presencia de las alumnas y profesoras que participaron y del grupo de trabajo de LaPublika. La presentación se acompaña de un taller-dinámicasacción en el que se trabaja en torno a estas temáticas de la mano de estudiantes de arquitectura que son también parte del grupo de trabajo.

**Ana Revuelta** (coordinadora del grupo desde el Área de Mediación de Tabakalera). Educadora del equipo de mediación de Tabakalera (desde 2013). Miembro del colectivo Artaziak arte-hezkuntza ekimenak (desde 2008), que ha desarrollado proyectos de mediación en espacios como Centro Cultural Montehermoso, DSS2016 Hazitegiak, Azkuna Zentroa, Sala Rekalde o Museo Oteiza.

**Maider López** (San Sebastián, 1975). La artista Maider López desarrolla su trabajo interviniendo en el espacio público y la arquitectura. Sus obras requieren a menudo de la participación del espectador al que involucra haciéndole parte de un espacio sutilmente alterado. Su obra ha sido ampliamente expuesta nacional e internacionalmente, por ejemplo, en la bienal de Vencia, de Estanbul, y de Sharjah.

**Leticia Aristi.**
Profesora de secundaria de las áreas de educación artística, visual y plástica. Licenciada en Bellas Artes. Actualmente participa en grupos de trabajo en torno a la educación artística y la medicación como ARTikertuz dentro de la Universidad Pais Vasco (Escuela de Magisterio Donostia), o Ikusten-Ikasten grupo de trabajo vinculado al audiovisual puesto en marcha por el área de mediación de Tabakalera.

egindako ekintzak, eta gurekin izango dira parte hartu zuten ikasleak eta irakasleak eta LaPublikako lan-taldea. Aurkezpena egiteaz gainera, tailer-dinamika-ekintza bat ere egingo dugu. Hor, gai hauek guztiak landuko ditugu, lan-taldean ibili diren zenbait arkitektura-ikasleren gidaritzapean.

**Ana Revuelta** (taldearen koordinatzailea, Tabakalerako Hezkuntza Saileko kidea). Hezitzaile-lanetan dihardu Tabakalerako hezkuntza-taldean, 2013. urteaz geroztik. Artaziak arte-hezkuntza ekimenak taldeko kidea da 2008az geroztik. Talde horrek hainbat bitartekaritza-proiektu egin ditu, besteak beste, Montehermoso Kultur Zentroarekin, DSS2016 Hazitegiak-ekin, Azkuna Zentroarekin, Rekaldea Aretoarekin eta Oteiza Museoarekin.

**Maider López** (Donostia, 1975). Espazio publikoan eta arkitekturan esku hartzen du Maider López artistak. Sarri, ikusleek obran parte hartu behar dute: espazioan sartzen ditu artistak, sotilki aldatutako espazio batean. Estatuan eta nazioartean luze-zabal erakutsi dira Lópezen lanak, hala nola, Veneziako, Istanbuleko eta Sharjahko biurtekoetan.

**Leticia Aristi.**
Bigarren hezkuntzako irakaslea da eta hezkuntza artistikoa, bisuala eta plastikoa irakasten du. Arte Ederrak ikasi zituen. Gaur egun, arte-hezkuntza eta bitartekaritza jorratzen ditu hainbat lan-taldetan, hala nola ARTikertuz taldean (EHU, Donostiako Irakasle Eskola) eta Ikusten-Ikasten taldean. Ikus-entzunezkoei buruzko taldea da hori eta Tabakalerako hezkuntza sailearen barruan jarri zuten martxan.

**Koldo Telleria Andueza.**
Arkitektoa eta Hiria Kolektiboa taldeko kidea (2002 – 2012). Hirigintza lantzeko, kritikatzeko eta hausnartzeko taldea da hori, betiere, ikuspegi soziala, generoa

**Koldo Telleria Andueza.**
Arquitecto y miembro de Hiria Kolektiboa (2002 – 2012) grupo de trabajo, crítica y reflexión en torno al urbanismo con perspectiva social, género y sostenibilidad.
Profesor de la escuela de arquitectura de la Universidad Pais Vasco (Campus de Gipuzkoa).
Actualmente miembro del estudio A9 Arkitektura eta Hirigintza con sede en Donostia.

**Mireia Baz Mangana** (formó parte del grupo en 2015). Educadora y pedagoga. Miembro de la asociación Txatxilipurdi. Se trata de una asociación de educación en el tiempo libre y la mediación que ha desarrollado diferentes proyectos como Haurrasate (proyecto de repensar los espacios comunes de Arrasate como espacios de juego y educativos) o Berramesten (proyecto de repensar y co-diseñar una ludoteca por los y las niñas).
Actualemente trabaja en la inicativa OinHerri (Herri Hezitzailea Eskola Herritarra).



eta jasangarritasuna abiapuntu.
EHUko arkitektura-eskolako irakaslea (Gipuzkoako Campusa). Gaur egun, A9 Arkitektura eta Hirigintza estudioko kidea da. Donostian dute egoitza.

**Mireia Baz Mangana** (taldean parte hartu zuen 2015ean). Hezitzailea eta pedagogoa. Txatxilipurdi elkarteko kidea. Aisialdiko hezkuntza eta bitartekaritza jorratzen ditu elkarte horrek eta hainbat proiektu abiatu dituzte, hala nola Haurrasate (Arrasateko espazio komunak berpentsatu eta jolas- edo hezkuntza-espazio moduan lantzeko proiektua) eta Berramesten (ludoteka bat berpentsatzeko proiektua, espazio hori haurrekin batera diseinatzeko). Gaur egun, OinHerri ekimenean dihardu (Herri Hezitzailea Eskola Herritarra).



# PETRA BAUER



## MUJERES E IMÁGENES EN MOVIMIENTO(S). DE CÓMO EL CINE Y LA FOTOGRAFÍA PUEDEN SER UTILIZADOS PARA NEGOCIAR POLÍTICAS

Los participantes del taller verán películas y vídeos conjuntamente, discutirán sus políticas y hablarán específicamente de la intersección entre la estética y la política: ¿cómo podemos comprometernos o enfrentarnos a los eventos y procesos políticos y sociales contemporáneos mediante el arte o los proyectos cinematográficos? En lo referente a ese tema, hay dos aspectos a tener en cuenta: por un lado, estaría el compromiso político a nivel temático; por otro lado, la pregunta sobre si una obra de arte o una película pueden ser considerados actos políticos en sí mismos, y cómo.

Durante mucho tiempo Petra Bauer se ha inspirado en las teorías y prácticas feministas que acentúan las relaciones dialécticas entre las estructuras políticas más amplias y la organización de la vida cotidiana. Le interesa

**Taller: Del 24 al 26 de noviembre de 2015**
**Charla: Jueves 26 de noviembre de 2015**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

## EMAKUMEAK ETA IRUDIAK MUGIMENDU(ET)AN. NOLA ERABIL DAITEZKEEN FILMAK ETA ARGAZKIAK POLITIKA-KUDEAKETAN

Tailer honetan, parte-hartzaileek filmak eta bideoak ikusiko dituzte, elkarrekin; irudietako politikei buruz eztabaidatuko dute, eta, zehazki, estetika eta politikaren arteko bidegurutzeari erreparatuko diote: nola engaiatu gaitezkeen edo erronka jo diezaiekegun gaur eguneko gertaera eta prozesu sozial eta politikoei, artearen edo filmeen bidez. Horren harira, bi eremu hartu behar dira kontuan: batetik, engaiamendu politikoa, edukiaren aldetik; bestetik, ea artelana edo filma ekintza politikotzat har daitezkeen, bere horretan, eta nola gertatzen den hori.

Petra Bauer-ek inspirazio-iturri izan ditu, luzaroan, teoria eta praktika feminista; hain zuzen, pentsamendu ildo horrek azpimarra jartzen die egitura politiko handien eta eguneroko bizitzaren antolamenduaren arteko harreman dialektikoei. Bauer-i zera

**Tailerra:2015eko, azaroaren 24tik – 26ra**
**Hitzaldia: 2015eko azaroak 26, osteguna**
**Tabakalera, Donostia**

especialmente la forma en la que dicho doble movimiento puede ser visualizado mediante las artes visuales. Indaga en dichos temas empleando estrategias y teorías feministas que analizan críticamente y al mismo tiempo politizan las condiciones de producción, la autoría, las estructuras narrativas y la elección de estrategias estéticas. En cuanto a la temática, muchos de sus trabajos se centran en cómo las mujeres han decidido auto-organizarse colectivamente, tanto dentro del arte como en la sociedad, para cambiar las estructuras políticas y sociales, así como para cambiar las prácticas individuales y cotidianas.

**Petra Bauer** es artista y directora de cine, y vive en Estocolmo. Le preocupa la cuestión del cine como práctica política, y considera el cine como un espacio en el que pueden fraguarse negociaciones políticas y sociales. Petra se graduó en la Malmö Art Academy en 2003. Entre 2007 y 2010 cursó estudios de cine en la Universidad de Estocolmo. Actualmente está realizando su tesis doctoral en la University College of Arts, Crafts and Design de Estocolmo. Su trabajo ha sido mostrado ampliamente, en festivales y exhibiciones tales como la 56. Bienale de Venecia, y en exposiciones internacionales tales como Showroom, Londres; Van Abbe Museum, Eindhoven; Tensta Konsthall, Estocolmo; Bard College Annandale-on-Hudson, Nueva York; Kadist Art Foundation, París; Frankfurter Kunstverein; CAC, Vilna; Kunsthalle, Nurémberg; Stadtgalerie, Kiel; Casino, Luxemburgo y Tallinn Art Hall.

interesatzen zaio, bereziki: ea nola islatu daitekeen, arte bisualetan, mugimendu bikoitz hori. Estrategia eta teoria feministak erabiliz aztertzen ditu gai horiek; izan ere, lan-ildo horien bitartez, arreta kritikoa eskaintzen zaie ekoizpen-baldintzei, autoretzari, narrazio-egiturei eta estrategia estetikoen hautaketari, eta, ez hori bakarrik, politikotzat hartzen dira horiek guztiak. Edukiari dagokionez, Bauer-en lanetako askok zera hartzen dute hizpide, emakumeak taldean auto-antolatu izan direla, hala arte-esparruaren barruan nola gizartean bertan, egitura sozial eta politikoak aldatzeko asmoz, baina, baita ere, eguneroko bizitza eta banakakoen praktika aldatzeko helburuarekin.

**Petra Bauer** artista eta zinegilea da, eta Stockholmen bizi da. Honako auzi hau interesatzen zaio, ea filma praktika politikoa ote den, eta iruditzen zaio filmaren esparruan negozioazio sozial eta politikoak gerta daitezkeela. Malmöko arte eskolan egin zituen ikasketak, eta 2003an amaitu zituen. 2007tik 2010era bitartean zinema-ikasketak egin zituen, Stockholmeko Unibertsitatean. Gaur egun doktore-tesia egiten dihardu, University College of Arts, Crafts and Design unibertsitatean, Stockholmen. Hainbat tokitan erakutsi du bere lana, hala nola jaialdi eta erakusketetan (Veneziako 56. Bienalean), eta hainbat nazioarteko erakusketatan: Showroom, Londres; Van Abbe Museum, Eindhoven; Tensta Konsthall, Stockholm; Bard College Annandale-on-Hudson, New York; Kadist Art Foundation, Paris; Frankfurter Kunstverein; CAC Vilnius; Kunsthalle Nurnberg; Stadtgalerie, Kiel, Casino Luxemburg eta Tallinn Art Hall.



# POST-CONCEPTUAL ART PRACTICE / PCAP

## CAMBIO Y FLUCTUACIÓN

Artistas visuales y sonoros, poetas raperos, performers y teóricos contribuyen a este proyecto colectivo y colaborativo que está fuertemente vinculado con la teoría contemporánea y con la lógica de intervenir en espacio sociales y políticos. Se inspira en la idea de que el arte no es una herramienta que puede aplicársele, sin más, a un cierto proceso inocente de producción e distribución de imágenes y saberes; muy al contrario, el arte debe ser comprendido en relación con los ámbitos cultural, social y político, y ha de informarnos de las maneras en las que debemos actuar para ser sujetos políticos responsables. En este proyecto, el rap, las canciones y los debates están conectados a situaciones políticas contemporáneas, mediante diferentes perspectivas de sonido, palabra y texto.

**PCAP (Post-Conceptual Art Practice)** desarrolla una plataforma para debatir y conceptualizar diferentes temas del ámbito del arte, la cultura y la política, dentro de la Academia de

**Radio Symposium**
**Performance, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

## ALDAKETA ETA GORABEHERAK

Talde-proiektu honetan askotariko jendeak hartzen du parte: bideo- eta soinu-artistek, rap kantari poetek, performance-egileek eta teorialariek. Proiektua estu lotuta dago teoria garaikidearekin, eta esparru sozial eta politikoan eragiteko asmoa du. Proiektuaren oinarria: artea ez da tresna soil bat, eta ezin zaio aplikatu, besterik gabe, irudiak eta jakintzak sortzeko ekoizpen-prozesu bati; aitzitik, artea ulertu behar dugu esparru kulturalarekin, sozialarekin eta politikoarekin harremanean, eta arteak agerian utzi behar du zer bidetatik aritu gaitezkeen subjektu politiko arduratsu moduan. Proiektu honen barruan, egoera politiko garaikideekin lotutako rapak, abestiak eta eztabaidak ateratzen dira. Hainbat ikuspegi hartzen dituzte aintzat, soinuaren, hitzaren eta testuaren aldetik.

Vienako Arte Ederren Akademiaren esparruan dabil **PCAP (arte-praktika post-kontzeptuala)**, eta hainbat gairen bueltan eztabadaitzeko eta kontzeptualizatzeko plataforma bat eskaintzen du: artea, kultura

**Radio Symposium**
**Performance. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

Bellas Artes de Viena. El trabajo del PCAP consiste en analizar el arte contemporáneo dentro del contexto del capitalismo global, las democracias occidentales y el imperialismo/colonialismo, apoyándose en políticas anti-racistas; realizar una crítica al creciente anti-semitismo europeo y redefinir los nuevos movimientos fascistas que se están fraguando en Europa; y, por último, desarrollar una práctica artística a partir de una posición feminista y migrante queer. Se llevan a cabo viajes de investigación, plataformas para trabajos en la comunidad, proyectos editoriales y una labor intensificada en los grados de los estudiantes, haciendo hincapié en procesos de trabajo basados en la investigación y la teoría.

Participan, entre muchos otros, EsRap (rapero), Betül Küpeli (intervención del espacio), Neda Hosseinyar (instalación y textos), Erinmwionghae Aghator Clifford (análisis de desposesión estructural), Ezgi Erol (movimientos LGBT), Cecilia Tasso (vídeos).

eta politika. PCAP-k honako lana egiten du: arte garaikidea aztertu, kapitalismo globalaren testuinguruan eta Mendebaldeko demokrazien eta inperialismo/kolonialismoaren testuinguruan, arrazakeriaren aurkako politikekin; Europan hazten ari den antisemitismoari kritika egin eta Europan barrena zabaltzen ari diren mugimendu faxista berriak berzedarriztatu; eta arte-praktikak jorratu, ikuspegi transfeminista eta migrante queer-etatik abiatuta. Hainbat ekintza antolatzen dituzte: ikerketa-bidaiak, komunitatean bertan egindako lanentzako plataformak eta argitalpen-proiektuak. Horrez gainera, ikasleen graduei arretaz erreparatzen zaie, eta ikerketan eta teorian oinarritutako lan-prozesuak sustatzen dira.

Parte-hartzaileak: besteak beste, EsRap (rap kantaria), Betül Küpeli (espazioan esku hartzen du artista), Neda Hosseinyar (instalazioak eta testuak), Erinmwionghae Aghator Clifford (egiturazko desjabetzearen ikertzailea), Ezgi Erol (LGBT mugimenduak) eta Cecilia Tasso (bideo-egilea).




Fotografía / Argazkia:

ESRAP, PROYECTO DE ERINMWIONGHAE CLIFFORD, HANSEL SATO, NASER ABUHELOU, Y MUCHOS MÁS; PERFORMANCE DE EZGI EROL; GEZI PROJECT, BEFORE AND AFTER ORGANIZADO POR PCAP, 2016.

ESRAP PROIEKTUA, BESTEAK BESTE, ERINMWIONGHAE CLIFFORD, HANSEL SATO ETA NASER ABUHELOUREN ESKUTIK; EZGI EROLEN PERFORMANCEA; GEZI PROJECT, BEFORE AND AFTER PROIEKTUA, PCAPK ANTOLATU ZUEN, 2016AN.



# ROSA CASADO & MIKE BROOKES

*Nueva producción*
*Ekoizpen berria*

## GREY LINE [ CREPÚSCULO ]

*Grey Line* sigue el borde de la sombra crepuscular cambiante de la noche mientras se mueve lentamente a través de la superficie de este planeta. Este trabajo intenta acompañar durante un día el desarrollo y paso de la puesta de sol por lugares dispersos por toda la tierra en su trayectoria hacia Donostia. Mientras esta delgada línea del crepúsculo viaja lenta y constantemente alrededor del mundo –desde el Pacífico a través de Asia y Oriente Medio, Europa del Este y África, hacia el Atlántico- Brookes y Casado harán una serie de conexiones de audio con personas que se encuentran en la superficie de la tierra. Dándonos acceso temporal a los micrófonos de sus teléfonos móviles, nos permitirán oír lo que está pasando a su alrededor mientras el día le da paso a la noche en el lugar y el entorno donde se encuentren. A lo largo de todo el día y durante el radio simposio de LaPublika, *Grey Line* interrumpirá periódicamente la retransmisión programada para conectar en directo con estas personas en el momento

**Radio Symposium**
**Performance, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

## GREY LINE [ ILUNABARRA ]

*Grey Line*-k ilunabarraren itzal aldakorrari jarraitzen dio, gure planetaren azaleraren gainetik aurrera egin ahala, poliki-poliki. Lan honen asmoa da egun oso batez ilunabarraren garapen eta bideari lagun egitea, lur osoko hainbat tokitan barrena, Donostiara bidean. Ilunabarraren lerro finak poliki eta etengabe aurrera egin bitartean–hasi Ozeano Baretik, pasa Asia eta Ekialde Hurbiletol, pasa Europako ekialde eta Afrikatik, eta Atlantikoraino–, Brookes eta Casado harremanetan jarriko dira, telefonoz, lurraren azaleraren gainean dauden hainbat pertsonarekin. Pertsona horiek beren telefono mugikorretako mikrofonoan sartzen utziko digute, tarte batez, eta, hala, beren inguruan zer gertatzen den adituko dugu, hain justu ere, zer gertatzen den egunak gauari bidea ematen dion une horretan, haiek dauden tokian. LaPublikako irratsaioan eta baita egun osoan ere, *Grey Line* proiektua tarteka etorriko da, programa eten eta zuzenean sartuko dira beste pertsona horiek, kanpotik,

**Radio Symposium**
**Performance. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia**



en que afuera, en su propio entorno, ven el borde de la sombra de la noche llegar a ellas. Estas conexiones de audio provisionales y breves intentarán dar acceso al incesante viaje de la constante puesta de sol durante un día, y a una de las rotaciones inevitables de este planeta.

**Rosa Casado & Mike Brookes** son dos artistas multidisciplinares que, desde la acción, generan una propuesta de reflexión, creación y crítica en torno a los espacios y los lugares que transitamos, ocupamos y habitamos. Entienden el espacio como el ámbito de las relaciones (humanas y no humanas), las negociaciones y las prácticas de participación; y tratan de proponer trabajos en los que se ponga de manifiesto que lo que está pasando es 'nosotros', 'aquí' y 'ahora'. Rosa Casado proviene principalmente de la práctica escénica, pero su interés por los contextos la ha llevado a transitar por estudios medioambientales, de sistemas y complejidad y de física. Mike Brookes, que proviene de las artes plásticas, viene desarrollando una investigación que atraviesa diversos medios, como pintura, dibujo, performance, texto, entre otros. Rosa y Mike colaboran desde al año 2000 y juntos han producido más de una decena de proyectos. Sus trabajos se acercan al conceptualismo desde una mirada pragmática y les interesa la literalidad y lo obvio como recurso para el hacer.

beren ingurutik, gaua abailtzen zaien momentuan. Behin-behineko audio-konexio labur horien bitartez, ilunabarraren etengabeko bidaiaren berri eman nahi da, eta, baita, lurraren ezinbesteko biretako baten berri eman ere.

**Rosa Casado & Mike Brookes** artistek hainbat alor jorratzen dituzte. Ekintza abiapuntu, hausnarketa, sormena eta kritika sustatzen dituzte, igarotzen, betetzen eta bizilekutzat hartzen ditugun espazio eta tokien harira. Beren iritziz, espazio horietan gertatzen dira harremanak (giza harremanak eta horietaz kanpokoak ere), negoziazioak eta parte hartzeko praktikak. Agerian utzi nahi dute, beren lanen bidez, gertatzen den hori "gu" dela, "hemen" dela eta "orain" dela. Rosa Casado arte eszenikoetan ibilia da, batez ere; dena dela, testuingurua asko interesatzen zaiola-eta, bestelako alorretan ere jardun da, hala nola, ingurugiro-, sistema- eta konplexutasun-ikasketetan, eta baita fisikaren arloan ere. Mike Brookes arte plastikoetan aritu da, batez ere. Ikertzen aritu da, eta hainbat alor uztartu ditu, hala nola margoa, marrazkia, performance eta testua, besteak beste. 2000. urtean hasi ziren Rosa eta Mike elkarrekin lanean, eta hamarretik gora proiektu kudeatu dituzte. Kontzeptualismotik gertu dabiltza, betiere begirada pragmatiko batetik abiatuta. Literaltasuna eta begien bistakoa erabiltzen dute tresna modura.



Rosalyn Deutsche es historiadora del arte y profesora de arte moderno y contemporáneo en el Barnard College de la universidad Columbia de Nueva York. Obtuvo su tesis doctoral el centro de graduados de la universidad City University de Nueva York. Ha escrito y dado charlas profusamente sobre una variedad de temas interdisciplinarios, como, por ejemplo, el arte y el urbanismo, el arte y la esfera pública, el arte y la declaración de derechos, el arte y la guerra, y las teorías feministas de subjetividad en representación visual. Sus ensayos se han publicado en multitud de catálogos y antologías, como, por ejemplo, *Grey Room*, *October*, *Artforum*, *Art in America*, *Texte zur Kunst*, *Society and Space*, *Annals of the Association of American Geographers* y *Assemblage*. Su obra se ha traducido a diversos idiomas. Deustche es miembro de la facultad del Programa de Estudios Independientes del museo Whitney. En mayo del 2009, se encargó de dar la charla de la Biblioteca Wellec, en el Instituto de Teoría Crítica de la Universidad de California, en Irvine. Deutsche ha escrito dos libros: *Evictions: Art and Spatial Politics* (MIT Press, 1996) y *Hiroshima After Iraq: Three Studies in Art and War* (Columbia University Press, 2010). Actualmente está trabajando en otro libro sobre las obras de arte contemporáneas que conmemoran la guerra mediante la desidealización.

Rosalyn Deutsche arte-historialaria da, eta arte modernoa eta garaikidea irakasten ditu Columbia unibertsitateko Barnard College-n, New Yorken. New York Hiriko Unibertsitateko Graduatuen Zentroan egin zituen doktoretza-ikasketak. Erruz idatzi du, eta nazioartean hitzaldiak eman, askotariko alorren inguruan, hala nola artea eta hirigintza, artea eta esparru publikoa, artea eta eskubideen adierazpena, artea eta gerra eta, azkenik, errepresentazio bisualeko subjektibitatearen teoria feministak. Artikuluak idatzi ditu hainbat erakusketa-katalogo eta antologiatan, eta, besteak beste, honako aldizkari hauetan: *Grey Room*, *October*, *Artforum*, *Art in America*, *Texte zur Kunst*, *Society and Space*, *Annals of the Association of American Geographers* eta *Assemblage*. Beste hizkuntza batzuetara ere itzuli dituzte bere lanak. Ikasketa Independienteen Programan parte hartzen du, Whitney museoan. 2009ko maiatzean, Wellek liburutegiko hitzaldia berak egin zuen, Teoria Kritikoko Institutuan, Kaliforniako Unibertsitatean. Bi liburu kaleratu ditu: *Evictions: Art and Spatial Politics* (MIT Press, 1996) eta *Hiroshima After Iraq: Three Studies in Art and War* (Columbia University Press, 2010). Gaur egun, beste liburu bat idazten ari da, hain zuzen ere, gerra desidealizatzen duten eta, horren bidez, gerra gogora ekartzen duten artelan garaikideei buruzkoa eta.

# ROSALYN DEUTSCHE



**Radio Symposium**
**Conversación. 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia**

Sangre Fucsia es la víscera, el puñetazo, la hemorragia. “Amamos la radio como vía para oír, comunicar, y unir. Necesitamos escuchar y hacer radio en directo, frente a los micrófonos, trasteando en los controles técnicos y usando únicamente la voz y el sonido para compartir todo aquello que consideramos interesante y trascendente, y que ocurre muy cerca, a nuestro alrededor. El de hacer radio es un deseo visceral, tan fuerte e intenso como la sangre; y teñido de un fucsia que engloba y va más allá del violeta feminista, del rojinegro anarcosindicalista, del rosa LGTB, del arcoíris. El fucsia nos relaciona con todas estas luchas, pero a nuestra manera, siempre desde la autocrítica y el humor”.

Siendo la recuperación de la ‘herstory’ capital en su manera de afrontar la realidad, desde Sangre Fucsia nos proponen rescatar de la invisibilidad a aquellas que hicieron de la resistencia su bandera. Un programa dedicado a que las olvidadas resuciten a través de nuestras voces.



Erraiak, ukabilkada, odoljarioa da Sangre Fucsia. “Irratia maite dugu, aditzeko, komunikatzeko eta batzeko bidea baita. Irratia aditu eta sortzeko beharra dugu, zuzenean, mikrofonoen aurrean, kontrol teknikoekin nahas-mahasean; soilik ahotsa eta soinua erabili, interesgarria eta garrantzitsua deritzogun oro konpartitzeko, betiere gure inguruko gauzak, oso gertu gertatzen direnak. Irratia egin nahi dugu, erraietatik, odola bezain indartsua eta bizia da desira hori, eta fuxia kolorekoa da, hainbat koloretatik harago: feminismoaren bioleta, anarkosindikalismoaren gorri-beltza, LGTB mugimenduaren arrosa, ortzadarraren kolorea. Borroka horiekin guztiekin lotzen gaitu fuxiak, baina geure erara: autokritika eta umorea abiapuntu, beti”.

Errealitateari erantzuteko orduan, guretzat, “herstory”-ak berebiziko garrantzia du, horregatik, Sangre Fucsia-ko kideok zera proposatzen dugu, erresistentzian buru-belarri borrokatu zirenak ikusaraztea, ikusezinak izan baitira, luzaroan. Programa honetan, ahaztutako emakumeak berpiztuko ditugu, geure ahotsen bidez.

# SANGRE FUCSIA

**Radio Symposium**
**Intervención radiofónica**
**28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Irrati bidezko esku-hartzea**
**2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia**



# SOCIETAT DOCTOR ALONSO – MOARÉ DANZA

Tomás Aragay, Sofía Asencio,
Chus Domínguez, Idoia Zabaleta

## LA NATURALEZA Y SU TEMBLOR

*La naturaleza y su temblor* es un mecanismo de intervención site-specific, un paseo-visita pausado a la realidad que a partir de las herramientas del teatro, el cuerpo, el pensamiento y el cine quiere revelar desvelando otra realidad, despertando en el espectador posibilidades de percepción que le hagan mirar, descifrar y comprender de otra forma, invitándole a adentrarse en su fantasmagoría.

*La naturaleza y su temblor* es una co-producción de Societat Doctor Alonso, Moaré Danza y festival GREC, con el apoyo del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y la colaboración de Bulegoa z/b y La Casa Encendida.

**La Societat Doctor Alonso,** dirigida por Tomas Aragay (director de teatro y dramaturgo) y Sofia Asencio (bailarina y

## NATURA ETA BERE DARDARA

Esku hartzeko mekanismo bat da *Natura eta bere dardara*, site-especific motakoa, paseo-bisita patxadatsu bat, errealitatean barrean. Antzerkia, gorputza, pentsamendua eta zinema ditu tresna, eta, horien bidez, beste errealitate bat agerrarazi nahi du, ikusleari hautemate-aukera berriak ekarri, gauzak bestelako modu batean begiratu, deszifratu eta uler ditzan, fantasmagorian barnera dadin.

Societat Doctor Alonso taldeak, Moaré Danza taldeak eta GREC jaialdiak ekoizten dute, elkarlanean, *Natura eta bere dardara*. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailaren babesa jaso dute, eta Bulegoa z/b eta La Casa Encendidarekin batera jardun dute.

Tomas Aragay antzerkigile eta antzerki-zuzendariak eta Sofia Asencio dantzari

**Radio Symposium**
**Intervención site-specific**
**Viernes 28 de octubre de 2016**
**Donostia-San Sebastián.**

**Radio Symposium**
**Intervención site-specific**
**2016ko urriaren 28an**
**Donostia**

coreógrafa) ha construido un lenguaje que encuentra una de sus claves fundamentales en el concepto del desplazamiento. De situar algo fuera de su lugar, ámbito o espacio propio, para indagar cómo este desplazamiento modifica el lenguaje tanto en cuanto a su gramática constitutiva como en cuanto a la lectura que un observador puede hacer: desplazar para desvelar algo. Esta maniobra de desplazamiento se ha revelado como un herramienta eficaz para generar espacios de discurso poético que pongan en cuestión el estatus quo de nuestra comprensión de la realidad.

Participan: Tomás Aragay, Sofia Asencio, Chus Domínguez e Idoia Zabaleta.

**Moare Danza,** creado por un grupo de coreógrafas vascas en 1992, es una estructura de referencia de un trabajo permanente en el ámbito de las artes en vivo. Durante años ha mantenido una continua labor de investigación, divulgación y enseñanza de la Danza, especializándose en la línea de la Nueva Danza. Moare Danza trabaja en colaboración con diferentes profesionales de diversos campos artísticos y no artísticos como búsqueda en el significado del cuerpo y el movimiento en nuestra sociedad.

eta koreografoak zuzentzen dute **La Societat Doctor Alonso** taldea. Lengoaia berezi bat eraiki dute, eta lekualdatzearen kontzeptua da lengoaia horren funtsezko zutarrietako bat. Alegia, zerbait bere toki, alor edo esparru propiotik kanpo kokatzea, hartara, ikusteko ea nola aldatzen den gauza hori, lekualdatzearen ondorioz: nola aldatzen den gauza horren gramatika, eta nola aldatzen den ikuslearen irakurketa bera ere. Lekuz aldatzea, agerrarazteko. Lekualdatze-ekintza hau tresna eraginkorra da: diskurtso poetikoko guneak sortzeko balio du, eta, horien bidez, errealitatea ulertzeko dugun moduaren estatus quo-a zalantzan jartzeko.

Parte-hartzaileak: Tomás Aragay, Sofia Asencio, Chus Domínguez e Idoia Zabaleta.

**Moare Danza,** 1992an sortutako euskal koreografoen elkartea da. Urteez arte bizien eremuan ikerketako lan jarraitu bat mantendu du, praktika koreografikoen dibulgazioa eta irakaskuntzaren bitartez,. Elkarlanean aritu da urte askotan zehar arlo artistiko desberdinetako profesional desberdinekin, gauregungo gizartean gorputza duen garrantsiari buruz arduratuz.





# SRA POLAROISKA

*Nueva producción*
*Ekoizpen berria*



**CHORUS. Y el coro concluye…**

El coro tradicionalmente representa la reflexión de la ciudadanía. Se expresa generalmente por el canto, pero también en ocasiones por el lenguaje hablado y por la danza. Este coro, además, representa las múltiples maneras de reflexionar. Es múltiple, ecléctico, excéntrico, corriente y variado. Ritual, demarcador de los episodios, mediador entre lo que se habla y el público, relectura de las situaciones planteadas que no solo atiende a la palabra sino también y de especial forma a los sentidos. Transcripción, traducción, conclusión a tiempo real, twitter analógico, voces escuchadas, relámpagos experienciales y truenos radiofónicos insinúan contextos en forma de paisajes sonoros.

**Sra Polaroiska** está formado por Alaitz Arenzana y María Ibarretxe. Su obra gira en torno al cine experimental, el arte de acción, la creación escénica y la coreografía. Con su primera pieza filmada en 16mm ganan el Premio Injuve 2003 y Premio Mejor Banda Sonora Mecal. A partir de entonces sus

**Radio Symposium**
**Intervención, 28 de octubre de 2016**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

**CHORUS. Eta, ondorioetarako, korua…**

Koruak, tradizioan, herritarren hausnarketa islatzen du. Kantuaren bidez ematen ditu bere iritziak, baina, batzuetan, baita hitzen eta dantzaren bidez ere. Koru horrek, gainera, hausnartzeko askotariko bideak erakusten ditu. Askotarikoa, eklektikoa, bitxia, arrunta eta anitza da. Erritual bat da, atalak markatzeko tresna, esaten denaren eta publikoaren arteko bitartekari; era berean, aurkezten diren egoerak berrirakurtzen ditu, baina, hitzei ez ezik, zentzumenei erreparatzen die, bereziki. Transkribaketa, itzulpena, ondorioak denbora errealean, twitter analogikoa, aditutako ahotsak, esperientzia-tximistak eta irrati-trumoiak: testuinguruak iradokitzen dizkigute, soinu-paisaien tankeran.

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxek osatzen dute Sra Polaroiska. Zinema esperimentala, ekintza-artea, sormen eszenikoa eta koreografia jorratzen dituzte. Lehen filmari esker (16 mm), Injuve saria jaso zuten, 2003an, eta baita Mecal Saria ere, soinu-banda onenari. Orduz geroztik, hainbat arte-

**Radio Symposium**
**Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an**
**Tabakalera, Donostia-San Sebastián**

obras se exponen en centros de arte y festivales como CA2M, Montehermoso, Círculo de Bellas Artes Madrid, BilbaoArte, Stuk Kulturcentrum de Leuven, Instituto Cervantes de Estocolmo, Manchester o Festival des cinémas différents et expérimentaux de París, entre otros.

En 2008 obtienen la beca residencia A.I.R Laboratory en el Centre for Contemporary Art Ujazdowski Castle de Varsovia y la beca residente BilbaoArte. Forman parte de *Kimuak*, proyectando su película *Ekspozycja 19* en más de 40 festivales internacionales. Realizan el documental creativo *El Juego Vasco de la Pelota* para el Museo Vasco Bilbao, galardonado con el Premio FIAMP 2009. En el año 2012 reciben el Primer Premio Ertibil con la pieza *Pilota Girls*. En 2015 desarrollan el proyecto *Encuentros en Santa Cecilia. Trayectos, afectos y lugares* en Guadalajara, México, dentro del Programa EINCE 2015 con la beca Iberescena. Desarrollan la película-instalación *Andrekale* dentro del programa Nuevos Comanditarios, producida por Fondation de France, Artehazia y Tabakalera. Participan en la película *Bilbao Bizkaia Exterior Día* con su pieza *Los Ocho Pecados Capitales* producida por ZINEBI. A su vez, crean la pieza escénica *Lur Away* estrenada en Azkuna Zentroa y El Mercat de les Flors.

Ambas formaban parte del colectivo Ruemaniak, centrado en la investigación de la danza y las artes escénicas, con el que han obtenido el Premio Certamen Coreográfico de Madrid 2012. Sus piezas escénicas se han mostrado en el Museo Artium, Museo Reina Sofía, Museo Guggenheim y Mercat de les Flors, entre otros.

zentro eta jaialditan aurkeztu dituzte beren lanak, besteak beste, honako hauetan: CA2M, Montehermoso, Circulo de Bellas Artes (Madril), Bilbao Arte, Stuk Kulturcentrum (Leuven), Instituto Cervantes (Estokolmo), Manchester, Festival des cinémas différents et expérimentaux (Paris).

2008an bi egoitza-beka jaso zituzten: batetik, A.I.R Laboratory beka, Varsoviako Centre for Contemporary Art Ujazdowski Castle zentroan, eta, bestetik, BilboArteko beka. *Kimuak* proiektuan parte hartu zuten, eta *Ekspozycja 19* filma erakutsi, nazioarteko 40tik gora jaialditan. *El Juego Vasco de la Pelota* sormen-dokumentala egin zuten, Bilboko Euskal Museoak hala eskatuta, eta, lan horri esker, FIAMP saria jaso zuten, 2009an. 2012an, Ertibileko lehen saria jaso zuten, *Pilota Girls* piezari esker. 2015ean, *Encuentros en Santa Cecilia. Trayectos, afectos y lugares* proiektua egin zuten Guadalajaran, Mexikon, EINCE 2015 programaren barruan, Iberescena bekari esker. *Andrekale* film-instalazioa egin zuten, Komanditario berriak programaren barruan: Fondation de France, Artehazia eta Tabakalerak ekoitzi zuten lan hori. *Bilbao Bizkaia Exterior Día* filmean parte hartu zuten, *Los Ocho Pecados Capitales* lanarekin, ZINEBIk ekoitzia. Gainera, *Lur Away* pieza eszenikoa sortu zuten, eta Azkuna Zentroan eta El Mercat de les Flors-en estreinatu.

"Ruemaniak" kolektiboaren parte izan ziren biak. Talde horrek dantza eta arte esezenikoak ikertzen zituen, eta, taldearen jardunari esker, Madrilgo Koreografia Lehiaketako saria jaso zuten, 2012an. Hainbat tokitan erakutsi dituzte beren obrak, besteak beste, Artium museoan, Reina Sofía museoan, Guggenheim museoan eta Mercat de les Flors-en.



# STINE HEBERT



## MODELOS DE ORGANIZACIÓN

Han corrido ríos de tinta sobre una supuesta crisis en la educación superior. Las universidades y escuelas de arte podrían definirse como campos de batalla que se encuentran continuamente bajo presión, ya que deben adaptarse al clima político y a nuestra cambiante situación económica. ¿Qué potenciales albergan otros modelos de organizar la educación y comprender el trabajo de estudiar? ¿Qué tipo de relaciones se forman cuando nos organizamos nosotros mismos?

**Stine Hebert** es historiadora del arte y curadora, y reside en Copenhague, Dinamarca. Hebert ha sido curadora autónoma durante muchos años, centrándose en investigaciones sobre las condiciones de la producción artística. Ha producido exposiciones para varios espacios internacionales y ha dado clases en universidades y academias de arte en los países nórdicos. Hebert fue la Directora de Interpretación del BAC (Baltic Art Center, en Vilsby); y trabajó como curadora en el Kunsthal Charlottenborg

**Seminario. Sesión #1**
**Jueves 29 de octubre de 2015**
**Bizkaia Aretoa, Bilbao**

## ANTOLAKUNTZA-EREDUAK

Gauza pila bat esan dira, honezkero, goi-mailako hezkuntzaren balizko krisiari buruz. Unibertsitate eta arte-eskolak gudu-zelai gisa ikusi izan dira, presiopean daudenak etengabe, giro politikoari edo gure egoera ekonomiko aldakorrari egokitzeko ahaleginean. Zer bide zabalduko lirateke baldin eta beste modu batzuetan antolatuko bagenu hezkuntza eta beste era batzuetan ulertuko bagenu ikasketa-lana? Zer harreman-mota mamitzen dira geure kasa antolatzen garenean?

**Stine Hebert** arte-historialaria eta kuradorea da, eta Kopenhagen bizi da, Danimarkan. Hebertek kuradore autonomo gisa lan egin du hainbat urtez, bereziki arte-ekoizpenaren baldintzen ikerketa landuz. Erakusketak apailatu ditu nazioarteko hainbat gunetan, eta hitzaldiak eman ditu herrialde nordikoetako unibertsitate eta arte-eskoletan. BAC-eko (Baltic Art Center, Visby) interpretazio zuzendaria izan zen; Kunsthal Charlottenborg zentroko kuradore gisa jardun zuen, Kopenhagen, eta gaur egun errektorea

**Mintegia. #1 Saioa**
**2015eko urriak 29, osteguna**
**Bizkaia Aretoa, Bilbao**

de Copenhague. Actualmente es la rectora de la Funen Art Academy en Odense, Dinamarca.

Entre sus proyectos curatoriales más recientes cabe destacar: *Rose English: The Eros of Understanding*, Kunsthal Charlottenborg 2014, *The Nordic Model*, curado en colaboración con Kim Einarsson & Cecilia Widenheim, Malmö Art Museum, Malmö, 2013; *Leigh Ledare et.al*, curado en colaboración con Elena Filipovic, Kunsthal Charlottenborg, Copenhague 2013, y Joachim Koester: *If One Thing Moves, Everything Moves*, Kunsthal Charlottenborg, Copenhague, 2012. Hebert ha participado en residencias curatoriales, incluyendo estancias en la Monash University en Melbourne, Temple Bar Gallery & Studies en Dublín, Hordaland Art Centre en Bergen y el Platform Garanti Contemporary Art Centre en Estambul. Hebert ha co-editado, junto con Anne Szefer Karlsen, la antología internacional *Self-Organised*, publicada por la editorial Open Editions de Londres, dentro de la serie *Occasional Table*.

da, Funen Art Academy akademian, Odensen (Danimarka).

Honako proiektu hauen kuradore izan da Hebert, berriki: *Rose English: The Eros of Understanding*, Kunsthal Charlottenborg 2014, *The Nordic Model*, Kim Einarsson eta Cecilia Widenheim kuradoreekin batera, Malmö Art Museum, Malmö, 2013; *Leigh Ledare et.al*, Elena Filipovic kuradorearekin batera, Kunsthal Charlottenborg, Kopenhage 2013, eta Joachim Koester: *If One Thing Moves, Everything Moves*, Kunsthal Charlottenborg, Kopenhage, 2012. Horrez gain, Hebertek kuradore-egonaldiak egin ditu hainbat tokitan, besteak beste: Monash University, Melbourne, Temple Bar Gallery & Studies, Dublin, Hordaland Art Centre, Bergen eta Platform Garanti Contemporary Art Centre, Istanbul. *Self-Organised* nazioarteko antologia editatu zuen, Anne Szefer Karlsenekin batera, eta Londreseko Open Editions argitaletxeak kaleratu zuen lan hori, *Occasional Table* sortaren barruan.



Desde el corazón de Madrid viene este grupo con ganas de romper esquemas y caderas. Con una buena batería de sonoridades tropicales, Tremenda Jauría hace suyos ritmos como la cumbia, reggaetón, merengue y moombahtón, un cóctel festivo que se une a un discurso genuinamente combativo.

Con apenas un año de vida, desde que lanzaron a la red su primera canción Guerrillerxs Madriz, Tremenda Jauría ha girado por numerosos escenarios de toda la península impregnándose de músicas, lugares y gentes. El 3 de mayo de 2016 vio la luz su primer LP, Mordiendo, un tremendo disco con colaboraciones de lujo como las cubanas Krudxs Cubensis o los argentinos El Chavez, confirmándose como una de las sorpresas de 2016.

Madrilen bihotzetik dator talde hau, eskemak eta aldakak urratzeko gogoz. Tremenda Jauríak bere egiten ditu hainbat erritmo tropikal, hala nola cumbia, reggaetoia, merenguea eta moombahtón-a. Horiekin guztiekin festa-koktel bat osatzen du, betiere, diskurtso osoki borrokalari batekin.

Orain urtebete eskas sortu ziren: beren lehenengo abestia askatu zuten sarera, Guerrillerxs Madriz kantua, eta, orduz geroztik, penintsula osoko hainbat oholtzatan aritu dira, eta askotariko musikak, tokiak eta jendeak ezagutu. Maiatzaren 2an kaleratu zuten beren estreinako LP-a, Mordiendo. Sekulako diskoa da hori, eta hainbat taldek parte hartu du bertan, hala nola Kubako Krudxs Cubensis taldeak eta Argentinako El Chavez taldeak. Disko hori izan da 2016ko sorpresa nagusietako bat.



# TREMENDA JAURÍA

**Radio Symposium**
**Concierto, 28 de octubre de 2016**
**Dabadaba, Donostia-San Sebastián**

**Radio Symposium**
**Kontzertua. 2016ko urriaren 28an**
**Dabadaba, Donostia**

# WHAT, HOW & FOR WHOM / WHW

**What, How & for Whom/ WHW** es un colectivo curatorial formado en 1999 con sede entre Zagreb y Berlín. Está compuesto por Ivet Ćurlin, Ana Dević, Nataša Ilić and Sabina Sabolović y el diseñador y publicista Dejan Kršić. WHW organiza una serie de proyectos de producción, exposición y publicación, y, además, dirige la galería Gallery Nova en Zagreb.

Llevaron a cabo su primera exposición el año 2000, en Zagreb: *What, How & for Whom, on the occasion of 152nd anniversary of the Communist Manifesto*. A partir de entonces, WHW han sido curadores de numerosos proyectos internacionales, así como *Collective Creativity* en el Kunsthalle Fridericianum, en 2005, *What Keeps Mankind Alive?*, en la undécima Bienal de Estambul, en 2009 y *One Needs to Live Self-Confidently...Watching* en el pabellón de Croacia, en la Bienal de Venecia número 54, en 2011. Recientemente, han tomado parte en diversos eventos, como, por ejemplo, el festival Meeting Points 7, que tuvo lugar en Zagreb, Amberes, el Cairo, Hong-Kong, Beirut, Viena y Moscú, bajo el título de Ten thousand wiles and a hundred thousand tricks, en 2013 y 2014; la exposición *Really Useful Knowledge*, en el Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía de Madrid, en 2014; la exposición *So You Want To See*, en la galería e-flux de Nueva York, en 2015; la *Retrospective by appointment* de David Maljković, en la galería Gallery Nova de Zagreb...

Radio Symposium
Conversación. 28 de octubre de 2016
Tabakalera, Donostia-San Sebastián

**What, How & for Whom/ WHW** kuradore-talde bat da. 1999an sortu zen eta Zagreben eta Berlinen bizi dira. Bertako kide dira Ivet Ćurlin, Ana Dević, Nataša Ilić, Sabina Sabolović eta Dejan Kršić diseinatzaile eta publizista. WHW taldeak hainbat ekoizpen-, erakusketa- eta argitalpen-proiektu kudeatzen ditu, eta Gallery Nova zuzentzen, Zagreben.

2000. urtean egin zuten beren lehen erakusketa, Zagreben: *What, How & for Whom, on the occasion of 152nd anniversary of the Communist Manifesto*. Orduz geroztik, WHW hainbat nazioarteko proiektutan aritu dira, hala nola *Collective Creativity*, 2005ean, Kunsthalle Fridericianum arte-zentroan; *What Keeps Mankind Alive?*, 2009an, Istanbulgo 11. Biurtekoan, eta *One Needs to Live Self-Confidently...Watching*, 2011n, Veneziako 54. Biurtekoan, Kroaziako atalean. Azkenaldian, hainbat proiektutan ibili dira, hala nola Meeting Points 7 jaialdian, Zagreb, Antwerpen, Kairon, Hong-Kongen, Beiruten, Vienan eta Moskun egin zen jaialdi hori, Ten thousand wiles and a hundred thousand tricks izenpean, 2013an eta 2014an. Horrez gain, 2014an, erakusketa antolatu zuten, *Really Useful Knowledge*, Madrilgo Reina Sofia museoan, eta, 2015ean, aldiz, *So You Want To See*, e-flux galerian, New Yorken, eta David Maljković, *Retrospective by appointment*, Gallery Nova galerian, Zagreben.

Radio Symposium
Elkarrizketa. 2016ko urriaren 28an
Tabakalera, Donostia-San Sebastián



Zaramari es una asociación que desarrolla proyectos culturales sobre urbanismo y arquitectura. A través de sus actividades promueven la innovación cívica y la creatividad urbana con el propósito de favorecer una cultura de la participación ciudadana que contribuya al cuidado y la mejora del territorio. Anualmente producen el festival URBANBAT, un proyecto cultural de investigación colectiva y educación expandida que explora las posibilidades de aprendizajes múltiples que ofrece la ciudad para la formación de una ciudadanía participe en la transformación de su entorno. Se trata de aprendizajes basados en la observación, el contacto y la investigación de la realidad urbana, con el objetivo de propiciar iniciativas que contribuyan al desarrollo de ciudades más habitables.

Hirigintzari eta arkitekturari buruzko proiektu kulturalak garatzen dituen elkarte bat da. Euren jardueren bitartez, hiri-berrikuntza eta -sormena bultzatzen dituzte, lurraldea zaintzen eta hobetzen lagunduko duen hiritarren parte hartzeko kultura bideratzeko asmoarekin. URBANBAT jaialdia antolatzen dute urtero: ikerkuntza kolektiboko eta hezkuntza zabaleko proiektu kulturala, hiritarrak prestatzeko eta ingurunea eraldatzen parte hartzeko hiriak eskaintzen dituen era askotako ikaskuntza-aukerak ikertzen dituena. Ikaskuntza horiek hiriko errealitatea behatzen, ukitzen eta ikertzen dituzte, hiri bizigarriagoak garatzen laguntzeko ekimenei bide emateko helburuarekin.



# ZARAMARI

**Radio Magazine**
**Conversación, 22 de junio de 2016**
**Azkuna Zentroa, Bilbao**

**Radio Magazine**
**Elkarrizketa. 2016ko ekainak 22**
**Azkuna Zentroa, Bilbo**








ARTEMICASA


























LaPublika








LaPublika




LaPublika




LAPUBLIKA



# Arte-praktikek nola eraikitzen dute esparru publikoa?

¿Cómo construyen
las prácticas artísticas
esfera publica?

Arte- praktikek
nola eraikitzen dute
esparru publikoa?

Ane Rodríguez / Arantza Lauzirika / Natxo Rodríguez
Lourdes Fernández / Pablo Berástegui

Aída Sánchez de Serdio / An Mertens / Andrea Estankona. Grupo Orea
Bani Brusadin / Belén Gopegui / Cuauhtémoc Medina / Danele Sarriugarte
Daniel García Andújar / Ferran Barenblit / Gerard Ortin
Giulia Loli. Mutamassik / Irene Amengual / Jaime Iregui / Jeremy Deller
Jesús Carrillo / Josefina Roco. Grupo Orea / Latitudes / Le Parody
Los Torreznos / MawatreS. Grupo Orea / Oier Iruretagoiena
Okela / Pedagogías y esfera pública. Grupo
Sra Polaroiska

## LA PREGUNTA

Una línea de trabajo transversal que recorre toda LaPublika y consiste en trasladar a todas las personas implicadas la pregunta-eje que inspira el proyecto:

¿cómo, desde tu experiencia y perspectiva, las prácticas artísticas construyen esfera pública?

Artistas, profesionales, colectivos y responsables de instituciones han respondido a LaPregunta en formato audio, en apenas unos minutos y con una multitud de perspectivas y estilos, desde la teoría, el sonido, la poesía, la improvisación o la acción. LaPregunta se ha abierto también a participantes, público y oyentes, mediante un buzón de voz accesible en

www.lapublika.org.

Estos son fragmentos de algunas de las respuestas obtenidas. La totalidad, reflejo de las muchas voces convocadas en este proyecto, está disponible en audio y texto en…

www.lapublika.org.

## GALDERA

Zeharkako lan-ildo bat da LaPregunta. Alderik alde zeharkatzen du LaPublika eta, horren bidez, parte hartu duten pertsona guztiei helarazi diegu proiektuaren iturburuko galdera-ardatza:

Arte-praktikek zelan eraikitzen dute esparru publikoa (betiere zure esperientzia eta ikuspuntuaren arabera)?

Askotariko jendeak erantzun dio LaPregunta galderari, hala nola profesionalek, taldeek eta instituzioetako arduradunek. Audio bidez erantzun diote galderari, minutu gutxiko audioen bidez erantzun ere, eta askotariko ikuspegi eta estiloekin egin dute: teoria, soinua, poesia, inprobisazioa eta ekintza. Bestalde, parte-hartzaileei, ikusleei eta entzuleei ere zabaldu diegu galdera; horretarako, ahots-postontzi bat jarri dugu martxan, hemen:

www.lapublika.org.

Hona hemen zenbait erantzun. Erantzun guztiak webgunean daude entzungai eta irakurgai, proiektu honetara deitu ditugun askotariko ahotsen isla:

www.lapublika.org.

## ANE RODRÍGUEZ

Directora Cultural de Tabakalera Centro Internacional de Cultura Contemporánea.

(…)

Por otra parte, tenemos el proyecto Nuevos Comanditarios, donde se les da voz a diversos públicos y comunidades de la sociedad. Tras abrir una convocatoria en Tabakalera, el proyecto seleccionado ha sido el de un colectivo de mujeres de Hernani. Querían cambiar el nombre de una calle nombrada en honor a un hombre, a llamarla Andrekale (Calle de las mujeres). El proyecto se realizó con dicho colectivo que trabajó junto a Haizea Barcenilla con Sra. Polaroiska para desarrollar un proyecto artístico que de alguna manera reflejase la presencia de las mujeres en la sociedad hernaniarra. A través de este proyecto, se ha visibilizado la necesidad de que las mujeres tengan una mayor presencia en el espacio público, que, al final, también contribuye a la narración de la historia. El proyecto ha sido una manera de visibilizar todo eso y también de hacerse eco de ello en otros foros y desde otras perspectivas.

## ANE RODRÍGUEZ

Tabakalera Kultur Garaikideko Zentro Garaikidearen kultur zuzendaria.

(…)

Bestalde, Komanditario Berriak proiektua dago, non hainbat publiko eta komunitateei, gizarteari, ahotsa ematen baitzaie. Deialdi bat ireki ondoren, emakume talde baten eskaera landu dugu estreina. Hernaniko kale bati gizonezko izena kendu nahi zioten, eta Andrekale ipini. Hernaniko kolektibo horrek, Haizea Barcenillak eta Sra. Polaroiskak mamitu dute proiektua. Proiektu honen bidez ikusarazi nahi zen emakumeak gehiago agertu beharko liratekeela espazio publikoan, zeren, azken batean, historiaren kontakizunean ere eragiten du horrek. Proiektuaren bidez hau guztia ikusarazi dugu, eta beste foro batzuetan ere oihartzuna eman.

## ARANTZA LAUZIRIKA NATXO RODRIGUEZ

Dekanoa eta dekanordea, Unibertsitate Hedapena, Arte Ederretako Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

(…)

Erraz aurreikusten da, baldin eta unibersitatea formakuntza tresna bat bada, praktika artistikoen heziketak esparru publikoa eraikitzen duela. Eskola edo ikastola batean bezala. Baina guk hiru ardatz hauek azpimarratu nahi genituzke beste batzuen artean. Alde batetik, nola eraiki hiri edo komunitatea unibertsitatetik. Hainbat proiektu egiten ari gara hirian presentzia izateko baina hiriaren eraikitzean parte hartzeko ere bai. Bestetik, sareak nola ehuntzen diren beste eragileekin eta gure berezko komunitatearekin. Hau da, sortzen diren proiektu gazteak eta gure ikasle ohiek edo inguruan mugitzen direnek egindako ekimen berriak sostengatzen ditugu. Eta azkenik, “zaBBAAlik” deitu dugun hori: fakultateko aurrekontua irekitzeko saiakera bat da. Horrela, ikasleek, eta baita ikasle ohiek ere, neurri txiki batean, gauzak proposatzeko erabil dezakete. Eta ez bakarrik proposamenak egiteko, baizik eta kudeatzeko eta horretaz arduratzeko unibertsitate barruan. Nolabait, aurrekontu hori euren eskuetan jartzen da, haiek erabaki dezaten, eta zer egin eta zer proposatu nahi duten gauzatzeko ahalmena dute.

## ARANTZA LAUZIRIKA NATXO RODRÍGUEZ

Decana y vicedecano de Extensión Universitaria, Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco . UPV-EHU

(…)

Se prevé fácilmente que como la universidad es una herramienta de formación, entonces la educación sobre prácticas artísticas crea esfera pública, igual que pasa en las escuelas y las ikastolas. Pero nosotros queremos hacer hincapié en estos tres ejes, entre muchos otros. Por una parte, cómo construir la ciudad o la comunidad, partiendo desde la universidad. Estamos realizando varios proyectos para obtener una presencia en la ciudad y también para participar en la construcción de la ciudad. Por otra parte, cómo se tejen redes con otros agentes y con la comunidad que nos es propia. Es decir, apoyamos proyectos jóvenes y las iniciativas realizadas por nuestros ex alumnos y ex alumnas y la gente de su entorno. Finalmente, tenemos el proyecto denominado “zaBBAAlik”, con el objetivo de intentar abrir el presupuesto de la facultad. Así, el alumnado y el ex alumnado puede proponer cosas, en cierta medida. Y no sólo eso, también pueden gestionar y ocuparse de ello dentro de la universidad. De alguna manera, la intención es poner ese presupuesto en manos del alumnado, para que decidan qué hacer, y

así tener la oportunidad de hacer y proponer lo que quieran.

## LOURDES FERNÁNDEZ

Directora Azkuna Zentroa

(…)

"¿Cómo las prácticas artísticas construyen esfera pública?". Más que construir, yo creo que la transforman. El gran valor del arte es la capacidad de transformación de las personas y ver la realidad con otra mirada. Eso es lo más interesante desde mi punto de vista y por eso me he dedicado a ello. Aunque más que construir sea transformar, obviamente cuando hay una transformación se construye algo nuevo. Pero creo que las prácticas artísticas son por eso vitales en la esfera pública. Entendiendo por esfera pública todo este maremagnum compartido, virtual y real. (…) Yo creo que en este momento en Azkuna Zentroa, hay una influencia bidireccional. (…) Y precisamente en ese encuentro bidireccional es donde creo que está la capacidad de unirnos y de esta forma ejercer el arte. (…) Creo que es por lo que estamos trabajando, lo que pasa es que no es fácil, no es nada fácil.

## LOURDES FERNÁNDEZ

Azkuna Zentroko zuzendaria

(…)

"Arte-praktikek zelan eraikitzen dute esparru publikoa"? Eraiki baino, nik uste dut eraldatu egiten dutela. Artearen baliorik handiena da pertsonak eraldatzeko gai dela eta, arteari esker, gai garela errealitateari beste modu batean begiratzeko. Nire iritziz, horixe da interesgarriena, eta horrexegatik aritu naiz lan honetan. Dena dela, nahiz eta arte-praktikek esparru publikoa eraldatzen duten, esparru publikoa eraiki baino, egia da, bestalde, zerbait eraldatzen duzun bakoitzean, gauza berri bat eraikitzen duzula. Baina iruditzen zait arte-praktikak horrexegatik direla hain funtsezkoak esparru publikoan. Noski, esparru publikotzat hartzen dut anabasa konpartitu hori guztia, birtuala eta erreala. (…) Nire iritziz, Azkuna Zentroan, bi norabidetako eragina dago, une honetan behintzat. (…) Hain zuzen ere, bi norabidetako topaleku horretan datza gu elkartzeko gaitasuna eta artea egiteko modu hauxe. (…) Uste dut bide horretan ari garela, baina ez da erraza, ez da batere erraza.



## PABLO BERÁSTEGUI

Director General de Donostia / San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura.

(…)

Dentro del proyecto Donostia 2016, podría citar dos ejemplos que me vienen especialmente a la cabeza. Uno sería Tuiza de Federico Guzmán, que se presentó en Madrid y consiste en una intervención artística que sirve de ágora donde tienen lugar un enorme número de actividades que permiten reflexionar sobre el postcolonialismo, el rol de la mujer, etcétera… La obra en sí misma genera ese espacio que favorece la construcción de esfera pública, pero es adicional ya que no solamente está la obra sino que además el artista crea el contexto. Y en esta misma línea, otro ejemplo un poco más sutil es el trabajo de Maider López Fuentes/Iturriak. Este es un proyecto que hemos presentado recientemente en el que, aparte de todo el discurso que contiene la

## PABLO BERÁSTEGUI

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren zuzendari orokorra.

(…)

Donostia 2016 proiektuaren barruan, bi adibide aipatu nahi nituzke, ondo gogoan ditut-eta. Bata, Tuiza, Federico Guzmán artistarena. Madrilen aurkeztu zuen. Esku hartze artistiko bat zen, eta agora moduan erabil zitekeen: han, jarduera mordo bat egin ziren, eta, horiei esker, hainbat gairen bueltan gogoetatu, besteak beste poskolonialismoaz eta emakumeen rolaz. Obrak berak sortutako espazio horri esker eraiki zen esparru publikoa, baina gehigarria ere bazen, izan ere, obraz gain, testuingurua ere sortu zuen artistak. Ildo horretan, Maider Lopezen Fuentes/Iturriak lana aipatu nahi nuke; apur bat sotilagoa da. Orain gutxi aurkeztu dugu proiektu hori, eta piezak berak dakarren diskurtsoaz gainera (memoria berreskuratzea eta beste), obrak toki komun bat sortu du; azken batean, herritarrak eta bisitariak han elkar daitezke, eta hainbat gairen bueltan hausnartu, hala nola hirigintzaz eta historiaz, baina baita hiriburutzari buruz jarduteko balio dezaketen kontuez ere, eta mahai gainean ipin daitezke esparru publikoaren eraikuntzarekin lotutako eztabaidak.

pieza (recuperación de la memoria, etcétera), lo que está generando finalmente es un espacio común en el que los ciudadanos y visitantes de la ciudad pueden interactuar entre ellos y reflexionar sobre cuestiones que varían desde el urbanismo y la historia hasta otras cuestiones que pueden servir incluso para hablar de la capitalidad, y plantear debates que pueden incidir en la idea de construir esfera pública.



## AÍDA SÁNCHEZ DE SERDIO

(…)

Por otro lado, creo que la parte más interesante de la posibilidad de producir esfera pública desde las prácticas artísticas está sobre todo en los modos de hacer, en cómo operamos en el campo del arte. Hay que tener en cuenta que es fundamental cómo nos constituimos como profesionales en el ámbito de la producción artística, con quién trabajamos, de qué maneras, bajo qué condiciones, para producir qué discursos, en qué marcos discursivos… Aunque también es importante aquello que tiene que ver con la producción simbólica y discursiva de discusión, el cómo trabajamos, en qué estructuras, relaciones, modos y regímenes económicos y cómo lo luchamos desde ahí es lo más importante. De manera que podría haber producciones artísticas que están generando un debate temático muy interesante pero que en sus modos de hacer son totalmente corrosivas para una cultura sostenible, deliberativa y de debate.

## AN MERTENS

(…)

La organización de la que formo parte, Constant, es una organización para arte y media. Como trabajamos con dinero público, nos interesa



## AÍDA SÁNCHEZ DE SERDIO

(…)

Bestalde, nire iritziz, arte-praktikek esparru publikoa sortzeko daukaten gaitasunaren harira, egiteko moldeak dira alderdirik interesgarriena, alegia, nola ekiten dugun artearen alorrean. Funtsezko gaiak dira: zer-nolako profesionalak garen arte-ekoizpenaren barruan, zeinekin egiten dugun lan, zer modutara, zer baldintzapean, zer narratiba sortzeko asmoz, zer diskurtso-markoren barruan… Garrantzitsuak dira, bai, eztabaidaren ekoizpen sinbolikoa eta diskurtsiboa, baina, are garrantzitsuagoa da nola egiten dugun lan, zelako egituren, harremanen, molderen eta erregimen ekonomikoren pean, eta, hortik abiatuta, nola egiten dugun borroka. Beraz, zenbait arte-ekoizpenek eztabaida benetan interesgarri bat sor dezakete, gaien aldetik, baina egiteko moduen aldetik, ordea, izugarri kaltegarriak dira, bai behintzat, kultura iraunkor, hausnarkor eta eztabaida-zale bat sortu nahi badugu.

## AN MERTENS

(…)

Constant erakundeko kidea naiz: artea eta komunikabideak jorratzen ditugu. Diru publikoa

el dominio público. Creo que construimos esfera pública o al menos mucho contenido para ella. Intentamos cuidar de este espacio, no solo de la esfera pública física sino también de la virtual, ya que nuestro interés principal es la red como lugar de conocimiento. Se trata de crear espacios virtuales que prioricen la esfera pública. Una parte son decisiones diarias: elegir nuestros espacios de publicación, encuentro, negociación. Colaboramos con una organización que tiene un servidor independiente, trabajamos con un proveedor con compromiso ético, no utilizamos herramientas de Google. Usamos Duck Duck Go en lugar de Google (aunque ahora parece que están alojados con Amazon), Etherpad o Framapad en lugar de Google Docs, utilizamos Wikis o WordPress… Lo hacemos todo con software libre, forma parte de nuestros compromisos y nos interesa como investigación artística. Es un placer conocer a la gente detrás de estas herramientas, personas apasionadas, con visiones políticas interesantes e ideas nuevas.

## ANDREA ESTANKONA / OREA. GRUPO DE INVESTIGACIÓN

(…)

El concepto en sí se ha visto tan modificado que quizás deberíamos dejar de utilizar



jasotzen dugu, horregatik interesatzen zaigu jabetza publikoa. Niri iritziz, esparru publikoa eraikitzen dugu, edo, gutxien-gutxienik, eduki asko sortzen dugu esparru publiko horretarako. Eremu hori zaintzen saiatzen gara, ez soilik esparru publiko fisikoa, baizik eta birtuala ere; izan ere, ezagutza-gune bat den heinean interesatzen zaigu sarea, nagusiki. Gakoa da eremu birtualak sortzea eta esparru publikoa lehenetsi dezatela. Alde batetik, eguneroko erabakiak daude: non argitaratuko dugun, non topatuko garen, non negoziatuko dugun. Zerbitzari independiente batekin dabilen erakunde batekin egiten dugu lan, konpromiso etikoa duen hornitzaile batekin, eta ez dugu Google tresnarik erabiltzen. Duck Duck Go erabiltzen dugu, Google beharrean (nahiz eta, antza, orain Amazonen hartzen duten ostatu), Etherpad edo Framapad baliatzen dugu, Google Docs beharrean, Wikiak eta Wordpress erabiltzen ditugu… Software librearekin egiten dugu dena: gure konpromisoa da hori, eta interesgarri deritzogu, baita arte-ikerketa moduan ere. Plazer bat da tresna horien atzean dabilen jendea ezagutzea, pertsona sutsuak baitira, ikuspegi politiko interesgarriak eta ideia berriak baitakartzate.

ese término y buscar alternativas que respondan a ese carácter fragmentado y rizomático de esta nueva esfera pública. De modo que, ¿cómo se genera esta esfera pública rizomática? Desde mi punto de vista, mediante dos elementos: Por un lado estaría el elemento nuclear de la visión habermasiana, que es la comunicación como algo discursivo, propositivo y racional. Al mismo tiempo estaría lo que podemos llamar ‘expresión’, que tiene que ver con los deseos, la sensibilidad, el reconocimiento mutuo, la experiencia, los afectos… Es aquí donde las prácticas artísticas tienen un papel protagonista y fundamental. Comunicación y expresión, aunque separados, están en constante interrelación. La expresión, el lugar natural de las prácticas artísticas, afecta a una nueva sensibilidad que favorece prácticas y significados compartidos y que en un primer momento transcienden lo discursivo. Luego toma forma de algo más racional, más vinculado a la comunicación y, en última instancia, pasa a formar parte de lo político y de la gestión de la organización social.

## BANI BRUSADIN

(…)

Es una paradoja porque tenemos la sensación de que las redes y los medios



## ANDREA ESTANKONA / OREA. IKERTEKA TALDEA

(…)

Kontzeptua bera aldatu da, eta, akaso, termino hori erabiltzeari utzi behar genioke, eta alternatibak bilatu, hartara, esparru publiko zatikatu eta errizomatiko honi erantzuteko, berria baita. Beraz, nola sortzen da esparru publiko errizomatiko hori? Nire iritziz, bi elementuren bidez sortzen da: batetik, hortxe dago Habermasen ikuspegiaren funtsa, alegia, gauza diskurtsiboa, arrazionala eta proposatzailea dela komunikazioa. Era berean, hortxe daukagu “adierazpena” deritzon hori: horrekin lotzen ditugu desira, sentikortasuna, elkar aitortzea, esperientzia, txera… Eremu horretan dira arte-praktikak protagonista eta funtsezko. Komunikazioa eta adierazpena, bereizita egon arren, elkarrekiko harremanean daude beti. Artearen eremu naturala da adierazpena, eta sentikortasun berri bati eragiten dio. Horri esker, praktika eta esanahi konpartituak lantzen dira, eta, hasieran behintzat, diskurtsoaz gaindi doaz. Gero, arrazionalago bihurtzen dira, komunikazioari lotuago, eta, azkenik, esparru politikoaren eta gizarte-antolakuntzaren parte bihurtzen dira.

digitales han proporcionado enormes herramientas de autoexpresión y de democratización para la interacción y, aunque en muchos casos es así, a veces estas interacciones emancipadas y de libre expresión ocurren solamente en la parte más superficial, en el interfaz de las redes. El reto es descubrir qué estructuras se encuentran tras la libre expresión en los medios online. Para los artistas que buscan abrir la esfera pública se crea un reto aún más específico de estudiar en qué condiciones se da actualmente ésta, a qué nivel de profundidad o atravesando qué niveles de esta gran estructura de capas, tecnológicas, sociales o mixtas, que conforman la sociedad contemporánea mediatizada.

## BELÉN GOPEGUI

(…)

En la producción e interpretación de las prácticas artísticas procuro atenerme a unas palabras de Robin George Collingwood quien, en Los principios del arte, dijo: “El artista debe profetizar, no en el sentido de que anuncie el porvenir, sino en el sentido de que dice a su público, a riesgo de disgustarle, los secretos que guarda su corazón. Su cometido como artista es hablar alto, volcando al exterior las impurezas del ánimo. Pero



## BANI BRUSADIN

(…)

Paradoxa bat da, iruditzen baitzaigu, sare eta komunikabide digitalei esker, sekulako baliabideak lortu ditugula, geure iritziak adierazteko eta bata bestearekin aritzeko, eta, bai, sarri, halaxe da, baina batzuetan, elkarrizketa askatu eta aske hauek azalean baino ez dira sortzen, sareen interfazeetan. Erronka da ikustea ea zer egiturek eusten dioten online komunikabideen adierazpen askatasunari. Esparru publikoa zabaldu nahi duen artistak, ordea, erronka zehatzagoa dauka aurrean, hain justu ere, aztertzea ea zer-nolako baldintzetan dagoen esparru publiko hori, zer sakon dagoen, zenbat maila zeharkatu behar diren esparru horretara iristeko, gizarte garaikide mediatizatuaren egitura handian barrena, mintz teknologikoz osatzen baita, mintz sozialak eta mistoak.

## BELÉN GOPEGUI

(…)

Arte-praktiken ekoizpenaz eta interpretazioaz ari, Robin George Collingwooden hitz batzuei heltzen diet beti, zera esan baitzuen, Los principios del arte liburuan: “Artistak profeta behar du izan, baina ez du etorkizuna iragarri behar, aitzitik, publikoari azaldu

no por ello debe expresar, como nos llevaría a creer la teoría individualista del arte, sus propios secretos. Los secretos que debe expresar son los de la comunidad. La razón de que la comunidad le necesite es que ninguna conoce su propio corazón; y al faltarle ese conocimiento, la colectividad se engaña a sí misma en materias cuya ignorancia equivale a la muerte”. Robin George Collingwood, Los principios del arte, Fondo de cultura económica, México, 1960.

## CUAUHTÉMOC MEDINA

(…)

Tengo muy claro que una parte del arte reciente ha consistido en que ocurra un espacio de expresión, interacción y diálogo avanzado. Y que en ese sentido la proximidad de la noción de esfera pública como un proyecto político es importante, en particular en todo lo que involucra las prácticas colaborativas o relacionales. Me da la impresión, y esto tiene relación con mi experiencia propia, que la práctica artística (independientemente de la forma que toma) produce esferas paralelas de opinión. Hay una manera de actuar, sobre todo en la práctica reciente, construyendo campos de discusión sobre aquello que no está incluido



behar dizkio bihotzean gordeta dauzkan sekretuak, nahiz eta, akaso, publikoari gustatu ez. Artistaren betebeharra da ozen hitz egitea, arimaren lohiak kanpora botatzea. Hala ere, artearen teoria indibidualistak kontrakoa esaten digun arren, lohiak kanporatze horrek ez du esan nahi artistak bere sekretu propioak haizatu behar dituenik. Kontrara, komunitatearen sekretuak adierazi behar ditu. Komunitateak artista behar du, hain zuzen ere, inongo komunitatek ez duelako bere bihotz propioa ezagutzen, eta, hala, taldeak bere burua engainatzen du, hainbat arloren harira. Arlo horiek ez ezagutzea heriotzaren parekoa da”. Robin George Collingwood, Los principios del arte, Fondo de cultura económica, México, 1960.

## CUAUHTÉMOC MEDINA

(…)

Argi daukat, azkenaldiko artearen puska handi baten helburua izan da toki bat sortzea, bertan gauzak adierazteko, elkartrukatzeko eta solasteko. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da esparru publikoa proiektu politikotzat hartzea, batez ere praktika kolaboratiboez edo harremanezkoez ari garenean. Iritzi-esparru paraleloak sortzen dituzte arte-praktikek, nire iritziz behintzat, eta,

en los debates de la esfera pública, que no están validados por el lenguaje, como están construidos de manera académica o políticamente, o que se dirigen a plantear preocupaciones que todavía no están del todo formuladas. Entonces, estas esferas públicas paralelas no están integradas en la esfera pública mayor y son, en cierta manera, tanto lugares de experiencia como de posibilidades que no tendrían cabida en otro sitio. En la misma medida en que el poema alberga posibilidades de palabra que no pueden ser expresadas en el televisor.

## DANELE SARRIUGARTE

(…)

Fuimos a ver una performance que organizaba el teatro. Al principio no nos quedó nada claro de qué coño iba la performance: los trabajadores nos dijeron que era en el piso de arriba, pero al subir, sólo vimos una exposición de diversas obras. Y gente como nosotras, espectadores, de aquí para allá. Paseando, de la manera en la que caminamos en este tipo de sitios: bastante despacio, bastante tranquilos, bastante callados. Paseábamos nosotras también así cuando, de repente, empezamos a ver que cinco o seis personas cruzaban las salas sin parar y de

noski, neure bizipenekin lotuta. Badago ekiteko modu bat, batez ere azkenaldiko praktiketan, eta eztabaida-guneak eraikitzen dira, esparru publikoan sartzen ez den horri guztiari buruz jarduteko, mintzairak baliozkotzat jotzen ez duen horretaz, esparruaren eraikuntza akademiko eta politikoaz eta oraindik guztiz adierazi gabe dauden bestelako kezkez. Beraz, esparru publiko paralelo horiek oraindik ez daude esparru publiko nagusian txertatuta eta, hein batean, esperimentatzeko gune dira, bai eta beste leku batean ezin gertatu liratekeen aukeren gune. Hala gertatzen da poemekin ere, aukerak irekitzen dizkiote hitzari, telebistak ezingo lituzkeenak sekula sortu.

## DANELE SARRIUGARTE

(…)

Bertan antolatutako performance bat ikustera joan ginen. Hasiera batean ez geneukan batere argi zer arraio ote zen performancea: langileek esan ziguten goiko solairuan zela, baina gora igota, erakusketa baizik ez genuen ikusi, askotariko obrekin. Eta jendea, gu bezala, ikusleak, harat eta honat. Paseoan, horrelako tokietan ibili ohi garen moduan: nahiko poliki, nahiko lasai, nahiko isilik. Hara non, baina, hasten garen sumatzen badirela bospasei lagun etengabe



manera curiosa. Una iba muy despacio: dos pasos por minuto, como mucho. Otra, en cambio, iba con prisa: caminaba rápida y sonoramente. La tercera iba saltando, la cuarta bailando, y la quinta caminaba de manera normal, pero de vez en cuando se detenía en seco y cambiaba de dirección… Vale, vale, vale, ya sabemos de qué trata la performance. Sin embargo, no nos afecta de ninguna manera, o eso parece. Miramos y sonreímos a los actores caminantes, y nos preguntamos si ya habremos identificado a todos. El cambio viene después.

## DANIEL GARCÍA ANDÚJAR

(…)

Desgraciadamente el campo de desarrollo de las prácticas artísticas, sobre todo en este país y bajo este estado, se ha ido reduciendo. En los últimos años se ha impuesto un ámbito regulador que ha afectado a lo que entendemos por esfera pública con leyes como la “ley mordaza”. Hace unos meses la televisión pública alemana me entrevistó sobre ella. La periodista me trajo el catálogo de mi última exposición en el Reina Sofía y fue, pieza por pieza, diciéndome qué trabajos de los que yo había realizado en los 80’-90’ son ilegales ahora mismo: no puedes

aretoak gurutzatzen eta etengabe gauza arraroak egiten. Bat izugarri motel dabil: minutuko bi pauso ematen ditu, asko jota. Bestea, aldiz, ziztuan doa: bixi-bixi eta ozen ematen ditu pausoak. Hirugarrena saltoka doa, laugarrena dantzan eta bosgarrena ibilkera arruntean, baina tartean behin geratu egiten da eta kolpez aldatzen norabidea… Bale, bale, bale, badakigu zertan datzan performancea. Badirudi, hala ere, ez digula inondik inora eragiten. Irribarrez egiten diegu so ibiltari-antzezleei eta elkarri galdetzen diogu ea den-denak identifikatuko ote genituen honezkero. Aldaketa gero dator.

## DANIEL GARCÍA ANDÚJAR

(…)

Zoritxarrez, artek-praktikak garatzeko alorra murriztu egin da, batik bat herrialde honetan eta estatu honen pean. Azken urteotan, zenbait arau ezarri dira, eta esparru publikotzat jotzen dugun horri eragin, hainbat legeren bidez, hala nola “mozal legea”. Orain dela zenbait hilabete, elkarrizketa bat egin zidaten Alemaniako telebista publikoan. Kazetariak katalogo bat ekarri zidan, hain zuzen, Reina Sofía museoan egindako azken erakusketarena, eta piezaz pieza aztertu. 80ko eta 90eko hamarkadan egin nituen lanei erreparatu

ponerte un traje de policía, no puedes alquilar este tipo de cosas, no puedes haber sacado esta página web, no puedes haber tomado esta fotografía… Decía Habermas también que “la esfera pública en la democracia de masas en los Estados del Bienestar, se caracteriza por un debilitamiento singular de sus funciones críticas”. Creo que nos encontramos en ese estado.

## FERRAN BARENBLIT

(…)

Sin embargo, la crisis contemporánea parece ser la crisis del modelo de las crisis. Posiblemente dentro de algún tiempo no estudiemos la esfera pública desde el modelo de las crisis porque haya quedado invalidado al encadenar crisis tras crisis. En el fondo, el modelo de la crisis implica que hay momentos que no lo son, suponiendo una confianza positivista en el progreso que quizá ya sabemos que es imposible, que enlaza casi con una situación utópica. La cuestión de la construcción de la esfera pública también tiene que ver con el modelo del análisis. Analizar está bien pero no es suficiente. Deben crearse para eso diálogos horizontales, volátiles y dinámicos, que pongan en relación todos los actores

zien, eta jakinarazi ea zer lan ziren ilegalak orain: ezingo zenuke polizia-jantzi bat ipini, ezingo zenituzke halako gauzak alokatu, ezingo zenuke halakorik atera webgune batetik, ezingo zenuke argazki hau egin… Habermasek esaten zuen, era berean, “Ongizate Estatuetan, masa-demokraziako esparru publikoan, jardun kritikoa ahuldu egiten da”. Bada, iruditzen zait egoera horretan gaudela.

## FERRAN BARENBLIT

(…)

Edonola den, badirudi gaur egungo krisia areago dela krisien ereduen krisia. Seguru asko, etorkizunean, ez dugu esparru publikoa krisiaren eredutik landuko, izan ere, eredu hori baliorik gabe geratuko da, etengabeko krisien ondorioz. Sakonean, krisien ereduak esan nahi du badirela krisizkoak ez diren zenbait sasoi, beraz, badago konfiantza positibista bat, garapenean sinesten da; aitzitik, akaso, guk badakigu, honezkero, ezinezkoa dela hori, egoera utopiko bat irudikatzea dela, kasik. Era berean, esparru publikoa eraikitzearen horrek badu loturarik analisi-ereduarekin ere. Aztertzea ondo dago, baina ez da aski. Horretarako, solasaldi horizontal, aldakor eta dinamikoak sortu behar



de la esfera pública. Es lo que algunos han venido a llamar la súper-diversidad.

## GERARD ORTIN

(…)

De cualquier forma, yo nunca he pensado mi práctica desde la intención de generar esfera pública. Resulta incluso complicado entender el concepto de ‘esfera pública’, qué significa o qué alcance tiene. Por ejemplo, este espacio donde nos encontramos, en el que estamos tratando de construir nuestros talleres varios artistas, no podría haber tenido tal uso hace unos años porque era un depósito de vino y aceite y estaba lleno de líquido. Poco antes de que entrásemos nosotros era un almacén de sanitarios. Ahora, nosotros llegamos aquí y tenemos la intención de establecer nuestros talleres y posiblemente hacer, también, un programa de actividades públicas para el barrio o para un sector determinado. Sí que tenemos una voluntad de generar algo o de tener un alcance desde este espacio, pero también pongo en duda que anteriormente no haya tenido alguna repercusión en la esfera pública, aunque no fuese desde las prácticas artísticas.

dira, eta esparru publikoko eragile guztiak harremanetan jarri. Super-aniztasuna esan izan zaio horri.

## GERARD ORTIN

(…)

Edonola ere, nik sekula ez dut nire arte-praktika ikuspegi horretatik abaitu, alegia, esparru publikoa sortzeko asmoz. Nekez ulertzen dut “esparru publiko”aren kontzeptua bera, zer esan nahi duen eta noraino iristen den. Adibidez, espazio honetan bertan, gure tailerrak eraiki nahi ditugu hainbat artistak, eta orain dela zenbait urte ezingo genuke hala erabili, izan ere, ardoa eta olioa gordetzeko erabiltzen baitzen eta likidoz beteta baitzegoen. Gu sartu aurretik, osasun-tresnen biltegi bat zen. Orain, geu etorri gara, eta gure tailerrak jarri nahi ditugu, eta, era berean, ekintza publikoak ere antolatu nahi ditugu, auzokoentzat edo jende-talde jakin batentzat. Bai, zerbait sortzeko edo zerbaiten eragiteko asmoa daukagu, espazio honetatik abiatuta, baina, era berean, neure buruari galdetzen diot ea toki honek lehenago ere ez ote duen inongo eraginik izan esparru publikoaren gainean, arte-praktikarik gabe ere.

### GIULIA LOLI / MUTAMASSIK

(…)

Siempre hemos de ser imaginativos sobre nuestra manera de comunicarnos, sí. Yo soy una artista absolutamente independiente y clandestina. No tengo plataformas, o agentes, o cosas virales, o redes, o lo que sea, todo es DIY. Como he dicho antes, creo que son semillas, las envío como si fueran polen y puede que haya incluso cierto secretismo en torno a todo ello. También siento, cada vez más, que, en términos de conexión política, “no habrá solución política sin solución espiritual”. Es decir, el verdadero cambio comienza en la mente de cada persona, e incluso más profundamente, en el alma de cada persona. Si no revolucionamos nuestra vida interior, muy profundamente, la verdad es que será inútil, porque volveremos a repetir la misma mierda una y otra vez. “Quizás, tal y como aventuran algunos capitalistas de riesgo, reducir nuestro estilo de vida no salvará el planeta, pero puede que salve nuestra alma, sin cuya integridad cualquier tecnología revolucionaria estará condenada”.

### IRENE AMENGUAL

(…)

En cualquier caso, hay que tener mucho cuidado con las relaciones entre los diferentes agentes y las jerarquías que se pueden establecer. Uno de los peligros de las prácticas artísticas en este contexto es que caigan en una posición de hegemonía y que aquellos que están trabajando colectivamente para generar debate terminen siendo instrumentalizados. Pero eso forma parte de las problemáticas del propio proceso.

### GIULIA LOLI / MUTAMASSIK

(…)

Sormena baliatu behar dugu beti, gure komunikatzeko moldearen harira, eta geure artea eta ideiak helarazteko bidearen harira. Artista independientea naiz, guztiz, sasian. Ez daukat halako plataformarik edo agenterik, gauza biralik, sarerik edo dena delakorik, oso DIY da guztia. Esan bezala, nire ikuspegitik, haziak dira, igorri egiten ditut, polena nola, eta, akaso, apur bat sekretua ere bada. Politikaren harira, gero eta gehiago iruditzen zait ez dela “konponbide politikorik egongo, konponbide espiritualik gabe”. [From liner notes of Mutamassik’s 2010 ‘That Which Death Cannot Destroy’.] Alegia, egiazko aldaketa norberaren gogoan abiatzen da, edo, are sakonago, norberaren ariman. Gure barne-bizitzak sakonki irauli ezean, guztiz alferrikakoa izango da, zeren, osterantzean, kaka bera errepikatuko dugu, behin eta berriro. “Akaso, kapitalista abenturazale batzuek esaten duten moduan, geure bizimoldeak murriztuz gero ez dugu mundua salbatuko, baina, ordea, geure arimak salba ditzakegu, eta gure arimei osorik eutsi ezean, teknologia iraultzaileek ez daukate inongo itxaropenik” [from ‘Personal Efficiency Index’ by G. Loli http://roughamericana.com/publicfiles/PEI_layout___.pdf]



### JAIME IREGUI

(…)

Finalmente, el tercer debate es sobre el arte en relación con la comunidad. Prácticas en las que el artista genera muchos trabajos o procesos de diálogo en relación abierta con comunidades pequeñas, barrios o comunidades vulnerables. Hay proyectos muy interesantes en estos momentos en diferentes zonas del país. Pero también, con los diálogos de paz y con los apoyos económicos que hay por parte del estado para favorecer proyectos artísticos en el post-conflicto, han aparecido muchos proyectos que simplemente buscan generar una colaboración de manera muy puntual con una comunidad para ganar visibilidad y reputación gracias a ello.



### IRENE AMENGUAL

(…)

Edonola ere, kontuz ibili behar dugu eragileen arteko harremanekin, hierarkiak ere ezar baitaitezke. Testuinguru horretan, arte-praktikek arrisku bat dakarte, hain zuzen ere, arteak toki hegemoniko bat hartzea, eta, ondorioz, eztabaida pizte aldera lanean ari direnak, azkenean, instrumentalizatzea. Hala ere, prozesuari berari datxekion arazoetako bat da hori.

### JAIME IREGUI

(…)

Azkenik, artearen eta komunitatearen arteko lotura ere sarri izan dugu eztabaidagai. Hizpidera ekarri ditugun arte-praktika horietan, artistak lan eta prozesu asko jartzen ditu martxan, komunitate txikiekin, auzoekin eta komunitate zaurgarriekin solasean aritzeko, modu irekian. Une honetan, gure herrialdeko hainbat tokitan, halako proiektu interesgarri ugari daude abian. Baina, era berean, bake-elkarrizketen harira, eta estatuak diru-laguntzak ematen dituenez gatazka-osteko arte-proiektuak bultzatzeko, bestelako proiektu asko ere agertu dira: proiektu horiek, ikusgarriago eta entzutetsuago bilakatzeko,

## JEREMY DELLER

(…)

Creo que la manera más simple es cuando un artista crea una gran escultura y gracias a ella se crea un espacio en el que la gente se congrega, y así se le añade algo a la vida de esa área pública. Ésa es la manera más simple o tradicional. Y luego está la otra manera, cuando un artista crea eventos o cosas, trabaja en proyectos que no son objetos o trabaja con el público, entonces creas otro tipo de energía con el público, creas otro tipo de vida pública. Estáis preguntando a la persona equivocada porque yo lo hago, no pienso sobre ello realmente, no pienso sobre el legado de las cosas que hago ni sobre sus efectos. Simplemente, a veces, hago que ocurra, si tengo suerte. Supongo que los artistas también ayudan al público a que mire más o de una manera diferente a su entorno, o que mire a su historia de manera diferente o de nuevo, y ésa es otra manera de crear una conciencia común con el público.

## JESÚS CARRILLO

(…)

En el descrédito actual hacia la institución (específicamente hacia la artística pero no exclusivamente) parecía que dichos acontecimientos que

aldizkako kolaborazio bat egiten dute komunitateekin, ez besterik.

## JEREMY DELLER

(…)

Modurik sinpleena da, akaso, artista batek eskultura handi bat egitea eta horri esker leku bat sortzea, non jendea biltzen baita; hala, gune publiko horren bizitza publikoa handitzen da. Hori da bide sinplea edo tradizionala. Baina, gero, badago beste modu bat ere: artistek gertakariak edo gauzak egiten dituzte, objektuak ez diren proiektuetan lan egiten dute, edo publikoarekin aritzen dira; orduan, bestelako energia bat sortzen duzu publikoarekin, bestelako bizitza publiko bat sortzen duzu. Pertsona okerrari ari zarete galdezka, zeren neuk egin egiten baitut, ez dut horren inguruan hausnartzen; egiatan, ez dut pentsatzen ea zer-nolako ondarea edo ondorioak dakartzaten neure ekintzek eta lanek. Batzuetan, hori lortzen dut, zorteko banabil. Bestalde, pentsatzen dut artistei esker jendeak beste modu batean edo gehiago erreparatzen diola bere inguruari edo historiari, eta hori ere bada publikoarekin batera kontzientzia komuna eraikitzeko bidea.



consistían en un cambio real para ser verosímiles ya no podían suceder dentro o en el centro de la institución artística como tal. Las encontrábamos en espacios insospechados y además ni siquiera nombradas como prácticas artísticas. Incluso a los alumnos les parecía mucho más fácil que sucedieran en esos espacios imprevistos que en la institución. Una institución en la que se sentían enormemente des-empoderados e incapaces. Imaginaban que esa posibilidad de construcción de esfera pública podría suceder, si acaso, en los márgenes de la misma. Se podría decir que aquella práctica artística que nos hace intuir o pone en práctica la construcción de una esfera pública es aquella que revela de un modo patente la obsolescencia de los modelos institucionalizados existentes.

## JOSEFINA ROCO / OREA. GRUPO DE INVESTIGACIÓN

(…)

Sin embargo, muchas veces las prácticas artísticas han sido funcionales para mantener un orden concreto de las cosas, favoreciendo una determinada posición de poder que no siempre ha beneficiado a la mayoría o a los sectores populares. ¿Cómo se da ese dinamismo?… Depende en última instancia de todos y de todas, aunque

## JESÚS CARRILLO

(…)

Gaur egun, jendeak ez du instituzioan sinesten (batik bat arte-instituzioan, baina ez soilik horretan), eta, beraz, egiazko aldaketa dakarten gertakariak, itxura batean, ezin ziren arte-instituzioaren barruan gertatu, bere horretan. Aitzitik, espazio harrigarrietan aurkitzen genituen, eta, sarri, ez ziren arte-praktikatzat ere jotzen. Ikasleei ere askoz errazagoa iruditzen zitzaien halako gauzak halako toki aurreikusi gabekoetan gertatzea, instituzioan beharrean. Instituzioaren barruan, botererik gabe eta ezgai sentitzen ziren, izugarriki. Ikasleen iritziz, esparru publikoa eraikitzeko aukera hori, gertatzekotan, esparru publikoaren bazterretan zen gertatzekoa. Zera esan liteke: arte-praktika batzuek esparru publikoa eraikitzen edo atzematen hastera garamatzate, eta, hain zuzen, praktika horiexek agerian uzten dute gaur egungo instituzio-ereduak zaharkituta daudela.

## JOSEFINA ROCO /OREA. IKERKETA TALDEA

(…)

Edonola ere, sarritan, arte-praktikei esker eutsi zaio gauzen ordena jakin bati, arte-praktikek mesede egin diote botere zehatz bati,

no compartamos las mismas capacidades o las mismas posibilidades de intervenir en ésta. Las prácticas artísticas ofrecen una buena oportunidad para trastocar el sistema establecido de manera creativa: con otro lenguaje, con otros registros y romper así con ese status quo.

## LATITUDES

(…)

Varios factores influyen en todo eso: agentes diversos, la manera en la que se invita al artista, los tiempos de los que dispone para trabajar, la estructura de los recursos a los que puede acceder -no sólo económicos sino también informativos, sociales-; y todo ello crea una especie de “gran paraguas” bajo el cual se desarrolla la dinámica de un proyecto artístico concreto.

Evidentemente, el país en el que se trabaja también influye. Igualmente, un proyecto que se lleva a cabo en un entorno rural no es lo mismo que un proyecto que se lleva a cabo en el contexto de una ciudad. Es un ejemplo muy obvio, pero, por otra parte, cada país entiende el espacio público a su manera, y comprende la política y las tradiciones de diferente manera.

nahiz eta botere horrek mesederik egin ez jendearen gehiengoari edo klase apalenei. Nola gertatzen da dinamismo hori? Azken buruan, guztion esku dago; hala ere, den-denok ez gara gai, neurri berean, horretan eragiteko, eta denok ez dauzkagu aukera igualak. Arte-praktikek bide ona eskaintzen digute ezarritako sistema sormenez iraultzeko: bestelako hizkuntzen bidez, bestelako erregistroen bidez, status quo-a urra daiteke.

## LATITUDES

(…)

Horren guztiaren barruan hainbat faktore daude, hala nola askotariko eragileak, artista gonbidatzeko modua, artistari lan egiteko eskaintzen zaion denbora, eskura dauzkan baliabideen egitura (ez soilik baliabide ekonomikoak, baizik eta informazio-baliabideak eta baliabide sozialak), eta, horrek guztiak, batera, “aterki handi” bat sortzen du, eta horren pean gertatzen da arte-proiektu baten dinamika zehatza. Bestalde, herrialdeek ere eragiten diote horri guztiari, jakina. Era berean, proiektu bat landagunean gertatzen bada, ez da izango hiri batean egiten den proiektu bat bezalakoa. Begien bistakoa da hori; hala ere, herrialde bakoitzak bere politika propioak ditu



## LE PARODY

(…)

En un concierto se puede ver claramente cómo se está produciendo algo que ya es en sí mismo constructivo: gente que se junta en un sitio en torno a un interés común y se relaciona con ello. No es un acto aislado, sino que transforma o involucra a la gente. Eso es algo clave, y es extrapolable a las otras artes. Incluso cuando no se trata de comunicación directa, cuando haces un disco y alguien lo escucha en su casa, también estás incidiendo en la construcción de un vínculo. Eso es lo que a mí me provoca el arte, ya no sólo como música, sino también como receptora. Son momentos de placer muy puro y desinteresado. No es discurso, no es afecto, es un intercambio que fluye de otra forma y a mí me hace querer comunicarme con la gente, me provoca un movimiento.

## LOS TORREZNOS

(…)

Si la esfera es algo como ésto (mientras sujeta un objeto con forma de esfera) absolutamente liso, algo bien terminado, se puede tener el problema de que uno se resbale y no acabe de poder sujetarse bien. Tal vez lo que esté planteando la esfera es una caída, es



esparru publikoaren harira, eta bakoitzak bere modura ulertzen ditu tradizioa eta politika.

## LE PARODY

(…)

Kontzertuetan argi ikusten da zerbait sortzen dela, eta hori berori eraikitzea dela: toki batean biltzen dira hainbat lagun, antzeko asmoak baitituzte, asmo horrekin lotuta. Ez da ekintza isolatua; aitzitik, jendea eraldatzen eta lotzen du. Giltzarria da hori, eta arte guztiei aplika dakioke. Komunikazio zuzena izan gabe ere, adibidez, disko bat grabatzen duzunean, norbaitek hori aditzen badu, bere etxean, bada orduan ere ari zara lotura bat eraikitzen. Niri behintzat horixe dakarkit arteak, ez soilik musika egiten ari naizenean, baizik eta baita musika ikusten edo entzuten dudanean ere. Plazerezko uneak dira, plazer aratza eta eskuzabala. Ez da diskurtsoa, ez da afektua, bestelako modu batean isurtzen den elkatruke bat baizik. Horri esker, niri gogoa pizten zait jendearekin komunikatzeko, martxan jartzen nau.

decir, una imposibilidad de poder sostenerse. Y también un cierto impedimento para poder entrar dentro, porque al ser algo tan homogéneo y tan completo a veces es difícil encontrar por dónde entrar. Entonces, la primera pregunta que le surge al artista es: ¿y por qué no un cubo público en lugar de una esfera pública? o incluso antes del cubo público, ¿por qué no una pirámide pública? La pirámide pública tiene connotaciones a otras épocas, a otros momentos de la historia, lo que podría ser un problema ya que existe un referente demasiado importante detrás. Entonces, el artista podría decir: a lo mejor en lugar de esfera pública podría ser un hexaedro público, ¿y por qué no un dodecaedro?

## MAWATRES / OREA. GRUPO DE INVESTIGACIÓN

(…)

Para contestar a la pregunta me hace falta contextualizar mínimamente la idea de esfera pública y considerarla como ese margen de diálogo o de consenso, que se desarrolla a través de los sujetos activos. No significa que todo lo que pasa en el espacio común sea esfera pública, sino lo que surge a partir del debate o de las interacciones que se dan aquí. Una ciudad vacía no genera esfera pública, sino que el contenido que generan los ciudadanos o los

## LOS TORREZNOS

(…)

Esfera bat hauxe baldin bada [esfera-formako objektu bat dauka eskuan], gauza erabat laua, burutua; bada, orduan, arazoak izan ditzakegu: irrista gaitezke, edo ondo eusteko gai izan ez. Akaso, esferak jaustea dakar, alegia, ezin eustea. Bai eta, nolabait, ezin barrura sartzea ere, izan ere, gauza hain homogeneoa eta osoa denez, batzuetan, zaila suertatzen da bertara sartzeko bideren bat topatzea. Beraz, hasteko eta behin, artistari honako galdera hau sortzen zaio: eta zergatik ez da kubo publiko bat, esfera publiko bat izan ordez? Edo, kuboa bera baino, zergatik ez da piramide publiko bat? Piramide publikoak bestelako garaietako ñabardurak dakartza, historiako beste aro batzuetakoak, eta horrek arazoak ekar litzake, izan ere, erreferente garrantzitsuegia baitago atzean. Beraz, artistak esan lezake: akaso, esfera publikoa izan beharrean, hexaedro publikoa izan liteke, eta, zergatik ez, dodekaedro bat?

## MAWATRES / OREA. IKERKETA TALDEA

(…)

Galder horri erantzute aldera, hasteko eta behin, testuinguruan kokatu behar dut esparru publikoaren



sujetos activos es donde reside la verdadera esfera pública. A partir de esta idea, creo que el arte como ciencia o como método de investigación genera esfera pública. Si entendemos que ésta es exclusivamente el debate, cualquier cosa puede crear esfera pública. El futbol los lunes por la mañana, por ejemplo, pero su interés sería muy superficial. El arte, por su complejidad y por todo el amplio abanico de ideas que trabaja a nivel de sociología, investigación, humanidades o lenguaje, construye mucha esfera pública simplemente con el debate que suscita.

## OIER IRURETAGOIENA

Empecé jovencito, y hasta el día de hoy / en esta parte cántabra, hacedor de mucho humor soy / si bien me enterrarán, no me olvidarán / dentro de ochenta años, todavía de mí hablarán*

Lo primero que me vino a la cabeza fue ese bertso de Txirrita, que acabamos de escuchar, puesto que trata sobre la impronta de una práctica vital en la sociedad. En aquella época, principios del siglo XX, mucha gente se aprendía los bertsos de memoria, y se popularizaban mediante el boca a boca. Ahora, en el año 2016, justo cuando acaban de cumplirse 80 años desde la profecía de Txirrita, yo también me he dado cuenta de que me

ideia, apur bat besterik ez bada ere: hain zuzen, solasteko eta adosteko marjin hori da, eta subjektu aktiboek egiten dute. Horrek ez du esan nahi espazio komunean gertatzen den oro esparru publikoa denik; aitzitik, esparru publikoa jaiotzen da bertan gertatzen diren eztabaida eta elkar-trukeetatik. Hiri huts batek ez du esparru publikorik sortzen, aldiz, herritarrek edo subjektu aktiboek sortutako edukian datza benetako esparru publikoa. Ideia hori abiapuntu, iruditzen zait arteak esparru publikoa sortzen duela, zientzia edo ikerketa-metodo den aldetik. Ulertzen badugu esparru publikoa eztabaida dela soil-soilik, bada, orduan, edozer gauzak sor dezake esparru publikoa. Esate baterako, futbol-partida baten ondorenak, astelehen goizean. Hala ere, azaleko interesa leukake horrek. Arteak, ordea, eztabaidak sortzen ditu, eta, ondorioz, esparru publikoa sortzen, artea konplexua baita eta askotariko ideiak lantzen baititu hainbat arlotan, hala nola soziologian, ikerketan, giza zientzietan eta hizkuntzan.

## OIER IRURETAGOIENA

Gazte-gazterik hasi nintzan da, oraindaino bitartian / Zenbait umore eder jarri det, kantabriako partian / Pixka batian ez naiz ahaztuko,

sé el bertso de memoria,
y me he sorprendido,
porque, hasta ahora, no me
había dado cuenta de que,
en efecto, me lo sabía.
Y… ¿por qué me lo sabía?
Pues, porque en la década
de los 90 la televisión
pública vasca emitía una
serie de dibujos animados
sobre Txirrita, y en la
cortinilla del principio
ponían esa canción, así
que, a fuerza de oírla,
al final la memoricé, sin
querer, de niño. Puede que
algunas otras personas
también se sepan el bertso
sin ser conscientes de
ello, pero está claro que
no son la mayoría de la
población, puesto que el
canal de televisión ETB1
no es, ni era, el canal de
mayor audiencia. Hay que
saber euskara, y eso mismo
ya supone una gran barrera.
Los dibujos animados sobre
Txirrita estaban en la
esfera pública, de la misma
manera que los bertsos de
Txirrita, pero, en ciertas
esferas, eran y siguen
siendo invisibles, algo
remoto. El arte, en algunas
esferas, es práctica y
discusión, construimos
una mirada y un imaginario
común, la esfera pública y
la privada se alimentan la
una de la otra. En cambio,
en otras esferas, el arte es
una cosa remota.

*Primer bertso, fragmento de "Txirritaren lehendabiziko bertso lagunak". Extracto del disco "Txirritaren bertsoak", por Xabier Lete y Antton Valverde. (Herri Gogoa / Edigsa, 1976).



sartuagatik lurpian / Nere
aipamenak izango dira, beste
larogei urtian*

Nola eraikitzen dute praktika artistikoek esfera publikoa? Burura etorritako lehen gauza entzun dugun Txirritaren bertso hori izan zen, bizitza osoko praktika batek jendartean utzitako arrastoari buruzkoa delako. Garai hartan, XX. mende hasieran, jende askok buruz ikasten zituen bertsoak, eta ahoz aho zabaltzen ziren. Eta 2016an, juxtu Txirritak iragarritako 80 urteak bete diren urtean, nik ere buruz dakidala konturatu naiz, eta harritu egin naiz, badakidanik ez nekielako orain arte. Arrazoia, 90. hamarkadan hari buruz Euskal Telebistarako egin zituzten marrazki bizidunen hasierako kortinillan jartzen zutela da, eta behin eta berriz entzutetik memorizatu nuen nahi gabe, ume nintzela. Baliteke dakitenik jakin gabe jakitea beste batzuek ere, baina gauza ziurra da ez direla gizarteko gehiengoa izango. ETB1 ez bait da, ez orain eta ez lehenago, audientzia gehieneko katea. Euskararen ezagutza indizeak berak muga handi bat jartzen du. Eta Txirritaren marrazki bizidunak esfera publikoan zeuden, duela 80 urteko bertso-paperak ere bai, baina ikusezinak edo oso urrutiko gauza ere baziren eta badira esfera batzuetan.

Artea, esfera batzuetan, praktika eta eztabaida da, eta ikuskera eta iruditeria

## OKELA

(…)

- E! E! Bale!
- ¡Vale ya!
- ¡Hija de puta!
  ¡Guarda la puta porra!
- Ez! E! Kooontuz!
- …maite zaitugu!
  Jone maite zaitugu!
- Kontuz!
- E! E! Ee!
- Vale eh! Cuidado!
  Vale eh!
- E! E! E! Bale! Bale!
  Bale!
- Nahiko da! E!
- Nahiko da, ezta?

Mercado de Gernika 15.12.2014

## PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA / GRUPO DE INVESTIGACIÓN

(…)

Eso que pasa de camino
a la escuela:
Maider 15 minutos
4 segundos
Itxaro 17 minutos
45 segundos
Irune 3 minutos
28 segundos
Maialen 18 minutos
29 segundos
Itsaso 20 minutos
23 segundos
Maider 4 minutos
24 segundos
Oihan 6 minutos
53 segundos
Ander 14 minutos
56 segundos
Eneko 3 minutos
11 segundos
Nerea 4 minutos
41 segundos



komunak eraikitzen ditugu,
esfera publiko eta pribatuak
elkar elikatzen dutela.
Eta urruneko gauza da artea
beste esfera batzuetan.

* Hasierako bertsoa: "Txirritaren lehendabiziko bertso lagunak" sortako zatia. Xabier Lete eta Antton Valverderen "Txirritaren bertsoak" diskatik (Herri Gogoa / Edigsa, 1976).

## OKELA

(…)

- E! E! Bale!
- ¡Vale ya!
- ¡Hija de puta! ¡Guarda
  la puta porra!
- Ez! E! Kooontuz!
- … maite zaitugu!
  Jone maite zaitugu!
- Kontuz!
- E! E! Ee!
- Vale eh! Cuidado! Vale
  eh!
- E! E! E! Bale! Bale!
  Bale!
- Nahiko da! E!
- Nahiko da, ezta?

Gernikako azoka 2014.12.15

## PEDAGOGÍAS Y ESFERA PÚBLICA / IKERKETA TALDEA

(…)

Eskola bidean gertatzen
den hori:
Maider 15 minutu
4 segundu

Kerly minutos 1
29 segundos
Nerea 16 minutos
53 segundos
Unai 2 minutos
13 segundos

## SRA POLAROISKA

Lo que entiendo por esfera pública es una esfera de cristal,

que de vez en cuando prende fuego,

es un fuego que tiene colores diferentes que van mutando

¡public enemy!,

a veces tiene morado,

a veces tiene rosa,

mucho negro,

mucho negro,

y oscila entre el espacio doméstico,

la calle

y el espacio sideral.

Ahí es donde está la esfera pública.



Itxaro 17 minutu
45 segundu
Irune 3 minutu
28 segundu
Maialen 18 minutu
29 segundu
Itsaso 20 minutu
23 segundu
Maider 4 minutu
24 segundu
Oihan 6 minutu
53 segundu
Ander 14 minutu
56 segundu
Eneko 3 minutu
11 segundu
Nerea 4 minutu
41 segundu
Kerly minutu 1
29 segundu
Nerea 16 minutu
53 segundu
Unai 2 minutu
13 segundu

## SRA POLAROISKA

Esparru publikoa, nire iritziz, kristalezko esparru bat da,

tartean behin su hartzen du,

eta su hori, aldiz,
hainbat kolorez janzten da,

public enemy!,

batzuetan morea da,

beste batzuetan, arrosa,

beltza beti oparo,

beltza beti oparo,

eta zabuka dabil,
orain etxeko esparruan,

gero kalean,

eta espazio sideralean.

Hortxe bertantxe dago esparru publikoa.

## NOTAS / OHARRAK:

NOTAS / OHARRAK:

NOTAS / OHARRAK:

Dirección artística y coordinación /
Arte-zuzendaritza eta kudeaketa:

consonni

Producción /
Ekoizpena:

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

TABAKALERA

Colaboraciones / Kolaboratzaileak:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Azkuna Zentroa AlhóndigaBilbao

BABA MUNDAIZ 8, DONOSTIA

Apoyos / Babesa:

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia

Bilbao Ekintza

ehukultura Bizkaia

AC/E ACCIÓN CULTURAL ESPAÑOLA

eitb

GORKAIZAGIRRE

97 FM

CASARES IRRATIA

RVK Radio Vallekas

TEA FM.net escuela de radio

SILKEN AMARA PLAZA SAN SEBASTIÁN

EUSKO LABEL Goi-mailako elikagaiak / Alimentos de calidad superior

AGPOGRAF IMPRESSORS

FILMIN

Más que adjetivar y delimitar las prácticas artísticas como “públicas”, en línea con la noción de “arte público”, aquí se propone operar sobre el concepto más difuso de “esfera pública”. Esto amplía y desparrama la mirada sobre la operación, que el arte posibilita, de análisis y representación de los asuntos comunes. LaPublika se mueve entre los pliegues de lo público, lo privado, lo común, lo íntimo, la plaza, el cubo blanco, lo político, lo institucional, los conflictos, lo democrático, lo sonoro, las imágenes, los relatos, el discurso, la conversación, el diálogo, el susurro, el grito, el crujido y muchos otros sustantivos que van y vienen.

La publicación que tienes entre tus manos recoge documentación del proyecto LaPublika, laboratorio de investigación artística sobre esfera pública. Dirigido por la productora de arte y editorial consonni, co-producido por Donostia / San Sebastián 2016 y Tabakalera, con la colaboración y el apoyo de múltiples organizaciones, instituciones y cómplices.

“Arte publikoaren” barruan, arte-praktikak zehazten eta mugatzen dira, eta “publikotzat” jotzen; hemen, ordea, kontzeptu lausoago batekin lan egin dugu, “esparru publikoa” kontzeptuarekin, hain zuzen. Horri esker, begirada zabaltzen eta sakabanatzen da, eta gai komunak aztertzeko eta errepresentatzeko ekintzari erreparatzen zaio, horixe egiten du-eta arteak. Askotariko tolesen artean mugitzen da LaPublika: publikoa, pribatua, komuna, intimoa, plaza, kubo zuria, instituzioa, gatazkak, demokrazia, soinua, irudiak, kontakizunak, diskurtsoa, elkarrizketa, solasaldia, xuxurla, garrasia, kirrinka eta joan-etorrian dabiltzan beste hainbeste izen.

Eskutartean duzun argitalpen honetan Lapublika proiektuaren inguruko dokumentuak biltzen dira, esparru publikoa ikertu nahi duen laborategia, alegia. consonni arte ekoiztetxe eta argitaletxea, Lapublika proiektua koordinatu du Donostia/SS2016 eta Tabakaleraren ekoizpen laguntzarekin, antolakunde zein instituzio anitzen babesa jasoz.

9 788416 205202

consonni.org